



*Article*  
*de la*

te  
17

17

contient,  
divinité  
es ou

ence?  
efface les

avec fruit le

de sacrement de  
première-  
secondement,  
péchés; troi-  
de ne plus  
resser tous ses  
mement,

mon cœur  
infini-  
lie v  
eux p  
s





~~Paris~~ Rue du Jardin  
Public N<sup>o</sup> 181 au (coin de l'impression)



EXERCICIO

**IZPIRITUALA.**

## PERMISIONEA.

**F**RANÇOIS LACROIX, misericordia di-  
binoaz eta Alkhi Saindu Apostolicoa-  
ren autoritatez Bayonaco Aphezpicu;

Iracurri ondoan C. CLUZEAU, eguin da-  
rocun galdea, berritan imprimatu nahiz  
*Exercicio Ispirituala, bere salbamendua*  
*eguiteco desira duten Guiristinoentzat la-*  
*guntça handitacoa*, Bayonaco diocesaco  
usaiacolçat.

Permetitu eta permetitcen dugu galdegui-  
leari, berritan obra hunen imprimatcea, be-  
gniztatu dugun exemplera beçala icatecotan,  
eta biga lehenic eçartcecotan Aphezpicute-  
guico liburuteguiari.

Bayonan emana gure sinaduraren, gure  
armen ciguiloaren eta gure secretarioaren  
sinaduraren azpian.

Erearoaren hogoi eta seian 1862.

† FRANÇOIS LACROIX.

*Bayonaco Aphezpicua,*

Yaun Aphezpicuaren

manuz :

FRANCHISTÉGUY, secr.<sup>a</sup>





917 3000

Carroll

godwin

6

Carroll godwin

new



*L. Turpin*

*Edite Paris*

516

STE VÉRONIQUE. † STA VERÓNICA.





500009350

ZRV  
3378

# EXERCICIO

## IZPIRITUALA,

BERE SALBAMENDUA EGUIN NAHI DUTEN GUIRISTI-  
NOENTÇAT LAGUNTÇA HANDITACOA ;

**EDICIONE BERRIA,**

ERRUMACO USAYAREN ARABERA ,

*Emendatua ordinarioco Meça latinaz,  
urthe gucico Bezperetaco Himnoez,  
Lethaniez, Contricionera preparat-  
ceco bertce moldea, etc.*



*me casnik*

**SALTÇEN DA BAYONAN,**

CLUZEAU, liburu eta paper marchantaren baithan,  
Cilharguin carrican, 42 numeroan.

—  
**1865.**

# TABLA.

UR- THEA.	IGAN- DEA.	SEPTUA.	HAUSTE.	BAZCO.	SALBAT.
1863	d	1 Ox.	18 Ox.	5 Ap.	14 May.
1864	c b	24 Ur.	10 Ox.	27 Mar.	5 May.
1865	A	12 Ox.	1 Mar.	16 Ap.	25 May.
1866	g	28 Ur.	14 Ox.	1 Ap.	10 May.
1867	f	17 Ox.	6 Mar.	21 Ap.	30 May.
1868	e d	9 Ox.	26 Ox.	12 Ap.	21 May.
1869	c	24 Ur.	10 Ox.	28 Mar.	6 May.
1870	b	13 Ox.	2 Mar.	17 Ap.	26 May.
1871	A	5 Ox.	22 Ox.	9 Ap.	18 May.
1872	g f	28 Ur.	14 Ox.	31 Mar.	9 May.
1873	e	9 Ox.	26 Ox.	13 Ap.	22 May.
1874	d	1 Ox.	18 Ox.	5 Ap.	14 May.
1875	c	24 Ur.	10 Ox.	28 Mar.	6 May.
1876	b A	13 Ox.	1 Mar.	16 Ap.	25 May.
1877	g	28 Ur.	14 Ox.	1 Ap.	10 May.
1878	f	17 Ox.	6 Mar.	21 Ap.	30 May.
1879	e	9 Ox.	26 Ox.	13 Ap.	22 May.
1880	d c	25 Ur.	11 Ox.	28 Mar.	6 May.
1881	b	13 Ox.	2 Mar.	17 Ap.	26 May.
1882	A	5 Ox.	22 Ox.	9 Ap.	28 May.
1883	g	21 Ur.	17 Ox.	25 Mar.	3 May.
1884	f e	10 Ox.	27 Ox.	13 Ap.	22 May.
1885	d	1 Ox.	18 Ox.	5 Ap.	14 May.
1886	c	21 Ox.	10 Mar.	25 Ap.	3 Erea.

## URTHARILLA.

a	1	CIRCONCISIONEA.
b	2	(Macario.)
c	3	(Genebieba.)
d	4	(Rigobert.)
e	5	(Simeon estilit.)
f	6	TRUFANIA.
g	7	(Lucien.)
a	8	(Lucien.)
b	9	(Julien.)
c	10	(Guillamu.)
d	11	(Salbo.)
e	12	(Satira.)
f	13	(Leonce.)
g	14	Hilario.
a	15	Paulo er. - Maur.
b	16	Marcel I.
c	17	Antonio.
d	18	<i>J. Petriren alka.</i>
e	19	Canut.
f	20	Fab. eta Sebast.
g	21	Agnes.
a	22	Bichincho eta A.
b	23	<i>ABM Ezeonça.</i>
c	24	Timoteo.
d	25	<i>J Pauloren conb.</i>
e	26	Policarpe.
f	27	Bitalien I.
g	28	Joan. Crisost
a	29	Frances Sales.
b	30	Felix IV.
c	31	Petri Nolasc.

## OXAILLA.

d	1	Ignacio.
e	2	A.B.M. PURIF. C.
f	3	Denis I. — Blas.
g	4	Joanna Bales.
a	5	Agata.
b	6	Hyacinta. - Dor.
c	7	Romualde.
d	8	Joannes Mat.
e	9	Sosimo I. - Apo.
f	10	Escolastica.
g	11	Antero I.
a	12	Telesforo I.
b	13	Gregorio II.
c	14	Agatou I. - Bal.
d	15	Martina. - Faus.
e	16	Gregorio X.
f	17	Higin I.
g	18	Erramun. - Sim.
a	19	Tito.
b	20	Andres Corsini.
c	21	(Fortunat.)
d	22	<i>J. Petr. alk. Ant.</i>
e	23	Petri Damiano.
f	24	MATIAS ap.
g	25	Felix III.
a	26	Margarita Cort.
b	27	(Leandre)
c	28	(Romain.)

## MARCHOA.

d	1	LEON Baion.
e	2	Simplicio I.
f	3	(Ticien.)
g	4	Luce I.
a	5	Casimir.
b	6	(Coleta.)
c	7	Thomas Aquin.
d	8	Joannes-de-D.
e	9	Francesa alharg.
f	10	40 martir.
g	11	(Uloge.)
a	12	Gregorio I.
b	13	(Ufrasia.)
c	14	(Mathilda.)
d	15	Sacarias I.
e	16	(Julien.)
f	17	Patricio.
g	18	<i>Gabriel</i> arcang.
a	19	JOSEPH.
b	20	(Joachim.)
c	21	Beñat.
d	22	(Catalina.)
e	23	(Bictorien.)
f	24	(Simeon.)
g	25	AMA B. ANNONC.
a	26	(Braulion.)
b	27	(Alexandre.)
c	28	Sisto III.
d	29	(Jonas.)
e	30	(Riul.)
f	31	(Beujamin.)

## APIRILLA.

g	1	(Hughes.)
b	2	Frauces Paul.
a	3	(Richard.)
c	4	Isidoro.
d	5	Bichincho Ferr.
e	6	Sisto I.
f	7	Celestin I.
g	8	(Denis.)
a	9	(Maria Cleof.)
b	10	(Terencio.)
c	11	Leon I.
d	12	Julio I.
e	13	Hermenegilde.
f	14	Tiburce.
g	15	(Anastasia.)
a	16	(Murthuts.)
b	17	Anicet I.
c	18	(Perfet.)
d	19	Leou IX.
e	20	(Teotime.)
f	21	Anselmo
g	22	Sotero I. - Caio I.
a	23	George.
b	24	Fidel.
c	25	MARCV ebang.
d	26	Clet I. - Mar. I.
e	27	Anastasio I.
f	28	Bitat.
g	29	Piarres mart.
a	30	Catalina Seu.



## MAYATÇA.

b	1	FILIP. eta JACOBRE.
c	2	Atanasio.
d	3	GURUTCE S. AURK.
e	4	Monica.
f	5	Pio V.
g	6	<i>Joannes bort. lat</i>
a	7	Benat II.
b	8	<i>Michel arc. agu.</i>
c	9	Gregorio Naz.
d	10	Antonin.
e	11	Alexandre I.
f	12	Nere, Achille.
g	13	Estanislas.
a	14	Pascal I. - Bonif.
b	15	Isidoro labor.
c	16	Ubald.
d	17	Joann. Nepomuc
e	18	Benancio.
f	19	Piarres Celest. I.
g	20	Bernardin Sen.
a	21	Felix Cantalic.
b	22	Pascal Baylon.
c	23	(Desire)
d	24	<i>A. B. M. Lag.</i>
e	25	Gregorio VII.
f	26	Filippe Neri.
g	27	Joannes I.
a	28	Urbain I.
b	29	Bonifacio IV.
c	30	Felix I.
d	31	Angela Mer. - P.

## EREAROA.

e	1	Eluterio I.
f	2	Eugenio I. - Mar.
g	3	Mar. Mag. Pazzi.
a	4	Frances Carac.
b	5	Ferdinan III. er.
c	6	Norbert.
d	7	(Amand.)
e	8	(Medard.)
f	9	Prim eta Felician
g	10	Margarita.
a	11	<i>Barnabe ap.</i>
b	12	Leon III.
c	13	Antonio Pad.
d	14	Basilio.
e	15	Joann. - Modest.
f	16	(Joan. - Fr. Reg.)
g	17	(Manuel.)
a	18	Marc, Marcell.
b	19	Juliana. - Gerv.
c	20	Silberio I.
d	21	Luis Gonzag.
e	22	Paulin.
f	23	(Agrippina.)
g	24	J. JOAN. - BAT.
a	25	Galican
b	26	Joann. eta Paulo.
c	27	Guillem.
d	28	Leon II.
e	29	J. PETRI eta P.
f	30	J. Pauloren com.

## UZTAILLA.

## ABOSTUA.

g	1	(Jule.)	c	1	<i>J Petri gathetan.</i>
a	2	A. B. M. BISITAC.	d	2	Estebe I.
b	3	Paulo I.	e	3	J. Esteb. aurk.
c	4	Irenee.	f	4	Domingo.
d	5	(Zoe.)	g	5	<i>A. M. B. elhurr.</i>
e	6	(Dominica.)	a	6	<i>J.-C. Transfig.</i>
f	7	Benat XI.	b	7	Caietano. - Don.
g	8	Elizabeth.	c	8	Ciriago. - Largo.
a	9	<i>A. B. M. miras.</i>	d	9	Emide. - Romain
b	10	7 anaia, Rufina.	e	10	J. Laurendi.
c	11	Pio I.	f	11	Sisto II. - Tibur.
d	12	Joann. Gualb.	g	12	Clara.
e	13	Anaclet.	a	13	Beronica. - Hip.
f	14	Bonabentura.	b	14	Hormisdas. - E.
g	15	Henric.	c	15	A. M. B. ASOM.
a	16	<i>A. B. M. abituc.</i>	d	16	Roc.
b	17	Leon IV.	e	17	(Mammes.)
c	18	Camille. - Sim.	f	18	Hiacinte.
d	19	Bichincho Paul.	g	19	Filomena.
e	20	Hierome Emil.	a	20	Bernat.
f	21	Alexis. - Praxeda	b	21	Joanna-Franc.C.
g	22	Maria Madalena.	c	22	Timote, etc.
a	23	Apolinario.	d	23	Filippe Beniti.
b	24	Simaco I. - Cris.	e	24	BARTHOLOME ap.
c	25	JACQUES ap. - Cri.	f	25	Luis erreg.
d	26	<i>Anna.</i>	g	26	Zefrin I.
e	27	Galatorio. - Pan.	a	27	Joseph Calasanz.
f	28	Bictor I. - Inn. I.	b	28	Augustin.
g	29	Felix II., etc.	c	29	<i>J. J. Batist. bur</i>
a	30	Martha. - Abdon	d	30	Arrosa Lim.
b	31	Ignacio.	e	31	Erramun Nonnat

## BURRULA.

## URRIA.

f	1	Alfonso M.-Lig.	a	1	Remi.
g	2	Estebe erreg.	b	2	Aingueru begui.
a	3	<i>Julien</i> Lescarr.	c	3	Gregorio Armen.
b	4	Arrosa Biterb.	d	4	Frances Assis.
e	5	Laurendi Justin.	e	5	Galla. - Placide.
d	6	(Fauste.)	f	6	Bruno.
e	7	(Clodoald.)	g	7	Ma:co I.
f	8	A. M. B. SORTCEA.	a	8	Brigita.
g	9	Sergio I. - Gorg.	b	9	Denis.
a	10	Hilario I.	c	10	Frances Borg.
b	11	Nicolas Tolent.	d	11	(Firmin.)
c	12	(Silbin.)	e	12	(Serafin.)
d	13	(Maurrillo.)	f	13	Eduard.
e	14	<i>Gurutee S. exal.</i>	g	14	Caliste I.
f	15	Nicomede.	a	15	Teresia.
g	16	Cornelio I. eta C.	b	16	(Florentin.)
a	17	Franc. Estimac.	c	17	Heduija.
b	18	Joseph Cupertin.	d	18	Iue ebang.
c	19	Januario, etc.	e	19	<i>Grat.</i>
d	20	Agapit I.	f	20	Joannes Cant.
e	21	MATHIU ap. eb.	g	21	Ursula. - Hilar.
f	22	Th. Billan. - M.	a	22	Piarres Alcant.
g	23	Lin I. - Thecla.	b	23	<i>Erredemptor SS</i>
a	24	<i>A. M. B. Erosp.</i>	c	24	<i>Rafaël</i> arc.
b	25	Ustach, etc.	d	25	Bonifacio I.
c	26	Eusebi I. - Just.	e	26	Ebarista I.
d	27	Cosmo eta Dam.	f	27	(Sabina.)
e	28	Uenceslas.	g	28	SIMON eta JUDA ap
f	29	J. MICHAEL arc.	a	29	(Usebia.)
g	30	Hierome.	b	30	(Alphonse Rod.)
			c	31	Siricio I.

## HACILLA.

## ABENDOIA.

d	1	UMIA SAINDU	f	1	Didaco.
e	2	<i>Arina penatuac.</i>	g	2	Bibiana.
f	3	(Hubert.)	a	3	Frances Xabier.
g	4	Charles Borr.	b	4	Piar. Cris. - Bar.
a	5	(Filotea.)	e	5	Nicolas I. - Sab.
b	6	(Léonard.)	d	6	Nicolas.
c	7	(Florant.)	e	7	Ambrosio.
d	8	Laur Coronatuac	f	8	A. M. B. CONC. G.
e	9	Latran elic. ded.	g	9	Utichiano I.
f	10	Andre Abellin.	a	10	<i>A. M. B. Lorel.</i>
g	11	J. Martin.	b	11	Damas I.
a	12	Martin I.	c	12	Melchias I.
b	13	Estanislao Kost.	d	13	Luce.
c	14	Deusdedit I.	e	14	Paulo-Gurute.
d	15	Gertrude.	f	15	(Mesmin.)
e	16	(Edmond.)	g	16	Usebe.
f	17	Gregorio mirac.	a	17	(Lazaro.)
g	18	J. Pet. eta P. e. d.	b	18	<i>A. M. B. Expec.</i>
a	19	Pontiano I.	c	19	(Nemeso.)
b	20	Felix Bales.	d	20	(Filogone.)
c	21	<i>A. M. B. Presen.</i>	e	21	THOMAS ap.
d	22	Cecilia.	f	22	(Zenon.)
e	23	Clement. - Feli.	g	23	(Victoria)
f	24	Joannes. - Gurut.	a	24	<i>Egub. bichilia.</i>
g	25	Catalina.	b	25	EGUBERRI.
a	26	Silb. - Piar. - Al.	c	26	J. ESTEBE leh. m.
b	27	Elizabeth.	d	27	J. JOANNI ap. eb.
c	28	Gregorio III.	e	28	HAUR INOCENTAG.
d	29	Gelasio I. - Sat.	f	29	Thomas Cantor.
e	30	ANDRES ap.	g	30	(Sabin.)
			a	31	Silbestre.

## GOICECO OTHOITÇA,

ETCHECO GUCIEC ELGARREKIN EGUIN  
BEHAR LUKETENA.

AITAREN, ETA SEMEAREN, ETA IZPIRITU-  
SAINDUAREN ICENEAN. HALABIZ.

Orhoit gaitecen **Yaincoaren aitcinean ga-  
rela, eta adora deçagun Adoracionezco  
acta batez.**

*Adoracionezco acta.*

**Y**AINCO guciz botherexua, Aita, Se-  
mea, eta Izpiritu-Saindua, çoinac  
creatu binauçu çure eçagutceco eta  
maithatceco ahalarekin, huna non na-  
gon umilki çure aitcinean belhaunca.  
Eçagutcen dut ene miseria eta ezdeus-  
tasuna; adoratcen çaitut gauça gucien  
Creatçalea eta Nausi Soberanoa beçala.

Yauna, sinhesten dut çu baithan,  
ceren eguia bera baitçare; esperantça  
dut çu baithan, ceren guciz ona bait-  
çare: maite çaitut ene bihotz guciaz,

ene arima guciaz, ene indar guciez, ceren baitçare osoki maitagarria.

Cer bihurtuco derautçut, Yauna, çu ganic errecebitu ditudan ongui-eguin gucientçat? Deus ez dut çure yenerostate handiari çor ez diotanic. Eskerrac deraitçut bereciki ceren creatu nauçun, bekhatutic erosi, eguiazco Fedeaz arguitu, eta egundino conserbatu, eguiazco Aita baten artha guciarekin.

*Hemen conxideratu behar da cer gracia eguin deraucun Yaincoac, egun hau gure salbamenduan trabailatceco emanetz : eta hunen sainduki iragaiteco chede cin bat hartu.*

*Orhoitu behar da çoin diren maice-nic eguiten diren huxac; aitcinetic ikhusi bekhaturat deramaten ocasioneac, eta deliberacione hartu hulaco bekhatutic eta ocasionelic urruntceco. Hortacotz egon behar da hemen aphur bat ichilic.*

**I**KHUSTEN ditutçu, Yauna, ene bihotçaren azken pleguetarainoco guciac,

eta bereciki memento huntan hartcen ditudan deliberacione sainduac; bainan eçagutcen duçu halaber ene flakecia : nola beguira naiteke bekhatutic çure laguntça gabe? Yainco guciz botherexua, salba neçaçu; emadatuçu, othoi, ene arimaren exayari bihurtceco eta bekhatuan erori gabe egun hunen iragaiteco behar ditudan indarrac. Eguçu, çure graciaz, ene phenxamenduac, hitçac, obrae, sofricarioac, oro çure legue sainduaren arabera içan ditén. Halabiz.

**G**URE Aita, Ceruetan çarena, erabil bedi sainduki çure Icena; ethor bedi çure erresuma, eguin bedi çure borondatea, Ceruan beçala Lurrean ere; iguçü egun gure eguneco oguia; barkha çagutçu gure çorrac, guc gure gure-ganat çordun direnei barkhatcen dioztegun beçala; eta ez gaitçatçula utz tentamendutan erortcerat; bainan beguira gaitçatçu gaitcetic. Halabiz.

**A**GUR, Maria, graciaz bethea, Yauna

da çurekin ; benedicatua çare emazte gucien artean, eta benedicatua da çure sabeleco fruitua Yesus.

Maria Saindua, Yaincoaren Ama, eguiçu othoitz gu bekhatorentçat, orai eta gure heriotceco orenean. Halabiz.

**S**INHESTEN dut Yainco Aita bothere gucia duena baithan, Ceruaren eta Lurraren creatçalean; eta Yesu-Christo haren Seme bakhar gure Yauna baithan; çoin contcebitu baitcen Izpiritu-Sainduaren berthutez, sorthu cen Maria Biryina-ganic; pairatu çuen Pontcio Pilatusen manuaren azpian, khurutceficatu çuten, hil cen eta ehortci çuten; yauxi cen Ifernuetarat, hirurgarren egunean yaiki cen biciric hilen artetic; igan cen Ceruetarat, yarriadago Yainco Aita bothere gucia duenaren escuinean; hantic ethorrico da bicien eta hilen yuyatcerat.

Sinhesten dut Izpiritu-Saindua baithan; Elica Catolico Sainduan, Sainduen partaliertasunean; bekhatuen barkhamenduan; haraguiaren phiz-



tean; bethi iraunen duen bicitcean.  
Halabiz.

**C**OFESATCEN nitçayo Yainco Aita bo-  
there gucia duenari, Maria bethi Bir-  
yina dohaxuari, Micael Arcanyelu do-  
haxuari, Yoanes-Baptista dohaxuari,  
Petri eta Paulo Apostolu Sainduei,  
Saindu guciei, eta çuri ene Aita, ceren  
eguin baitut sobera bekhatu, gogoz,  
hitcez eta obraz; ene faltaz, ene faltaz,  
ene falta handiaz. Hortacotz othoitz  
eguiten diot Maria bethi Biryina doha-  
xuari, Micael Arcanyelu dohaxuari,  
Yoanes-Baptista dohaxuari, Petri eta  
Paulo Apostolu Sainduei, Saindu gu-  
ciei, eta çuri ene Aita, eguin deçoçuen  
enetçat othoitz gure Yainco Yaunari.

Yainco bothere gucia duenari urri-  
cal gakiscola, eta gure bekhatuac  
barkhaturic, helaraz gaitçala bicitce  
eternalerat. Halabiz.

Gure bekhatuen barkhamendua, ab-  
solucionea eta erremisionea eman de-  
çagula Yainco bothere gucia duenac  
eta misericordiaz betheac. Halabiz.

**Y**AUNAREN Ainguerua, Yaincoaren Probidentciac nitaz artha hartceco establitu cituen guidari leyala, othoi bidal neçaçu eta gaitcetic beguira, egun eta ene bicico oren guciez. Halabiz.

Biryina Maria Saindua, çuec Aingueru onac, ene Patroin Saindua, eta Saindu guciac, balia çazkitet Yaincoaren aiticinean. Hil direnen arimac bakean phausa ditecela. Halabiz.

*Igandetan erranen dire Yaincoaren eta Elicaren Manamenduac.*

#### YAINCOAREN MANAMENDUAC.

1. **Y**AINCO bat adora çaçü,  
Halaber maitha osoki.
2. Yuramenturic çue ez duçu,  
Ez cinic eguinen banoki.
3. Igandeaç beguira çatçu,  
Yauna ere cerbitça debotki.
4. Aita eta Ama ohora çatçu,  
Bici çaitecen luceki.
5. Nehor obraz hilen ez duçu,  
Ez borondatez gaichtoki.

6. Paillardica eguinen ez duçu,  
Obraz ez gogoz likhiski.
7. Bertcerena ebaxico ez duçu,  
Ez atchikico inyustuki.
8. Lekhucotasunic ez duçu,  
Ez hitz erranen falxuki.
9. Bertceren esposic ez duçu,  
Desiratuco liçunki.
10. Guthicia içanen ez duçu,  
Bertceren onaren gaizki.

ELIÇAREN MANAMENDUAC.

1. **M**EÇA Saindua entçun-eçaçu,  
Besta Igandetan debotki.
2. Eta Bestac beguira çatçu,  
Manamenduzcoac sainduki.
3. Bekhatuac cofesa çatçu,  
Urthean behin osoki.
4. Gorphutz-Saindua errecibi çaçü,  
Phazcoz bederen umilki.
5. Garthac, Bigiliac, barur çatçu,  
Gariçuma ere osoki.
6. Ortciralean yanen ez duçu,  
Ez larumbatean haragui.

## ARRAXECO OTHOITÇA.

AITAREN, ETA SEMEAREN, ETA IZPIRITU-  
SAINDUAREN IGENEAN. HALABIZ.

**Orhoit gaitecen Yaincoaren aiticinean ga-  
rela, eta adora deçagun Adoracionezco  
acta batez.**

*Adoracionezco acta.*

**Y**AINCO guciz botherexua eta eternala,  
Aita, Semea eta Izpiritu-Saindua, çoina  
baitçare lekhu gucietan, yiten nitçau-  
çu ene adoracionen eta ohoren bihurt-  
cerat, gaurco descaxuaren hartcerat  
yoan baino lehen.

Adoratcen çaitut, ô ene Yaincoa,  
maite çaitut, laudatcen eta benedicat-  
cen çaitut. Çu çare Aita urricalpenez  
bethea; Yainco conxolatçalea, eguiaz-  
co dohain gucien ithurria. Eskerrac de-  
raitçut, ahalaz umilki, eguin deraitat-  
çun ongui guciez, eta bereciki egun  
huntacoez.

Bainan nola ihardexi dut, Yauna, çure onthasun içarigabecoari? Ala esker gaichtoz pagatu baitçaitut hambat bekhatutan eroriz, bethi ongui eguiten hari cinaitan demboran!

Yauna, argui çaçü ene izpiritua, eçagut ditçadan ene bekhatuen nombrea eta handitasuna; bero çaçü ene bihotça çure amodioaren suaz, damu eguiazco bat içan deçadan çu ofenxaturic.

*Hemen ikhusi behar da egun cer bekhatu eguin den gogoz, hitcez, obraz, edo eguin behar cena ez eguinez, nahiz Yaincoaren, nahiz Lagunaren, nahiz bere buruaren contra; baratcen delaric particularzki maicenic eguiten diren bekhatuez orhoitcen.*

**A**ITHORTCEN ditut, Yauna, çure aitcinean ene bekhatuac, orotaz barkhamendu escatcen derautçut, Yesu-Christoren merecimenduen berthutez. Hastiatcen ditut, ceren çure ofenxac diren, eta hitcemaiten derautçut, çure graciarekin batean, urrunduco niçala

hementic aiteina, bekhatutic eta be-  
khatuaren ocasionetic, eta eguinen  
dudala orotaz penitencia.

**C**ONFITEOR Deo omnipotenti, beatæ  
Mariæ semper Virgini, beato Michaeli  
Archangelo, beato Joanni-Baptistæ,  
sanctis Apostolis Petro et Paulo, om-  
nibus Sanctis, et tibi, Pater, quia pec-  
cavi nimis cogitatione, verbo et opere;  
meâ culpâ, meâ culpâ, meâ maximâ  
culpâ. Ideo precor beatam Mariam  
semper Virginem, beatum Michaellem  
Archangelum, beatum Joannem-Bap-  
tistam, sanctos Apostolos Petrum et  
Paulum, omnes Sanctos, et te, Pater,  
orare pro me ad Dominum Deum nos-  
trum.

Misereatur nostrî omnipotens Deus,  
et, dimissis peccatis nostris, perducatur  
nos ad vitam æternam. Amen.

Indulgentiam, absolutionem et re-  
missionem peccatorum nostrorum tri-  
buat nobis omnipotens et misericors  
Dominus. Amen.

**P**ATER noster, qui es in cœlis, sancti-

ficetur Nomen tuum; adveniat regnum tuum; fiat voluntas tua sicut in cœlo et in terra; panem nostrum quotidianum da nobis hodiè, et dimitte nobis debita nostra, sicut et nos dimittimus debitoribus nostris; et ne nos inducas in tentationem, sed libera nos à malo. Amen.

**A**VE, Maria, gratiâ plena, Dominus tecum; Benedicta tu in mulieribus, et benedictus fructus ventris tui, Jesus.

Sancta Maria, Mater Dei, ora pro nobis peccatoribus, nunc et in horâ mortis nostræ. Amen.

**C**REDO in Deum Patrem omnipotentem, creatorem cœli et terræ; et in Jesum-Christum, Filium ejus unicum, Dominum nostrum; qui conceptus est de Spiritu Sancto, natus ex Mariâ Virgine; passus sub Pontio Pilato, crucifixus, mortuus et sepultus; descendit ad Inferos, tertiâ die resurrexit à mortuis; ascendit ad Cœlos, sedet ad dexteram Dei Patris omnipotentis; indè venturus est judicare vivos et mortuos.

Credo in Spiritum Sanctum; Sanctam Ecclesiam Catholicam, Sanctorum communionem; remissionem peccatorum; carnis resurrectionem; vitam æternam. Amen.

**O**THOIZTEN çaitut, Yauna, çure benedictionea eta graciaç ichur ditçatçun gure Aita-Sainduaren, gure Yaun Aphezpicuaren, gure aitecindarien gainerat, halaber ene ahaide, adiskide, exai, eta yeneralean ene othoitçetarat cerbait dretcho duketen presuna guciën gainerat. Guida gaitçatçu othoi guciac salbamenduco bidean.

Othoizten çaitut ere, Yauna, Purgatorioetaco penetan diren arimentçat; emoçute bere bekhatu guciën barkhamendua, eta sarrarazkitçu hambat lehiarekin igurikitçen duten egoitça dohaxuan. Escatçen derautçut Yesu-Christo gure Yaunaz, çoina bat baita çurekin eta Izpiritu-Sainduarekin, mende eta mende guciëtaco bicitçean. Halabiz.

Biryina Saindua, Yaincoaren Ama,



othoitz eguicū enetçat; çuec Aingueru onac eta Saindu guciac, balia çazkiet; ene Aingueru beguirale Saindua, çauden atçarria ene inguruetan.

Yainco guciz botherexu eta urricalpenez betheac, Aita, Seme eta Izpiritu-Sainduac, digutçila gau ezti bat eta heriotçe dohaxu bat. Halabiz.

*Dembora dencan erran ditezke Biryina Sainduaren Lethaniac.*

## BIRYINA SAINDUAREN

## LETHANIAC.

**K**YRIE eleison. Kyrie eleison,  
Christe eleison. Christe eleison.  
Kyrie eleison. Kyrie eleison.  
Christe audi nos. Christe audi nos.  
Christe exaudi nos. Christe exaudi nos.  
Pater de cœlis Deus, miserere nobis.  
Fili Redemptor mundi Deus, miserere nobis.  
Spiritus Sancte Deus, miserere nobis.  
Sancta Trinitas, unus Deus, miserere nobis.  
Sancta Maria, ora pro nobis.  
Sancta Dei Genitrix, ora pro nobis.  
Sancta Virgo Virginum, ora pro nobis.  
Mater Christi, ora pro nobis.

Mater divinæ gratiæ,  
 Mater purissima,  
 Mater castissima,  
 Mater inviolata,  
 Mater intemerata,  
 Mater amabilis,  
 Mater admirabilis,  
 Mater Creatoris,  
 Mater Salvatoris,  
 Virgo prudentissima,  
 Virgo veneranda,  
 Virgo prædicanda,  
 Virgo potens,  
 Virgo clemens,  
 Virgo fidelis,  
 Speculum justitiæ,  
 Sedes sapientiæ,  
 Causa nostræ lætitiæ,  
 Vas spirituale,  
 Vas honorabile,  
 Vas insigne devotionis,  
 Rosa mystica,  
 Turris Davidica,  
 Turris eburnea,  
 Domus aurea,  
 Fœderis arca,  
 Janua Cœli,  
 Stella matutina,  
 Salus infirmorum,  
 Refugium peccatorum,  
 Consolatrix afflictorum,

Ora pro nobis.

Ora pro nobis.

Auxilium Christianorum ,  
 Regina Angelorum ,  
 Regina Patriarcharum ,  
 Regina Prophetarum ,  
 Regina Apostolorum ,  
 Regina Martyrum ,  
 Regina Confessorum ,  
 Regina Virginum ,  
 Regina Sanctorum omnium ,  
 Regina sinè labe concepta ,  
 Agnus Dei qui tollis peccata mundi , parce  
 nobis Domine.  
 Agnus Dei qui tollis peccata mundi , exau-  
 di nos Domine.  
 Agnus Dei qui tollis peccata mundi , mise-  
 rere nobis.  
 Christe audi nos. Christe audi nos.  
 Christe exaudi nos. Christe exaudi nos.

## OREMUS.

Defende, quæsumus, Domine, beatâ  
 Mariâ semper Virgine intercedente,  
 istam ab omni adversitate familiam :  
 et toto corde tibi prostratam, ab hos-  
 tium propitius tuere clementer insi-  
 diis. Per Christum Dominum nostrum.  
 Amen.

---

*Igandetan erranen dire :*

FEDEZCO ACTA.

**E**NE Yaincoa, sinhesten ditut cinez eta ene bihotz guciaz, Elica Catholico Apostolico Erromanoac sinhesten eta irakhasten dituen gauça guciac; ceren çue, eguia bera çarenac, irakhaxi baiterazçotçu.

ESPERANTÇAZCO ACTA.

**E**NE Yaincoa, esperantça dut, sinheste fermu batekin, emanen derautaçula Yesu-Christoren merecimenduen bertutez, mundu huntan çure gracia, eta çure Manamenduei yarraikitcen banaiz bertcean çure gloria; ceren hitceman baituçü eta baitçare çure hitcetan osoki leyala.

CARITATEZCO ACTA.

**E**NE Yaincoa, maite çaitut ene bihotz guciaz eta gauça gucien gainetic; ceren baitçare gucziz ona eta osoki mai-

ANDREDENA MARIAREN LETHANIAC. 17

tagarria : maite dut halaber ene Laguna ene burua beçala çure amoreagatic.

---

ANDREDENA MARIAREN

LETHANIAC.

**Y**AUNA, urrical gakizkitçu.  
Yesu-Christo, urrical gakizkitçu.  
Yauna, urrical gakizkitçu.  
Yesu-Christo, adi gaitçatçu.  
Yesu-Christo, entçun gaitçatçu.  
Ceruco Aita, ceina baitçare Yaincoa, urrical gakizkitçu.  
Semea, munduaren Salbatçailea, ceina baitçare Yaincoa, urrical gakizkitçu.  
Izpiritu-Saindua, ceina baitçare Yaincoa, urrical gakizkitçu.  
Trinitate Saindua, ceina baitçare Yaineo bakhoch bat, urrical gakizkitçu.  
Maria Saindua, othoitz eguiçu guretçat.  
Yaincoaren Ama Saindua, othoitz eguiçu guretçat.  
Biryinen Biryina Saindua, othoitz eguiçu guretçat.  
Yesu-Christoren Ama, othoitz eguiçu guretçat.

18 ANDREDENA MARIAREN LETHANIAC.

Gracia dibinoaren Ama,  
Ama guciz chahua,  
Ama guciz garbia,  
Ama hoguen gabea,  
Ama tatcharic gabea,  
Ama maithagarria,  
Ama miragarria,  
Creatçailearen Ama,  
Salbatçailearen Ama,  
Biryina guciz çuhurra,  
Biryina ohoragarria,  
Biryina laudagarria,  
Biryina puchanta,  
Biryina amulxua,  
Biryina leyala,  
Yusticiaren miraila,  
Cuhurtciaren alkhia,  
Gure bozcarioaren ithurburua,  
Untci izpirituala,  
Untci ohoragarria,  
Debocionearen untci miresgarria,  
Arrosa misteriozcoa,  
Dabiten dorrea,  
Dorre distianta,  
Urhezco etchea,  
Alientciaco arkha,  
Cernuco athea,  
Goiceco içarra,  
Erien osagarria,  
Bekhatoreen ihes lekhua,  
Axecabetuen goçoa,

Olhoitz eguigu surelçat.

Guiristinoen laguntça,  
 Aingueruen Erreguina,  
 Patriarkhen Erreguina,  
 Profeten Erreguina,  
 Apostoluen Erreguina,  
 Martiren Erreguina,  
 Cofesoren Erreguina,  
 Biryinen Erreguina,  
 Saindu gucien Erreguina,  
 Erreguina notharic gabe contcebitua,  
 Yaincoaren bildoxa, ceinac khentcen baiti-  
 tutçu munduaren bekhatuac, barkha de-  
 çaguçu, Yauna.  
 Yaincoaren bildoxa, ceinac khentcen baiti-  
 tutçu munduaren bekhatuac, entçun gait-  
 çatçu, Yauna.  
 Yaincoaren bildoxa, ceinac khentcen baiti-  
 tutçu munduaren bekhatuac, urrical ga-  
 kizkitçu.  
 Yesu-Christo, adi gaitçatçu.  
 Yesu-Christo, entçun gaitçatçu.

---

## EGUNAREN

GUIRISTINOKI IRAGAITECO MOLDEA.

---

**A**TÇARRI çaren beçain laster, Yaincoari  
 bihotça alcha dioçocu, eguicū gurut-  
 cearen seinalea eta aipha çatçu, Yesu-

sen, Mariaren eta Yosephen icenac; erroçu çure buruari; *menturaz egun hau eternitateaz içanen duc sequitua; nola behar duc beraz pasatu egun hau.*

Beztitcean beguira çatçu modestiaric çorrotcenaren erreguelac, erraçü *Pater* eta *Ave Maria*, edo eguçü bertce cembait othoitz, eta eman çaitte debocionerekin çure goiceco othoitçaren eguiten.

Goiceco othoitçaren ondoan, edo ahal duçunean, eguçü oren erdi baten, eda bederen oren laurden baten meditacionea; gutiac dire egun guciez oren erdi bat baino guehiago dosteta funs-gabetan, eta ez-deuskerietan galtcen ez dutenac, eta doidoiaco fortuna baten ilhumbetan bici den presuna batec bere familiaren hazteco eguneco oren eta memento guciac emplegatu behar baditu, lanean hari delaric meditacione hori eguin deçake, lana bera eta ikhusten dituen gauça guciac Yaincoaren perfeccioneen eta mundo funs-gabetasunaren conxideratceco suyet edo motibotçat cerbitça daitezke.



Lanaren aitecinean çure lana Yaincoari offri dioçoçu Yesusec çure salbatceco yasan duen nekhearen bata-sunean; trabailatcean çure chede printcipala ez bedi içan diru irabaztea, bainan bai Yaincoari obeditcea, placer eguitea, eta çure bekhatuez penitencia eguiteco pena haren sofritcea; çure lanean Yaincoari maiz bihotça altcha dioçoçu, eguinez fedezco, esperantçazco, amodiozco, edo bertce holaco cembait acta, nihor ohart ez diteken maneran; çure lana ungui badoha, benedica çaçu laguntcen çaituena; gaizki badoha, errecibi çaçu Yaincoac çure pacientcia frogatceco nahi duen mortificacione hori; molde hortan eguiten ditutçun lanez merecimenduzco tresoric handienac ardiexico ditutçu; bere neke icerdiz bicia irabazten duen nekhaçale batec, bicitce commun eta arrunt baten exercicioez, ez du estaturo gorenetan causitcen direnec baino gutiago obratcen bere salbamendua; eta asco presuna içanen dire uste dugun baino gorago ceruan altchatuac, bere esta-

tuco eguin bide mendreenen bethetceco icatu duten leyaltasuna dela causa. Obra eder batçu dire, duda gabe, Elicetan egoitea, othoitçaren eguitea; bainan ordean othoitcean egoiteco çure etheco lanac usten baditutçu, çure othoitça ez çayo Yaincoari agradatcen; Izpiritu-Sainduac handizki laudatcen du iruten hari cen, eta bere etheco lan chehez occupatcen cen emazteki borthitz hura.

Yanean, edanean, loan eta çure libertimenduetan, ez duçu placera bilhatu behar placera gatic, bainan çure osasunaren conxerbatceco eta Yaincoaren cerbitçuan haren emplegatceco chedea içan behar duçu; artha içan çaçu bereciki compainia eta errecreacione onhestac, eta perilos ez direnac hautatceco, eta ez seculan colpatceco caritatea, garbitasuna, eta bertce berthuteac; çure sensuco presunekin errecreatu behar çare; bertce sensuco presunac ez ditutçu hantatu behar premiaz baicen, eta orduan ere mintçatu behar çaizcote ahal beçain modeski, seriuski eta laburki.

Ez deçaçula, ahal baduçu, egunic utz Meça saindua entçun gabe, eta ez baçaitçu posible meçan causitcea, meça-eskila aditcean bihotcez apheçari yunta çaitte, eta meça gogoz entçun çaçu, hartaco eguinez, nihor ohartu gabe, meça erreyalki entçutean eguiten ditutçun othoitcetarie cembait.

Egun guciez arrosarioa erranen duçu, çure Aingueru beguiraleari eta çure Patroin sainduari cembait othoitz eguiten dioçutelarie.

Mahainean yartçean eta mahainetic altchatcean, hartaco catichiman diren othoitçac eguinen ditutçu; *Angelus* egunean hiruretan, eta *Ave Maria* orena aditcean erraiten duçularie.

Cofesatu behar çare bederen ilhabette guciez, artetaco besta buruetan, era çure sor egunean; comunionearen husutasuna, edo bakhantasuna çure cofesorac erreguelatuco du.

Igandeac eta bestac santifica çatçu herrico meça nausian, bezperetan, predicu eta catichimetan aurkhitzen çarelarie, mundutarren bilkhuetarie ihes eguinez, debocionezco iracurtce

eta bertce obra onetan egun hura iragaten duçularic.

Eguna akhaba çaqu arraxeco othoitçaz, eguiten duçularic çure contcientiaren examina chehe bat, çure huxen eçagutceco, eta hetaz Yaincoari barkhamendu escatceco, gau hartan hil behar bazine beçala.

Bilhuz çaute modestiarekin, har çaqu ur benedicatua, etçan çaute çure arima Yaincoaren escuetan eçarri ondoan, eta lokhar çaute cembait penxamendu saindutan.

## EXERCICIO IZPIRITUALA,

*Cein on eta probetchos den Yaincoaren presentciaz, eta Yaincoaz maiz orhoitcea.*

**S**AN Ambrosioc dio moyan on eta soberano bat dela Yaincoaren presentciaz, eta Yaincoaz maiz orhoitcea, bekhatuari ihes eguiteco. San Thomasec dio nola guinduken ausartciaric aski deliberatuki Yaincoaren ofenxat-

ceco bere presentcian, baldin penxatcen baguindu beguira dagocula.

Eta eguiazki hala da, baldin Erreguen presentciac inspiratcen badarocu errespetu handi bat hekien presunentcat, cer ez leraucu eguin behar Yaincoaren presentciac, baldin eguiazki fedeaz ongui hartuac, eta borthiztuac baguine?

San Basilioc dio oraino, Yaincoaren presentcia moyen exelent bat dela tentacionean gure beguiratceco. San Augustinec erraiten cunen : Orhoit çaitte Yaincoa beguira dagotçula capitain bat bere soldaduei guduan hari direnean dagoten beçala ; escu batean bere graciac dituela çure laguntceco eta socorritceco, noiz eta ere bere fagoreac galdeguinen baitiozcatçu ; eta bertce escuan khoroac dituela çure errecompensatceco haren exayen gainean eramaiten ditutçun bitorioez.

Ez da eguiazki deus ere curaya guehiago emaiten duenic, eta nihor guehiago borthizten eta animatcen duenic, presentcia haren orhoitçapenac baino.

Hala erraiten cioten Yesu-Christoc bere Apostoluei, cerurat igan baino lehen : Orhoit çaitetzte çuekin naicela bethi munduaren fineraino. Hitz horiec halaco maneraz animaturic eta borthizturic, San Antonioc cioen bere desertuan : Yaincoa enekin denaz guefoz, ez naiz deusen ere beldur mundu huntan.

Saindu horrec berac dio oraino debruaren eta bicioen garhaitceco moyenic puchantena dela Yaincoaren presentcia; eta barneco placera eta bozcarioa, eta parabisua causi daitekela lekhu gucietan, baldin guiçonaren bihotça Yaincoaren bihotcean bada.

Yaincoaren presentciaren orhoitçapen horrec miraculuzki handitcen du gure fedea, borthizten du gure esperantça, eta sustatcen amodioz gure bihotça : eta halaber gure amodioa Yaincoarentçat emendatceco, moyen on eta soberano bat da maiz Yaincoari beguiratcea; ceren guc hari beguiratcen diogun arabera, hanc ere guri beguiratcen baitarocu, eta haren beguiratce heyec ekhartcen baitarocute

gure bihotcetarat hambat Yaincoaren amodioaren su inhar, ceinec handitcen baitute gue Yaincoarentçat dugun amodioaren sua.

Finean deusec ere ez darocu hobe-kiago erraiten edo marcatcen orhoitçapen hori, egun batez Abrahami Yaincoac berac erran ciotçan hitcec baino : Ibil hadi ene presentcian, eta perfet içanen haiz.

Ikhusi duçu, Guiristinoa, nola dioten saindu horiec, eta bai Yaincoac berac ere, cein probetchu handitacoa den Yaincoaren presentcia, eta Yaincoaz maiz orhoitcea. Aplica çakizco çu ere artha handi batekin debocione saindu horri ; eta ez badakiçu nola eguin behar duçun, irakhaxico darotçute San Augustinec, San Bernardec, Santa Theresac, eta bertce sainduec. Seguidaco plametan, causituco ditutçu saindu hec munduan cirenean cituzten penxamendu sainduac, eta Yaincoa ganaco maizco bihotz altchateac.

Penxamendu sainduac barneco suspira batçu dire, eta Yaincoa ganatco bihotçaren gambiantça bat, ceinac

eguin ahal baiditezke mement batez ; errechac dire, eta lekhu gucietan eguin ditezkenac, nahiz yatean, nahiz bidean çohacela, compainietan eta lekhu gucietan, ceren mintçatu gabe eguin ahal baiditezke, gogoz eta Yaincoaren ganatco bihotz altchatce batez.

Eman çakisco cin-cinez, Guiristinoa, Yaincoaz maiz orhoitceco debocione saindu horri, hoin errecha eta probetchosa denaz gueroz.

---

## PENXAMENDU SAINDUAC.

---

*Contricioneaz.*

1. **E**NE Yaincoa, huna ni non naicen lurraz ere sofritua içaitea merecitcen ez dudana.

2. Helas ! certaco nic çu utci çaitut, biciaren ithurria, munduco putçu licunetaco ur usainduetaric edateco ?

3. Ceruaren contra bekhatu eguin dut, ene Aita maitea ; eta ez dut merci çure umearen icena ; bihur araz naçaçu nere eguinbidetarat.



4. Orhoit çайте, Yauna, eguin ditut-  
çun misericordiez ; eta ahantz bekiz-  
kitçu ene gaztetasuneco bekhatuac ,  
eta ene iñorantcia guciac.

*Amodioaz.*

1. **B**ADAKIÇU, Yauna, maite çaitudala.

2. Maite çaitut, Yauna, bainan gue-  
hiago maithatu nahi cintuzket.

3. Caritate eternal batez maithatu  
naçu , eta urricalduric çure-ganat  
tiratu naçu.

4. Bethi erretcen hari çaren sua,  
eta behinere iraunguitcen etçarena,  
susta naçaçu çuretçat, ene baithan  
deus ere causi ez dadin çu maithateen  
ez çaituenic.

5. Eguıdaçu gracia, Yauna, maitha  
çaitçadan , eta beira detçadan çure  
manamenduac.

6. Nahiago duthilçu maithateen çai-  
tudalaric, eçen ez bici çu ofenxatcen  
çaitudala.

*Eçagutçaz.*

1. **N**ONDIC heldu othe da, Yauna, nic  
çure baithan hambat gracia causitcea ?

2. O! çoin exelenta den çure beldur-  
tasunean bici diren arimentçat erre-  
salbatu ditutçuneztitasunen bilduma!

3. Yauna, çaude bethi enekin, il-  
humbetarat eror ez nadin.

*Yaincozco Desirac.*

1. **A**LA baita lurra mespreçatcecoa,  
ceruari beguiratcen diodanean!

2. Gauça guciac gogotic galdu nahi  
ditut, ene Yaincoa, çure irabazteco.

3. Ala baita loria handia, Yauna,  
çure cerbitçatcea!

4. Naicen choilki çurea, çu ere enea  
içan çaitcentçat?

5. Gauça guciac garratz causi det-  
çadan, ene Yaincoa, eta deus ere ez  
eztiric çu baicie.

Legue çaharrean usantça cen Yain-  
coari escaintceco arbolen lehembici-  
co-fruituac, eta animalen lehembicico  
umeac, eçagutceco Yaincoa dela gure  
lehembicico principioa eta gauça gu-  
cien fina. Legue berrian, ceinetan  
Yaincoa adoratcen baitugu izpirituz,  
eguiaz conxecratu behar diotçagu gu-

re egun orozco lehembicico penxamenduac eta lehembicico accionea; eçagutceco gure biciac haren ganic ditugunaz gueroz, ez ditugula haren cerbitçuan baicen emplegatu behar. San Climakec dio, Guiristinoac iratçarri direnecotz, debrua bethi han causitcen dela, Aingueruari disputatceco hekien bihotcetaco primeciac. Hortaracotz çure izpiritua nihorat ere hedatu gabe, atçartcearekin batean alcha çaçü çure bihotça Yaincoaren-ganat, cembait penxamendu sainduz, seguidaco horiez, edo bertee cembeit holacoz.

**E**NE Yaincoa, ene Yaincoa, çure ganat atçartcen naiz arguiaren phondutic.

Ene bihotça Yaincoarena da, eta Yaincoarentçat da.

Ene Yaincoa, eguidaçu misericordia, çu çare ene gucia.

Ene Yaincoa, ez dut nahi deusic çu baicic.

Yauna, cer placer duçu egun eguin deçadan çuretçat?

Ene Yaincoa, beguira naçacu egun bekhatu eguitetic.

Ala baita ezti, ene Yaincoa, çure maithatcea, eta çu leialki cerbitçatcea!

*Ohetic ilkhâtcean, erraçû ;*

Yaikitcen naiz, ene Yauna, çure cerbitçu sainduan egunaren empletçera, çure graciarekin batean.

*Ur benedicatuaz ceinatcen çarela erraçû :*

Ene Yaincoa, garbi çacu ene arima çure graciaren uraz, eta eguinen da elhurra baino churiago.

Oracioneco demboraric hoberena gaua eta goiça dire. Profeta saindua arguiaren phondutic adreçatcen citçayon Yaincoari, eta guiristinoac ere hartarat exortatu ditu, erraiten diotela : *Yaiki hadi argui hurrantcean, eta çabalçac hire bihotça, hala nola ura, Yaincoaren presentcian.* Goicean noiz eta ere yausten baita ihintça loreen gainerat, orduan Izpiritu-Saindua yausten da oracionean daudecen guçonen bihotçetarat ; orduan hekien gainerat

ichurteen du uri ezti hura, eta graciën ihintça; oracionea arimaren hazcurria da. Dabitec dio hura dela haren oguia, eta yaterat ahanzten citçayonean, bi-hotça idortua causitcen çuela. Ohetic lekhora erdi beztituric, ahalic lasterrena, eguiçu çure goiceco othoitça : yar çaitë Yaincoaren presentcian, eta conxidera çaçü Yaincoa argui handiz ingurutua, ceinen erdian eguiten baitu bere egoitça, Yondoni Pauloc dioen arabera; eta Mayestate terrible haren aitcinean, ceinac Aingueruac ikharatcen baititu, belhaunico yarriric, adora çaçü erraten duçula :

*Adoracionezco acta.*

**A**DORATCEN çaitut, Yauna, çure presentcian gucia humiliatua, çure handitasunac inspiratcen darozkidan er-respetuzco sendimenduz betheric. Eçagutcen dut çure içaitëaren soberanotasuna, eta creatura guciez disposatceco duçun podorea, ceren çu baitçare hekien printcípioa eta fina. Cerua eta lurra çureac dire; hetan causitcen di-

tut gauça guciac, çure escuco obrac dire. O ene Yaincoa! çu çare bakharra horren obra handiac eguin ahal detçakena; ez da bertce Yaincoarie çu baicen, ceina bici baitçare eta manatcen baituçu mende gucietan.

*Eskerren bihurtceco acta.*

**C**ER esker bihurtuco darotçut, ene Yainco Yauna, çure ganic errecibititududan ontasun guciez? eta cer eçagutçazco sendimendu causi ahal diteke çure fagore handiei ihardesteco gai denic? Benedicatuco çaitut, ene Yaincoa, bici naicen egun gucietan, hala nola eguiten baitçaitut oren huntan; cantatuco ditut çure misericordiac eternitate gucian, yuntatuco dut ene boça çure laudatcen munduan hari diren creatura gucienekin batean, egun batez ceruan çure laudatcen finic gabe hari diren dohaxuekin yuntatceco çoriona dukedan artean. Halabiz.

*Contricionezco acta.*

**E**NE Yaincoa, barkhamendu eske na-

gotçu humilki ene bekhatu guciez, damu, dolore eta urriki handirekin, ceren hain ona eta infinituki maithagarria çarelaric ofenxatu çaitudan. Hartcen dut deliberacione fermu bat ez guehiago bekhatu eguiteco, çure graciarekin batean; bai, eta halaber hartcen dut borondatea cofesione on baten eguiteco, eta emanen çaitan penitentiaren complitceco. Halabiz.

*Ofrendazco acta.*

**Ç**UCEN da, Yauna, çuretçat bici nadin çu enetçat hil çarenaz gueroz, çure gloriarentçat trabaila nadin, çu bethi ene salbamenduarentçat eguin çarenaz gueroz. Errecibi çacu, othoi, Yauna, egun nic eguiten darotçudan sacrificioa ene sentimenduez, ene accionez, eta ene içaite guciaz; chede borthitz batekin ez deus ere eguiteco çure manamenduen eta çure plazeraren arabera baicen. Halabiz.

*Galdeen eguiteco acta.*

**H**AIN flacoa naiz, Yauna, non ecin

aguin baiteçaket berthutean fermu-  
tasunic, çure sustengutic, eta çure  
graciaren indarretic ethorrico çaitanic  
baicic : haren galdez nagotçu beraz,  
ene Yaincoa, çure Seme Yesusec enet-  
çat ichuri duen odolpreciatuaren  
mercemenduez, Biryina Sainduaren  
arartecotasunaz, eta ene Aingueru Be-  
guirailearenaz, ene Patroin dohaxua-  
renaz, eta çure Saindu eta Sainda gu-  
cienez. Heda çaçü çure escu puchan-  
ta ene gainerat, ni ene exayetarie  
beguiratceco eta peril gaichto gucieta-  
ric beguiratceco. Çato, Yauna, ene ac-  
cione gucien benedicatcerat, eta niri  
ceruco bide seguraren iracasterat.  
Halabiz.

Seguida huntan, eguiçu guero  
çaitçun debocionea, dela meditacio-  
nea, edo *Kyrie eleisonac*, edo bertce  
cerbeit, demborac edo borondateac  
galdeguiten derautçutena.

Goiceco chedea asti guti duten pre-  
sumentçat, belhaunicatu eta ceinatcen  
çarela erraçü :

**T**RINITATE Saindua, Aita, Semea, eta



Izpiritu-Saindua, sinhesten dut hirur presunetan eguiazco Yainco bat çarela.

Adoratcen eta maithatcen çaitut, ene Yaincoa, nere bihotz guciatz, eta çure baithan emaiten ditut ene esperantça eta fidanteia guciac.

Eskerrac bihurtcen darozkitçut egundeino eguin darozkidatçun ontasun, gracia eta fagore guciez, eta bereciki gau huntacoez.

Barkhamendu eske nagotçu, ene Yaincoa, egundeino eguin ditudan bekhatu guciez, damu, dolore eta urriki hainitcekin, ceren guciiz ona çarelaric ofenxatu çaitudan. Hartcen dut deliberacione fermu bat ez guehiago bekhatuic eguiteco, çure graciarekin batean; eta halaber hartcen dut borondatea cofesione on baten eguiteco, eta emanen çaitan penitenteiaren complitceco.

Ene Yaincoa, escaintcen darozkitçut egungo eguneco ene penxamendu, hitz eta obra guciac: aintcinçatçu çure graciaez eta çure benediccionez, ez daitecentçat içan guciac çure loriaren

ohoreco, eta ene arimaren salbamen-  
duco baicen.

Biryina Saindua, Yaincoaren Ama,  
gomendatcen natçaitçu; othoi, çure  
proteccione sainduaren azpian har  
naçaçu. Ene Aingueru Beguiraila,  
eta çu, ene Patroina, parabisuco Sain-  
du eta Sainda guciec, nitaz othoitz  
eguiçue.

*Bezlitcean eguiteco Othoitça.*

**Y**AUNA, berreguin çaçü ene arima gra-  
cia eta berthute suerte guciez, bethi  
eder causi deçaçuntçat, eta beguira  
naçaçu herrauxetarat bihurtu behar  
duen gorphutz huni, çure begui mo-  
destac ofenxatuco dituen banitateric  
eta urguilkeriaric emaitetic.

*Lan aitcinean eguiteco Othoitça.*

**E**NE Nausi maitea, dembora da tra-  
bailatceco; othoi, ez neçaçula bakhar-  
ric utz nere penen artean, ez nau pe-  
nac ez lanac icitcen çure-ganic apar-  
tatcen ez nauyeno, ene beguiac eta  
ene penxamendua çure presentcian eta

çure bihotcean amarratuac atchikitcen ditutçuno.

Etchetic ilkhitecan ceina çaite, bai eta çure accione gucien hastean ere. Caselu deitzen cena hainitz içatu cen erreportchatua bere Aingueru Beguirailleaz, ceren etcen ceinatu etchetic ilkhitecan. Ceinatcea guiristinoen usantça çahar bat da eta probetchosa.

Lehembicicoric, Gurutcearen seinale horrec casatcen ditu debruac ceren aborritcen baitute Gurutcea, orhoitcen direlarie Gurutceaz bentçutuac içatu direla.

On da halaber ceinatcea gorputçaren eta arimaren hirriscu gucietan, bai eta eguiterat çoacen obraren ungui eguiteco ere.

*Etchetic ilkhitecan eguiteco Othoitça.*

**E**NE Yainçoa, nola mundua ene salbamenduaren exayez inguratua baita, gaitz da peril handi horien artean espaca nadin ariman edo gorputcecan çaurthu gabe, baldin çutaz lagundua ez banaiz. O bidari leiala eta segura! bida naçaçu, eta idec çatçu ene beguiac, çure manamenduen bidean ibil nadintçat, nihorat errebelatu gabe.

Eliçan sartcen çarenean, athetic has çaite

fedearen seinalcen emaiten, custodia den aldarerat beguiratcen duçula, errespetuzco erreberentzia modest bat eguiten duçularic. Yar lekhuratcen çarenean, eguiçu gauça bera, belhaunicatu eta hurua beheititcen duçula, erraçu çure bekhatuen dolore handi batekin :

Ene Yaincoa, aurthikitcen naiz Magdalena beçala, çure misericordiaren oinetarat, nere bekhatuez dudan damu, dolore eta urriki handienarekin, deliberatua lehenago hiltcerat bihotz osoz, ecen ez çure ofenxatcerat : indaçu çure benediccione saindua, eta secular çu ez ofenxatceco gracia.

*Fedezco acta.*

**S**INHESTEN dut, ene Yaincoa, çure Mayestate infinitua hemen dela present aldareco Sacramendu Sainduan; hiru presunetan eguiazco Yaincoa bere handitasun guciarekin, Serafinec ceruan ikhusten çaituzten, maitatcen eta adoratcen çaituzten estatu berean. Sinhesten dut sartcen çarela ene içatearen sustantcia gucian, eta çu guehiago çarela ene baithan, ecen ez neroni. Ez çaitut ikhusten ez eta hunkit-

cen, ceren ez baita yustu aguer çakizcoten ene izpirituco begui flacoei ; bainan sinhesten dut ikhusten ditudan gauça guciac baino segurkiago : prest naiz, eguia hunen sustenguan, ene biciaren emaiteco.

*Adoracionezco acta.*

**C**ER çare çu, ene Yaincoa, eta cer naiz ni ! Handitasun adoragarria, ceinaren aitecinean creatura ditezken guciac eta mundu gucia ez baita deus, çu ceinac ceruco izpirituei aguertcen çaitzela, bethecten baiditutçu çure loriaz, çure beguiratce choilaz. Helas ! cer naiz ni çure presentcian, creatura bat gucia corrupcionez bethea baicen ? Hala ere nahi duçu aguer nadin. Huna non naicen beraz, Yauna, humiltasunezco eta adoracionezco izpirituarekin : bainan nola ez bainaiz nere baithan deus ere, eta indigne bainaiz çure adoratceco, yuntatcen naiz ere bihotz guciatz Biryina Sainduarekin, eta ceruco dohaxu guciekin, heyekin batean çuri ene adoracione eta errespetu humilen bihurtceco.

## ARRAXECO EXAMINA.

**O** YAINCO handia! ceinac nahi ičan baituçu, çucen den beçala, egundeinotic gucien gainean adoratua ičan; huna non presentatcen naicen arrax huntan belhaunico lurrean yarririe çure aitcinean, çure Yaincotasunari çor diodan ohorearen bihurtceco eta çuri gaurco gau huntaco errepausuaren ofreitceco. Adoratcen çaitut beraz, ene Yaincoa, ene Yaun soberano beçala; maitatcen çaitut nere bihotz, arima, eta indar guciez : yuntatcen ditut nere bihotceco afeccione eta ahal guciac çure ontasun, infinituari creatura pobre batec eguin ahal deçaken amodio guciarekin.

Eskerrac darozkitçut, ene Yainco ona, çure ontasun handitic, hala izpiritualean, nola temporalean, egundeino errecibitu, oren oroz errecibitcen, eta eternitate gucian errecibituco ditudan gracia, misericordia, eta ontasun guciez. Eskerrac deraitçut ceren crea-

tu nauçun ondoan conxerbatu bainauçu, bai eta Satanen gatheetaric, çure odolpreciatuaz atheratu. Laudo-rioac darozkitçut, ceren guiristino eguin eta Elica sainduan eman nauçun ondoan, sacramenduen bidez saindu eguiten bainauçu. Eskerrac darozkitçut oraino, ceren çure loria sainduco creatu bainauçu, bai eta hainitz gaitz eta çarbide gaichtotarie egungo egun huntan beguiratu, eta bereciki bekhatu mortaletarie.

**O**ENE Yaincoa! oren huntaraino biciric conxerbatu nauçunaz gueroz, nere bekhatuen eçagutceco eta hetaz correitceco; eguidaçu gracia detçadan guciac ungui eçagut, eta guero hetaz penitencia eguiteco.

*Yar çaite aphur bat bekhatuez orhoitcen,  
eta guero erraçu :*

**E**NE Yaincoa, barkhamendu eske nagotçu humilki ene bekhatu guciez; damu dut, eta ürriki çure amorea gatic, ceren guciz ona çarelaric ofen-

xatu çaitudan, eta hartcen dut borondate fermu bat ez guehiago bekhatu-ric eguiteco, çure graciarekin batean. Halaber hartcen dut borondatea nere bekhatu guciez osoki cofesatceco, eta emanen çaitan penitentiaren complitceco.

**O** ENE Yainco handia! escaintcen darotçut gaurco gau huntaco pausua, çain neçaçu eta beguira neçaçu bekhatutic, eta bertce gaitzbideetan erortcetic, eta bereciki heriotce supitutic.

**B**IRYINA Saindua, Yaincoaren Ama, ene Aingueru beguirailea, san Yosepe loriosa, eta çu ene Patroin saindua, adora eta othoitz çaçue Yaincoa, gaurco gau huntan enetçat; eta ardiex dieçadaçue gracia ungui bicitceco, eta ungui hiltceco.

Erraçu guero *Andredena Mariaren Lethaniac*, eta guero *De Profundis*, purgatorioco arimentçat, etc.



*Gurutce Sainduaren aitcinean eguiteco*  
 OTHOITÇA.

**E**NE Yesus maitea, bihotz doloratu bategin adoraten ditut humilki çure çauri sacratuac : çure pasione sainduan ichuri cinduen odol preciatutic chorta batez, hunki dietçakidatçu ene arima, ene bihotça, eta ene gorphutça munduaren, debruaren, eta haraguiaren tentacioneen contra borthizteco, hekien bentçutceco, çure gurutce sainduaren maitateco, eta seculacotz bekhatuaren aborriteco.

---

## MEÇA SAINDUAREN

ENTÇUTECO

## DEBOCIONEA.

---

**G**UIRISTINO guciec behar dute içan artha handi bat egun guciez Meça Sainduaren entçuteco; egun batez choilki hux eguita, uste duçun baino guehiago galttea da. Dembora harrec ez ditu çure eguitecoac guibelatnco,

bainan hai aintcinatuco. Aldareco sacrificioa denaz gueroz Gurutceco sacrificioaren iduripena, eta nola Yesu-Christoc ez baitu ordenatu bere pasionearen orhoitça pena guisonen artean conxerbatceco baicic : hortic clarki agueri da, ecin nihor hobeki ocupa ditekela Meça Sainduaren entçutean, eta ecin Salbatçaileari guehiago agradatcen çayon debocioneric eguin ahal deçakela, ez eta ere haren intentcionei guehiago conformatcen çayoenic, haren heriotcearen conxideracionea baino. Meça da lehembicico othoitça, eta othoitz gucien artean den hoberena. Penitent gucien garrastasunec, Martyr guciec sofritu dituzten tormenta eta suplicio guciec, ecin gure bekhatuen çorric chumeena paga deçakete, Gurutceco sacrificioa gabe, ceinaren merecimenduac aplicatcen baitçaizkigu Meçaco sacrificioaz. Entçun behar da heraz Meça, ordenarioan bertce othoitcetari icaiten den baino beldur saindu eta debocione guehiagorekin. Apheçac hasten du Meça bere bekhatuen cofesionetic, eta çuc ere ceinatu, eta erraçü *Confiteor* escuaraz edo latinez, *Arraxeco Othoitcean* beçala plam. 8.

Eta guero Meçaco debocione hori eguiçu atentcione handirekin, cer erraiten duçun ungui conxideratcen duçula, eta hitz hunkigarri horietan tricatcen çarela, bethi aintcina yoan gabe.

Ebanyeliarainocoan conxidera çaçü Yesu-

Christo Olibetaco baratcean ahuspez etçana, bere Aitari othoitcean dagocola haren heriotcea içan dadin çure bekhatuen barkhamendutan; odolez icert arterainoco penetanden arren, besarcatcen du calitça guiçonen salbamenduarentçat. Conxideracione horietan sartcen çarela, atentçione eta debocione handi batekin, erraçû :

**Y**ESUS maitagarria, enetçat duçun amodioa-gatic çure bihotceco bakea, çure pasionearen bichtan, trublatcerat utci duçuna, eman dietçadatçu accione hartaz merecitu ditutçun gracia, ene pasioneen gainean nausi nandintçat eta çure borondatearen eguitea bilha deçadantçat. Çure arima dohaxua goibeldu da ene bekhatuen-gatic; indaçû compuncçionearen eta eguiazco penitentiaren izpiritua, ene bicitceco egun gucietan ene bekhatuen gainean nigar eguin deçadantçat, eta hauc ene nigarren urez deseguin deçadantçat. Çuc Olibetaco baratcean pairatu ditutçun tristeciec eta desgustuec, cthoi, sorraraz beçate ene baithan desgustu eta hinguintça handi bat munduco pla-

cer banoentzat, eta çutaz campoan, ez beiteçat causi tristeciaric eta unhaguneric baicen. Aplica dietçakidatçu çure baratceco hagoniaco icialduraren eta odolezco icerdiaren merecimen-duac, çure loriacotz eta ene arimaren exayen contra naicen flakecian ene borthizteco.

**M**ANAMENDU hunen contra bekhatu eguiten dute, ahalkez, edo bertcela cofesioan bekhatuac estaltcen eta estatu hartan comuniatcen dutenec ; accionez, solhas gaichtoez, edo sobraniazcoez, Elicac, lur sainduac, edo bertce cerbait gauça Yaincoari conxeratua denic profanateen, edo mespreçatcen dutenec ; sorguin, azti, amexentan, edo asmatçailentan sinheste dute nec ; çorionezcoac edo çorigaitcezeoac



direlaco egunetan fede emaiten dutenec; Elicac aprobateen ez dituen accione, hitz, edo obserbantça suerte batuetan fidantcia ecartcen dutenec; eta oguia, ura, edo bertce cer nahi den Elicac benedicatua denic usaya profanoetaco cerbitçarazten duten guciec. Fedecac irakhasten darozkigun eguie-taric cembait sinhexi nahi ez dutenec, edo hetaz bere nahitara dudatcen dutenec. Bere salbamenduaren esperantça galteen, edo Yaincoaren misericordian sobra phausatuz combertitcea egunetic egunera luçatcen dutenec; eta bere indarretan fidatuz, edo Yaincoaren laguntçan sobra khondatuz, bekhatuzco occasionetan yartcen direnec. Yaincoaz eta bere salbameduaz orhoitu gabe dembora hainitz pasatcen dutenec. Fedea, caritatea, castitatea, edo bertce cembaitberthute colpatcen duten presuna libertinac erreprenitcen ez dituztenec. Munduaren ahalkez, mundutarren trufen bel-durrez berthutezco obretaric guibelateen direnec. Yaincoaren probidentciáz murmuratcen, edo errencuratcen

direnee. Botuac arinki, edo complitceco chederic gabe eguiten, eta obligatuac direlaric atchikitcen ez dituztenec. Yan aitecineco, eta yan ondoco, goiceco eta arraxeco othoitçac, eta penitenciaic neglienciaz uzten, edo lehiarekin eta atentcioneric gabe eguiten dituzten guciec. Penitencia arinen içateco, edo bicitceco molde bera seguitceco esperantçan Cofesor largoenac bilhatcen dituztenec.

*Bigarren Manamenduz.*

**M**ANAMENDU hunen contra bekhatu eguiten dute... Arnegu-eguileec; yuramentu gueçurraren gainean, eta eguiaren gainean, premiariç gabe, eguiten duten guciec. Blasfemia, edo inyuriozco hitz bat Yaincoaren, sainduen, edo erreligionearen contra erraten dutenec. Imprecacioneac eguiten dituztenec : erran nahi da, hasarreturic, edo mihiz choilki erraten dutenec, bere buruei edo bertcei desiratcen diotela, leher eguitea, debruac eramatea, ozpinac bolatcea, edo bertce cembait nahicabe gaichtotan heltcea.

*Hirurgarren Manamendua.*

**M**ANAMENDU hunen contra bekhatu eguiten dute... Igandetan eta bestetan, premiari edo Elicaren permisionerik gabe, lanean haritcen direnec, eta berteeac harrarazten dituztenec; egun saindu hautan meça osoa, edo pharte bat bere faltaz hux eguiten dutenec, eta barriadura borondatezcoekin meça entçuten dutenec; Elicaco officioetaco demboran ostatuan edo plaçan yaten, edaten, edo yocoan haritcen direnec; meça-nausian, bezperetan, predicuetan eta catichiman causitcen ez direnec; edo hautan causitcen direriaric arren, yocoan, dantçan, ostatuan, edo bertee cembait dosteta funsgabetan gaineraco dembora emplegatcen dutenec.

*Laugarren Manamendua.*

**M**ANAMENDU hunen contra bekhatu eguiten dute... Burhasoac trufatcen edo mezpreçatcen dituztenec; burhasoei çorrozki behatcen, edo ihardesten diotenec; hekien yotcera ausar-

tatcen direnec, edo yotceaz mehat-  
 chatcen dituztenec; burhasoac deso-  
 beditcen, edo gogo gaichtoz, eta er-  
 rencurac eguinez baicen obeditcen ez  
 dituztenec; bere gabeetan eta çahart-  
 cean lagundu gabe uzten dituztenec;  
 edo hei ematen diotenean laguntça  
 iroi eguiten dioteneac; burhasoac hil  
 ondoan, hekien chedeac complitcen  
 ez dituztenec, eta hekientçat otloitçac  
 eguin-arazten ez dituzten guciec;  
 osaba, içaba, eta bertce ahaide, eta  
 aiticindariac bere adinaren eta autori-  
 tatearen arabera ohoratcen ez dituzte-  
 nec. Nausiac eta etcheeo-andreac obe-  
 ditcen eta errespetatcen ez dituzten  
 sehiec; etcheeo ontasunac, bereac  
 balituzte beçala, conserbatcen ez di-  
 tuztenec; eta etcheeo berriac campoan  
 condateen eta condarazten dituztenec.  
 Bere umeac hazten, beztiteen, alchat-  
 cen, Eliçaco officioetarat egortcen, hu-  
 xetan çucenteen, bekhatuzco occasione-  
 tarie beguiratcen ez dituzten, eta exem-  
 plu gaichtoez, edo atçartasun escasez,  
 Yaincoaren ofenxatceco bidea bere  
 umei emaiten dioten burhasoec.

*Bortzgarren Manamendiaz, ceinetan cerratcen baiditut imbidia, colera eta abaricioa.*

**M**ANAMENDU hunen contra bekhatu eguiten dute... Conxeilu, edo exemplu gaichtoz Yaincoaren ofenxatceco occasionea emaiten dutenec, eta bereciki caritatearen, castitatearen edo bertee cembait berthuteren contra mintçateen direnec. Itchura deshonestac yenden bistarat aguertcen dituztenec. Chede gaichtoric ez içan arren, bilhuzki, modestiaric gabe, edo erguelki beztituac, eta cofiatuac ibiltzen diren, edo aire mundutar, eta arraitasun sobrarekin guçonkien aitcieran aguertcen diren emaztekiec. Lagunac eguin ez duen gaizkia erraten luteneec; edo eguin duena eta gordearena eçagutarazten dutenec, lagunaren contraco cantac cantatcen, edo cantarazten dituztenec, eta maiz haucien gucien aditçaileec. Proximoaren gaitçaz axeguin dutenec, hari gaitçalesirateen, hitz gaichtoac erraten, colere emaiten edo emanarazten diotenec;

haren onaz yelosten, edo imbidiaz tristatcen direnec; hari aspertu nahiz hauciemaiten, edo chede berean antho-lamendua errefusatcen dutenec; bere exayari gaitcic nahi ez diotela erraten dutelari, hura mintçatcen eta salutac-en ez dutenec. Coleran edo bicitasunean emaiten direnec. Ontasun biltcea gatic, bere buruei gauça necesarioac ere errefusatcen diotçatenec, eta amoina eguin ahal deçaketelari eguiten ez dutenec. Bere sabelean ekhartcen duten fruituaren hil-arazteco bidea, edo moyanac hartcen dituzten, edo haren conserbatcecoac negliatcen dituzten emaztekiec. Hiltcea desiratcen, eta hiltceco, edo osasunari bide gabe eguiteco hirriscutan emaiten direnec.

*Sei eta bederatçigarren Manamenduez.*

**M**ANAMENDU haukien contra bekhatu eguiten dute... Gogoeta, edo desircunde liçunac bere nahitara gogoan atchikitcen dituztenec : hitz liçunac erraten, canta arinac cantatcen, edo

aditceaz axeguin hartcen dutenec. Be-  
 natce, ukitce edo bertce cembait ac-  
 cione deshonest bere gainean, edo  
 bertce norbaiten gainean, eguiten  
 edo errecibitcen dutenec, emaztekia  
 emaztekiarekin edo guiconkia guicon-  
 ciarekin icanic ere. Adiskidetasun so-  
 bra libroac, libertinen compainiac,  
 lantçac, eta urrundanic ere castitatea-  
 ren colpatcera ekhar detçaketen li-  
 bertimenduac hantatcen dituztenec. It-  
 chura edo figura, eta bertce cer nahi-  
 len gauça deshonestei axeguinekin be-  
 natcen diotenec. Amodioaz mintço di-  
 ren liburuac iracurtcen dituztenec.  
 Modestia gutirekin beztitcen direnec.  
 Elkharren arteco deshonestkeriez sain-  
 lutasuna desohoratcen duten senhar  
 emaztec.

*Çazpi eta hamargarren Manamenduez.*

**M**ANAMENDU haukien contra bekhatu  
 eguiten dute.... Bertceren ontasuna  
 bortchaz edo fineciaz hartcen dutenec,  
 eta inyustuki icatea desiratcen dute-  
 nec. Ichilca burhasoen ontasuna

saltcen edo emaiten dutenec. Sal-cros-  
 sian laguna enganatcen dutenec.  
 Hauci makhur edo çucen-contracoez  
 bertcerenaz yabetcen direnec, eta  
 hartaco paper falxoac eguiten edo  
 eguiazcoac gordetcen dituztenec. Cil-  
 hegui ez diren prestamuac eguiten  
 dituztenec, eta çucen contra intresa  
 tiratcen dutenec. Dakitelarie ez direla  
 pagatceco estatuanicanen, prestamuac  
 hartcen dituztenec. Gauça altchatcera  
 emanac ez bihurtcea; sehiei eta lan-  
 guilei soldata eta yornala emaita lu-  
 çatcen dutenec. Yoco debecatuetan  
 haritcen direnec; yocoan malecia  
 eguiten, eta yocoan bere edo partida-  
 ren ahalaz guehiago eçartcen dute-  
 nec. Gauça causituac beretcen dituz-  
 tenec; edo norenac diren yakiteco  
 eguinbidetan ematen ez direnec. Dem-  
 bora galtcen, edo lanean bere indarra  
 estaltcen duten sehiec eta languileec.  
 Manuz, conseiluz lagunduz, consen-  
 timenduz, ohoin-estalki baliatuz, edo  
 bertcela ebascoetan edo bidegabeetan  
 cuxatcen edo pharte hartcen dute-  
 nec. Proximoaren gauçac deseguiten,



hausten edo urratcen dituztenec; eta haren bidegabeac, hartaco botherea edo cargua dutelarie, guibelatcen ez dituztenec.

*Çortcigarren Manamenduaz.*

**M**ANAMENDU hunen contra bekhatu eguiten dute... Gueçurra erraten dutenec. Lagunez funxic aski gabe yuyatcen, edo suspitchac arinki eguiten dituztenec. Yuyearen aiticinean eguiaren contra mintçatcen direnec, edo dakiten eguia erraten ez dutenec. Secretuan yakin duten gauça salhatcen dutenec.

Azkeneco bi manamenduae cerra-tuac dire seigarren eta çazpigarren manamenduetan.

*Eliça Ama Sainduaren Manamenduez.*

**Y**AINCOAREN manamenduetan cerra-uez bertce alde, manamendu haukien contra bekhatu eguiten dute... Cofesatu gabe urthe osoa uzten dutenec. Arraçoinaren adineraz gueroz Bazcoetan bere eliçan communiatu gabe

egoten direnec. Sori ez den egunetan haragui edo urin eguiten dutenec. Hogoï eta bat urthe complituz gueroz Elicac manatu barurac hausten dituztenec, edo colacionean sopra yaten dutenec, eta colacioneco yanharie-tan Diocesaco usaya seguitcen ez dutenec. Elican iracurtcen diren escumicuentçac errespetic ez dutenec.

*Bekhatu Capitalez.*

**U**RGUILUZ hobendun dire... Bere buruac sopra estimatcen, eta laguna mespreçatcen dutenac. Gormandiçaz hobendun dire... Sobra yaten edo edaten dutenac, eta yanhariac sopra gustucoac, edo garastieguiac bilhatcen dituztenac. Alferkeriaz hobendun dire... Laneco nagui direnac; ohean sopra egoten direnac, eta yocoan edo dosteta alferretan dembora emplegatcen dutenac.

Bertce laur bekhatu capitalac eçarri dire bortz eta seigarren manamenduetan.

Norc bere estatuco eta officioco

eguinbideac arthoski examinatu behar ditu ; hetan eguiten diren huxac maiz ondore tristeenez seguituac dire.

### CONTRICIONERA

Preparatceco moldea, hainitzartçain kharxuc eta missionario kharrez bethec probetchoski emplegatu dutena.

*Artharekin examinatu ondoan Yaincoaren eta Elicaren manamenduen gainean, bekhatu capitaletan, bat bederac bere estatuco eguinbiden gainean eguin dituzken huxetan, eta bereciki bere habitudazcoetan; orhoitu ondoan, ahal becembat, heyen nombreak eta heyen circunstancia printcipalez; finean aurthiki ondoan begui colpe bat, yeneralean, adimendua ethorritz gueroztic eguiteco çorigaitça içan den hux gucietarat, behar da Yaincoari eguin humilitaterekin, confientciarekin eta kharxuki othoitz hau :*

**O**THOIZTEN çaitut, ô ene Yaincoa, harçaçu nitaz urricalmendu ; galdeguiten derautçut çure misericordia here hedadura gucian. Eguidaçu

« gracia ene bekhatuen osoki aborrit-  
 « ceco eta hetaz contricione bat  
 « eguiazcoa içaiteco. Yuntatcen naiz  
 « Yesu - Christori, ceinac Olibetaco  
 « baratceanhiguindu baititu ene gaich-  
 « taguinkeria guciac, hetaz ongui ni-  
 « gar eguin duelaric. Phorrosca çaçü  
 « ene bihotz gogorra, ô ene Yaincoa,  
 « eta damuric khirexenaz bethe çaçü :  
 « galdeguiten dautçut gracia balios  
 « hori, Salbatçaile dibino horren me-  
 « recimendu infinituen berthutez, Ma-  
 « ria bekhatosen ihes-lekhua dena-  
 « ren arartecotasunaz, eta Aingueru eta  
 « Saindu gucienaz. »

*Othoitz horren ondotic, eguin behar  
 ditu bakhotchac berac, bere baithan  
 eta errepausuki, behereco erreflec-  
 cione hauc, bederen oren laurden ba-  
 tez.*

**O**H! çombat ofenxatu duan ene Yain-  
 coa!... Eta Aita on harrec yasan nau  
 bethi, ene hux gucien nombrea eta  
 heyen handitasuna gatic ere! haren  
 escu misericordiosa memento bat be-  
 ra guelditu içan balitz ene sustengat-

cetic, nitaz akhabo içanen cen eternitatecotz!... (*Trica çaitte hemen memento bat, errefleccione horiec inspiratu daitçuten sentimenduetan sartcera enxeyatceco.*) Non içanen nintcen orai? deus bertceric etcen enetçat içanen ifernuco sugar mendecariac bai-cen. Içan çaitte beraz benedicatua, ô ene Yainco amulxua eta urricalmen-duz bethea, ceren beguiratu nauçun hoin çorthe tristetic; bertce haimbertcen artean, ceinec, nic becembat çu ofenxatu içan gabe, sofrituco bairute bethi tormentazcolece icigarrian! Ez, Yauna, ez duçu nahi bekhatorearen heriotcea, bainan bai combertidadin, hunkitua çure onthasunaz, ceinaren efetuac egun oroz sentitcen baititut, eta gucia confientciaz bethea çure misericordiaren gainean, heldu naiz azkenaz goiti, çure oinetan çu ofenxatu çaitudalaco urrikitan sartcera.

« Naicen beçalaco dohacabea! norc compreni deçake ene crimen içagarritasuna? norc khonda ahal leçake he-yen nombrea? cer eguin dut bekhatu

eguitean? *quid feci?* cer galdu dut? *quid amisi?* cer merecitu dut? *quid promerui?*

« 1<sup>o</sup> Cer eguin dut? *quid feci?* ofenxatu dut ene Yaincoaren handitasuna eta haren onthasuna; ni ez deus herbala, lurreco har mespretchagarria, ausartatu naiz mayestate gucico Yaincoaren contra erreboltatcera!... Cer ausartcia, cer atrebentcia icigarria!... (*Trica çaite hemen, etc.*)

« Mesprechatu ditut ene Yaincoa ganic errecibitu ditudan ongui eguin guciac. Ene biciaren lehen mementotic orai artino, Yaunac bethe nau ongui eguin suerte guciez; eta nic, haimbertce fagoreen alderat sentimenduric gabe, ahantci ditut oro; ez ditut pagatu haimbertce ongui eguin, baicen ere nombre gabeco ofenxez eta laidoez: ez naiz beraz esker gabetasunezco muntro bat baicen! (*Trica çaite hemen.*)

« Cer eguin dut oraino? içan naiz Yesu-Christo, ene Salbatçailearentçat ahalguisun eta tormenta gucien causa. Jesus maitagarria! certaco odolezco icerdiz arregatu duçu lurra Olibetaco

paratcean ! Helas ! ene gaichtakeriac  
lire çure arima bethe dutenac khi-  
etstasunez. Ez dire çure bekhatuac  
çure gainerat eror - araci dituztenac  
Yerusalemeco carriketan eta hango  
tribunalen aintcinean yasan ditutçun  
aidoac eta barbarokeriac ! Ez, eneac  
lire heyen causa içan direnac ; ene  
nobenac dire çuc borratu nahi içan di-  
tutçunac haimbertce doloreen eta ahal-  
guisunen bidez. Norc khoroatu çaitu  
elhorriz ! ah ! aithortcen dut çure oi-  
netan, ô ene Nausi Dibinoa ; ene pen-  
kamendu criminelec eguin çaituzte.  
Norc ubeldu dautçu çure beithartea  
beharrondocoç ? Norc estali dautçu  
kherruz ? ene ustecantça da, ene urgui-  
uaren hanturac dire çu horrela erabili  
çaituztenac. Ene accione gaichto gu-  
ciac dire, ene urhax tçar guciac çure  
çango eta escu sacratuetan itce horiec  
sarthu dituztenac. Içan othe daiteke  
ez ditudan ikhusten lantçaz cilhatu  
bihotzhortan, ene desircunde desorde-  
natuac ! Bai, gorphutz çaurthu hor-  
rec, gorphutz odolez estali horrec, a-  
cusatcen nau eta bortchatcen aithort-

ceraberri berritan gurutceficatu dudala ene Yaincoaren Semea... (*Trica çaite hemen.*)

« Cer! ene Erostaile guciz amulxua, içan othe daiteke hain urrun ereman baitut malecia eta gaichtakeria çure contra! Helas! nola ausartatu naiz ene escuaren ekhartcera ene Yaincoaren, ene Salbatçailearen, ene Aitaren gainera, hari herio colpea emaiteco. Ah! ala errefleccione hori arrailagarria baita! ala erregret biciac inspiratcen baitaizkit! ô bekhatua! ala icigarria baihaiz! Ochala baldin higuin ahal bahintçaket nahi nuken becembat: ô bekhatu aborrigarria! eguin nauc betan Aita eta Yainco hiltçale!... (*Trica çaite hemen.*)

« 2º Cer galdu dut bekhatu eguitean? *quid amisi?* helas! oro galdu ditut. Bekhatuac, ene bihotça nothatu duen memento beretic, bathayoco innocentciatic biluci nau. Cer caltea, ô ene Yaincoa, cer calte ikharagarria! Debruaren esclabo bekhatuaz yarri naitcen phondutic, galdu dut ene Yaincoaren adichkidetasuna. Bekhatuac ere-



man daizkit irabaci nituen merecimen-  
du guciac eta ene obra onen fruitu  
gucia. Cer daiteke tristeagoric, crea-  
tura miserablea! gabetua icaitea bere  
Creatcailearen fagoreez! ican da egun-  
deino deus lastimagarriagoric?.....  
(*Trica caite hemen.*)

« Yesu-Christoren premuntcan par-  
talier, Ceruco erresuma ene phartea  
behar cen ican; ene bekhatuec de-  
becatcen dautet hango sarkia. Neroni  
naiz Cerua neretcat hexi duana; ene  
faltaz ikhusten naiz hirriscuan bethi-  
cotz dohaxuen nombretic desterratua  
icaiteco. Cer ethorkicun desolagar-  
ria!... (*Trica caite hemen.*)

« Banitu ere lurreco on eta icaite  
guciac, goçatcen banintz ere behere  
huntan ican daitezken abantail eta ezti-  
tasun guciez, Yaincoa galdua duanaz  
gueroz, gueroztic etçaut deus guehia-  
go guelditcen; ene kekhatuez Cerua  
cerratu duanaren phondutic, cer ço-  
rion iguric deçaket? bekhatua, be-  
khatu icigarria, ala çorigaitz ekharri  
beitautac! nola aborri haicaket aski?...  
(*Trica caite hemen.*)

« 3º Cer merecitu dut bekhatu eguitean? *quid promerui?* merecitu dut bethicotz Yaincoaren presentciaz gabetua icaitea: merecitu dut erretcea debruekin eta arima galduekin seculaco sugarretan!... (*Trica caite hemen.*)

O çorthe erdiragarria eta ene nigar guciac mereci dituen! cer! cembeit placer iragancorrentçat, cerbeit ontasun ez deusentçat, ene pasioneac satisfatcea gatic, hoin ez-acholatuki utci ahal ican naiz ifernuco suplicio icigarrietarat erortceco hirriscura!!! (*Trica caite hemen.*)

Bekhatuac eçarri nau beraz ene buruaren exairic minena. O bekhatua! hi haiz beraz ene gaitz soberanoa, ene Yaincoaren gaitz soberanoa haicen beçala! alferretan iduri nikec, guiconen beguetan, aberaxa, dohaxua, ohoratua: bekhatuaren esclabonaiceno, ez nauc gutiago bitima dohacabe bat, bidean eternitateco sugar ikharagarrietan tormentatua icaiteco. Barkha dieçadaçut, ô ene Yaincoa, barkha! senditcen dut ene bekhatuen aborritceco necesitatea, hetaz auhen

minetan yartcecoa eta ene bici gucian hetaz penitencia eguitecoa. Sobera urus oraino baldin precio hortan misericordia ardiesten badut ! Bai, ene Yaincoa, handizki damu dut çu ofenxatu içaiteaz, ceren çu baitçare guciz ona, guciz maitagarria, eta ceren bekhatuac damustatecen beitçaitu : hartecen dut borondate bat fermua, çure graciarekin batean, hemendic harat biciz aldateco eta ene bekhatuen osoki cofesatceco. Halabiz. »

Maria Biryina, Yaincoaren Ama eta ene Ama guciz urricalmenduxua, bekhatuaren notharic den mendreena egundaino içan ez duçuna, çure contcebitce notha gabecoaren ohoretan, ardiex dieçadaçut, çure Seme dibinoaganic, ene bekhatuen urrikia eta eguiazco contricionea. Halabiz.

4. *Bekhatuez orhoitu ondoan bihotceco dolore handi batekin, ceren Yainco on hura ofenxatu duçun, eguiçu Contricionezco acta :*

**O** ENB Yesus eta ene Salbatçaile mai-

tea! çure oinetan ahuspez yarria nagotçu, barkhamendu eske, ene bihotçaren barnetic, çure Mayestate sainduaren contra eguin ditudan falta guciez. Helas! ene Yesus eztia, çure amodio handiaz egundainotic hain maitatu nauçu, non niri ceruco atheen idekitcea gatic, çure odol gucia ichuri baituçu; hitz emaiten darotçut ethorkiçunean ihes eguinen diodala bekhatuari; ez ifernuco penei beguiraturic, ez eta ere parabisuco dohaxutasunari; bainan çuretçat duan amodioa gatic, ceren ene Yaincoa baitçare, eta ene arimaren dohaxutasun maitea, eta nic maitatu behar duana.

5. *Bekhatuaren contraco aborrimendua.*

**AH!** ah! bekhatu gaichtoa eta mada-ricatua, gaitcesten haut eta osoki aborritcen; herioa eta ifernua baino higuinago haut; nahiago diat lehenago hil, ecenez Yaincoa ofenxatu. Baldin ene heriotceaz gal-araz ahal bahintçat, gogotic eman neçakec nere bicia, ene

Yaincoa eta ene Eroslea guehiago ofenxatua ičan ez dadintçat. Madaricatua dela penxamendua egundeino ene baitan sarkia eman dauyana.

6. *Deliberacione onezco acta.*

**H**irtz emaiten darotçut, ene Yaincoa, guciz ona eta misericordiosa, baldin behin ahal badut çure graciariat bihurtceco dohaxutasuna, eta partalier ičan ahal banadi, çuc çure ume maittei errephartitcen dioçoçuten fagore Yaincozco eta amulxuetan, delibera-tua naicela ethorkiçunean çure alderat leyal içaterat, eta lehenago hiltcerat ecenez çu mortalki ofenxatcerat.

7. *Esperantçazco acta.*

**E**NE Yainco ona, hain misericordiozki barkhatu dioçutena Ohoin onari, Madalenari, Publicanoari, eta bertce hainitz bekhatoros handiei, esperantça dut niri ere çure misericordia finic gabecoaz barkhatuco darozkidataçula ene bekhatuac, hetaz urrikiz, damuz eta dolorez gucia bethea naicenaz gueroz,

eta deliberatua çu ez secular guehiago ofenxatceco. Barkhamenduric merecitcen ez duan arren, çure hitcera guelditcen naiz: erran duçu, ez duçula nahi bekhatorearen heriotcea, bainan bai haren comberxionea. Esperantça dut çure baithan, ene Salbatçaile maittea, ene bekhatuen gatic eta ene salbatcea gatic hambat sofritu duçuna.

*Andredena Mariari equiteco Othoitça.*

**B**IRYINA Saindua eta loriosa, Yaincoaren Ama, bekhatoreen ihes-lekhua, çu çare pobreen eta churtchen Ama, Ama misericordiosa, den bekhatorosic handiena ere mespreçatcen ez duçuna, miserableenen conxolatcerat bethi prest çarena; ez du egundaino nihore aditu çure baithan bere fidantcia eman due-nic, fagoratu gabe utci duçula. Heldu naiz esperantça horren azpian çureganat. Ama urricalmenduxua, arren bada çure graciaren medioz içan dakidan cofesio hau behar beçalacoa. Ene Aingueru Beguiraila, lagun naçaçu; eta çuec ene Patroin, Saindu eta Sain-

da guciac, ene bekhatuen barkhamen-  
dua çuen arartecotasunaz ardiex die-  
çadaçue, eta içan dakidan oraino co-  
fesio hau hain osoa, eta complia nola  
balitz ene heriotcecoa.

Cohaz guero cofesatcera, humiltasun eta  
modestia handi batekin. Apheça conxidera  
çacu Yesu-Christoren presuna ñera beçala;  
ecen haren lekhu atchikitcen du. Yar çaita  
belhaunico, eta modeski beguiac beheratuac,  
Apheçari bisayarat beguiratcen ez dioçula;  
ceina çaita, eta erraçu: *Aita, indaçu çure  
benediccionea, ceren eguin baitut bekhatu:*  
eta erraçu guero *Confiteor..... meâ culpâ-  
raino, escuaraz edo latinez.*

---

## COFESATU ONDOAN EGUITECO

ACTAC.

*Fedezco acta.*

**S**INHESTEN dut osoki, ene Yaincoa,  
çure odol sacratuaren merecimenduaz  
ene bekhatuac Penitenciazco Sacra-  
mendu huntan barkhatu darozkidata-  
çula, baldin ene aldetic aphaindua  
içatu banaiz; eta sinhesten dut hala-

ber, çuc ichuri ez bacinu çure odol  
 preciatua, ecin barkhatuco citçaizkida-  
 dala, eta hain guti citezkela ene obrac  
 merecimenduzcoac. Hargatic beraz  
 sartcen ditut ene bekhatu guciac çure  
 odol sacratuan itho daitecentçat, eta  
 othoitcez nagotçu eman dieçadaçun  
 barkhamendu oso bat. Halaber darot-  
 çut othoitz eguiten, ene Yaincoa, çure  
 Ama maitearen eta Saindu gucien me-  
 recimenduen medioz, onhets dakiçun  
 oraino ene cofesio hau. Huntan eta  
 bertce egundeino eguin ditudan gu-  
 cietan, guerthatu çaikidan hux gu-  
 ciac, dela contricione escasez, cofesio-  
 neac aski garbi eta oso içan faltaz, dela  
 penitencia ez behar beçala compli-  
 tuz, çure misericordiac senda dietça-  
 kidan guciac, othoi; ene Yainco ona,  
 ceruan barkhatuac guertha dakizki-  
 dantçat.

*Eskerren bihurtceco acta.*

**O** ENE Yaincoa, eta ene Aita miseri-  
 cordiosa! ez dakit nola çure amodio  
 handiari eskerrac eman; harren ganie



errecibituric heldu naicen onthasun  
 andiez. Ez, ez naiz ni gai hari doha-  
 con beçalaco eçagutçaric eguiteco, çu-  
 re Seme maitearen merecimendu eta  
 perfeccione miragarrien arartecoz bai-  
 zen. Beraz hec berac ofrendatcen da-  
 rozkitçut, ene Yaincoa, nic ecin deça-  
 kedanaren lekhuari, eta escaintcen da-  
 rozkitçut halaber Biryina Sainduaren  
 merecimenduac ere, ene Aingueru Be-  
 guirailearenac, Serafin, Patriarkha,  
 Profeta, Apostolu, Martir, Cofesor, Bir-  
 yina, eta finean ceruco corte guciare-  
 nac. Eta, Creatçaile maitea, nahi nuke  
 banu hambat mihi nola baita ceruan  
 eta lurrean creatura, guciac emplegat-  
 ceco munduaren fineraino çuri esker-  
 ren emaiten, çure laudatcen eta lorifi-  
 catcen.

*Contricionezco acta.*

**E**NE Yainco guciz urricalmenduxua ;  
 Sacramendu huntan eguiazco Aita ba-  
 ten amodioa eracuxi darotaçuna ; niri  
 ceinac, çu osoki mespreçaturic, hain au-  
 sarki eman darozkidatatçun graciazco

onthasunac galtcerat utci baititut : nic  
 çu hain handizki ofenxatu, eta çuc on  
 harteen dautaçu pagamendu chume ba-  
 tez, hartceco handi baten aldera, hor-  
 tic cembait probetchu bacindu beçala ;  
 aitecinerat heldu çazkit besoac çabal-  
 duric ; bihotz amodioz erretcen hari  
 den samur batekin nago ahuspez çure  
 onthasunaren oinetan, ene bicitce ira-  
 ganac emaiten dautan ahalkeriaz eta  
 damuaz gucia bethea. Ene Yaincoa eta  
 ene Aita, aithortcen dut ez dudala me-  
 reci çure umeen herruncan içaitea.

## COMUNIONE SAINDUAREN

ERRECIBITCECO

### DEBOCIONEA.

**L**EHEMBICICORIC, conxideratu behar duçu çu-  
 re-ganat heldu dela cerua, lurra eta gauça  
 guciac creatu dituen, Yainco Mayestate han-  
 ditaco hura, ceinaren aitecinean Aingueruac  
 eta Serafinac ikharan baitaude.

Bigarrenean, conxidera çaçu noren-ganat  
 heldu den : çure-ganat ceina ez baitçare

herraux eta haux baicen, ceinac hambat ofenxatu baituçu.

Hirurgarrenean, conxidera çaqu certarat heldu : den çure-ganat heldu dela çuri bere graciën comunicatcerat, çuri çure bekhatuen barkhatcerat, eta hitz batez erraiteco, heldu da amodioz osoki çuri ematerat.

Laugarrenean, conxidera çaqu cein necessario çaitçun Yaincoaren errecibitcea : ceren hura baita çure arimaren yanharia hunen gosean çure sasiatceco, çure eritasunetaco erremedioa eta çure tentacioneen contraco iudarra.

*Sacramendu Sainduaren errecibitceco  
aitcinean equiteco lehembicico  
OTHOITÇA.*

**E**NE Yainco ona, ceronec egun deitzen nauçu çure ganat, çure inspiracionez ene bihotça berotcen duçula, çure errecibitceco guticia handi eta kharxuëtarat. Ohore eta onthasun handi hori eguin nahi dautaçunaz gueroz, çato beraz ene arimarat, eta ceronec aphain dieçadaçu halaco moldez, non çure nahitarat perfetki plegatuco baituçu, ceronec eguin eta berreguin duçun obra; eta nic ere

nere aldetic iduki çaitçadan ene bihotçaren gainean Yaincozco seinale bat beçala:

*Humiltasunezco acta.*

**O**RDEAN, Yauna, nola ni hurbilduco naiz çure ganat, çure handitasunari beguira eta ene ez-deustasunari, çure garbitasunari eta ene liçuntasunari, çure saindutasunari eta ene maleciari? Yondoni Yoanni-Baptista, hain saindu handia, amaren sabelean saindutua celaric, ez cela gai cioen çure çapata lokharriaren amarratceco. Yondoni Petri, Apostoluen Printceac, cioen: Yauna çohaz ene ganic, ceren guicon bekhatos bat naiz. Eta bada ni infirituki bekhatos handiagoa, nola ausartatuco naiz, Yauna, çure ganat hurbiltcerat? Nere baithan ez dut deus ere causitcen bekhatuic eta maleciaric baicen, nere pasione nahasien errebolta gaichtoric baicen. Ene nahiac eta ene inclinacione çarrac içatu dire ene bicitcearen leguea eta erreguelac. Ez dut egundeino behar den penaric

hartu çure amodioarentçat; ez naiz çure yusticiaren beldur içatu, eta çure legueari çor diodan beldurrac ez nau guibelatu gaizkia eguitetic; egundeino ez darotçut eskerric ungui eman çure ganic errecibitu ditudan onthasunez. Ene bicitce gucia çure contraco guerla bat içatu da : bethi çu niri ungui eguiten, eta ni çuri gaizki eguiten; çu bethi ene bilha, eta ni bethi çure ihesi. Ah! Yauna, eta nola bada hunelaco creatura dohacabe bat ausartatuco da çure ganat hurbiltcerat!

Trica çaitte hemen aphur bat çure misiariaren eta çure behar handien gainean oxenxatcen duçula, eta guero erraçu confientzia handi batekin.

**A**H! Yauna, aditu dut çure boça estia, zeinac deitzen bainau çure ganat, erraiten dautaçula : Çatozte ene-ganat, nekhatuac eta akhituac çaretenac, eta nic arinduco çaituztet. Erran luçu, ene Yaincoa, ez duçula bekhaorearen heriotcea nahi, bainan bai ombexionea; ez duçu, Yauna, be-

khatorea çure ganic urruntcen, bainan bai deitcen çure ganat. Erran duçu etçarela mundurat yustuen deitcerat ethorri bainan bai bekhatoreen; ez dutela sendoec miricuric behar, bainan bai eriec. Ene Salbatçaile maitea, çure onthasunean eta çure misericordia handian ene esperantça eta confidentcia gucia emanic, heldu naiz eria miricua ganat; senda naçaçu : heldu naiz bekhatorea yusticiazco ithurrirat, çucen naçaçu. Badakit Publicano bekhatorosaren nigarrez casu guehiago eguin cinuela, Farisauaren othurruntça çoroaz baino; ez cinituela Madalenaren nigarrac gaitcexi, bainan barkhatu cinioela, eta hartu cinuela çure escu onaren azpian. Huna non naicen, Yauna, çure misericordiaren oinetan, nere bekhatuen dolo-reac erdiraturicaco eta porroscaturicaco bihotz batekin. Eguia da, ez dut Madalenac becembat nigar çure oinen garbitceco; bainan çuc ichuri duçu odolic aski ene eta mundu guciaren bekhatuen garbitceco eta barkhatceco.

*Aita Eternalari eguiteco Othoitça.*

**A**ITA cerucoa, nola obra onic gabe nere baithan causitcen bainaiz, eta ez baitut deus ere çuri ene bekhatuez satisfaccione eguiteco; escaintcen darozkitçut çure Seme Yesusen merecimenduac, ceinac baitire handiago ene eta mundu guciaren bekhatuac baino. Ofrendatcen darotçut ene Eros-tasunaren saria, eta ene Salbatçaileac bere heriotce dorpheaz enetçat eguin darotçun pagamendua. Yauna, itçul çaitçu çure beguiac, horren gorphutça hila beçala aldarearen gainean, eta horren odol premiatura calitçaren barnetic oihuz dagotçula. Entçun çaçü çure Seme maitearen eta gure anayaren odolaren boça, ceinac bere heriotcean Calbariotic beçala, orai aldaretaric erraiten baitarotçu : Aita, barkha dioçocute, ecen ez dakite cer hari diren ; gu bekhatoros gaichtoentçat gracia eta urricalmendua galdatcen darotçula, ceinec gurutceficatu baitugu gure bekhatuez.

*Fedezco acta.*

**O** YESUS, ene Salbatçailea! sinhesten dut, fede bici batez, eguiazki eta errealki Aldareco sacramendu handi hortan çarela; hor ene izpirituac adoraten du ene beguiec ikhusten ez dutena, nola baita çure Yaincotasuna, çure guiçontasuna, çure arima, çure gorphutça, çure odola, çure izpiritua, eta çure merecimenduac; phitz çaçü ene fedea misterio handi eta adoragarri horren gainean, ô ene Yesus! çor darotçudan sentimendu eta beldurrarekin çure ganat hurbil nadintçat.

*Amodiozco acta.*

**Ç**URE amodioac eman çaitu, ene Yesus, oguiaren eta mahax arnoaren idurien azpian, ene ganat ethorteea gatic; misterio hortan çure amodioaren indar gucia erakhusten duçu. Othoizten çaitut bada, ene Yesus, çure bihotça enetçat sutan eman duen amodio berac, enea ere çuretçat susta deçan. Ah! bihotz hotza, bethi hormatua içanen



othe haiz? Maita çac, hic ere, hi hain borthizki maitatu hauen Yesus bera. Ochala Yesusen amodio sacratuac erre baleça ene bihotça, eta osoki sunxi!

Mereciten ez dudalaric arren, nahia badut çure errecibitceco, ene Yesus maitea, ceren baitakit eman nahi çaikidala, eta çure baithan aurkhituco dudala ene eritasun gucien sendagailua. Ene Salbatçaile maitea, ez nuke nahi comunione hau eguin usantça batez; othoi, eguin dieçadaçu bada gracia, amodio bero batez, munduco creaturataric osoki hux nadin eta çutaz bethe, ceina adoratcen eta maitatcen baitçaitut, çuretçat gucia hax-gorapenez bethea naicela.

*Ofrendazco acta.*

**O**FRENDATCEN darotçut, ene Yaincoa, orai nic eguiterat nohan Comunione hau çure amodioa-gatic eta çuri placer eguitea gatic. Badakit, ene Salbatçaile maitea, comunioneco accione hau haitz onhesten çaitçula, hiltceracoan

cintuen hitz amodiozco samur eta hun-  
kigarrietan marcatu cinaucun beçala,  
erraiten cinuelarie : Orhoit çaitzte,  
nitaz hori eguinen duçuen gucian.  
Eguiten dut beraz, ene bihotceco Yain-  
co maitea, çuc ene arimarat ethortceco  
duçun nahari satisfaccione emaiteco,  
çurekin yuntatceco, bekhatuari ihes  
eguiteco, berthutearen pratican indar-  
ren hartceco, eta ene ez-deustasunaren  
eçagutceco.

*Andredena Mariari eguiteco Othoitça.*

**O** BIRYINA loriosa! ene Salbatçailea-  
ren eta ene Erostailearen Ama, duçun  
pietate bekhatoros urricalgarrihuntaz :  
ô Trinitate Sainduaren lore ederra!  
eguiçu enetçat othoitz, çure medioz  
besarca deçadan, amodio oso batekin,  
çure Seme ene Salbatçailea, eta eguin  
nadin haren gogoraco arima bat. O ce-  
ruco Aingueru dohaxuac ! othoi, lagun  
naçaçue parabisuco Saindu eta Sainda  
guciac, enetçat othoitz eguiçue, ene  
Yaincoaren gogora Comunione hau e-  
guin deçadantçat.

*Bihotz altchalceac Yesusi.*

ÇATO, ene Yaun maitea, çato eta behen çaqu ene baithan eguin gogo dugu obra miragarria.

O ene bihotceco Yainco maitea! ez leçaçula guehiago luça ene ganat ehortcea.

Ah! ene Yaincoa, ala nic baitut naicunde handia çure errecibitceco!

Aithortcen dut ez naicela creatura irricalgarri bat baicen; bainançu oneguia çare, ene gaitzec ene ganat ehortcetic guibelatceco.

Çato, othoi, ene Salbatçaile maitea, çu berantexia nago.

Ene Yaincoa, çato ene arimarat eta saindu çaqu.

Ene Yaincoa, ene bihotçaren yabe eguin çaute eta garbi çaqu.

Ene gorphutcean sar çaute eta çain çaqu, eta ez naçaçula secular çure amodiotic urrun.

O su sacratua! erre çaqu cer ere causitcen baituçu ene baithan çure gogora ez denic, eta çure graciari eta

çure amodioari traba eguin ahal deçokenie.

O ceruco manna! indaçu çure gustu ona, munduco plazer gucientçat hinguinça oso bat içaiteco.

Erraçu guero *Confiteor*; eta hiruretan :

**Y**AUNA, ez naiz ni gai çure errecibitceco; bainan erraçu çure hitz saindua, eta ene arima içanen da sendatua.

Sinhesten dut, ene Yaincoa, fede bici batez, Ostia saindu hortan dela çure içaite gucia.

Adoratcen çaitut ahal deçakedan humiltasun eta errespetic handienarekin, Yainco amodio handitacoa.

---

### COMUNIONE SAINDUA

ERRECIBITU ONDOAN EGUITECO OTHOITÇA.

**O** AMODIO ecin estimatuzcoa! onthasunezco ixasoa, ithurri ecin agor çaitzena, ene barnean ohoratcen eta adoratcen çaitudan Ostia Sacratua, bihotz bat gutiegui da çure maitatceco, Yesus

dibinoa, eta boça bat halaber gutiegui da çure onthasun handiaren on-eras-teco.

O ene Salbatçailea, eta ene arrotz maitea! ala nie çuri çor handia baitarotçut, ni beçalaco creatura escale bati eguin dioçun bisitaz!

Eguin dautaçun onthasun eta ohore handi horren eçagutçatçat, çutazco ofrenda bat eguiten dautçut çuri cernerri.

Ez, ez dut guehiago bici nahi, bainan Yesus nahi dut ene baithan bici dadin.

Yesus enea da, eta ni harena eternitate gucico.

O amodioa, ô amodioa! seculan ez guehiago bekhatuic.

Ez çazkit seculan ahantçico, Yesus ene Salbatçaileac eta ene arrotz maiteac eguin darozkidan fagore eta onthasun ecin erran beçain handiac.

*Adoracionezco acta.*

**A**H! Yauna, çu creatura urricalgarrinunen ganat ethortcea, sobra gracia

eguitea da, Aingueruei baino guehiago eguin dautacu. Hec ez dute cu ceruan ikhusteco eta adoratceco dohaxutasuna baicen; bainan ni cure sustantciaz hazten naucu : fagore handi bat da horienetcat, eta cure amodioaren gaindidura bat, nahi icatu baitucu sarthu ene gorphutcean. Han bada, ene Yesus, adoratcen çaitut, hala nola Aingueruec ceruan eguiten baiçaituzte; eta nago cure presentcia sainduan beldur saindu eta aphaltasun handi batekin.

*Eskerren bihurtceco acta.*

**B**IRYINA Saindua, çuc cure sabel sacratuan ekharri duçun Yesus bera da orai ene baithan. Cergatic ez dut bada nie hambat amodio eta garbitasun nola çuc? Lagun naçacu, othoi, cure Seme amulxuac eguin dautan gracia handi huntaz eskerren emaiten. Ceruco Aingueruac, parabisuco Saindu eta Sainda guciac, çuekin yuntatcen naiz, Yesusi eskerren bihurtceco eguin dautan graciaz. Çuc ceronec eman dautaçun Se-

me bera ofrendatcen dautçut, onthasun handi horren eçagutçatçat.

*Eskerren bihurtceco bertce acta.*

**Y**ESUS adoragarria, eguia da beraz ene baithan çarela! naicen bada ni ere, othoi, choilki çure baithan; ez çaitecela seculan ilkhi sarthuçaren bihotz hortaric.

Ene bihotça, othe dakic maitatcen? orai hemen erre behar haiz; sunxi hadi dohaxuki Yesusen amodioaren labe sacratu hortan. Ene arimaren Salbatçaile maitea, khambia naçaçu çure ganat, ez nadin ni guehiago bici, bainan çu bici çaitecen ene baithan: ene penxamendu, ene hitz eta ene obra guciac, ditén niri eman çaitan Yesusenac, eta ezeneac. Hitz emaiten darotçut, ene Yesus, seculacotz çure alderat leyal içanen naitela, ez dut amistantçaric nahi içan guehiago çure loriaren exayekin; ukho eguiten diotet munduari, eta haren placer falxuei, debruari, eta haren tentacione edo seguida gachtoei, eta çure manamendu choilei yarraiki nahi natçayote.

**F**INEAN, ardiexi dut eta nere baithan dut ene arimac maitatcen duena, ez du perilie espacatcerat utz deçadan. Ez, ez, gargoro nahi dut ene bihotça içan dadin haren; bainan ene bitoria eta ene dohaxutasuna seguratuac içatea gatic, amarratuco dut borthizki amodioaren gatheetz; eta gal ez deçadantçat, emaiten dut modestia çaintçaletçat ene beguietan, eta ichiltasuna ene mihian. Badakit ene Yesus maiteac ez duela bihotz pharte bat nahi; arraçoinda beraz eman dioçodan nere bihotz osoa. Ez choilki bihotça, Yesus guciz maitagarria, bainan oraino emaiten darotçut ene arima, ene gorphutça eta naicen gucia. Errecibi çaçü beraz çurea dena, eta yunta çaçü çurekin, mundo creaturec çure ganic aparta ez deçaketen beçala.

**E**SKERRAC eta laudorioac bihurtcen darozkitçut, Aita guciz ahalxua eta saindua, ceren merecitcen ez dudalaric arren, ni indignoa, nahi içatu bainauçu bazcatu, eta hazi çure Seme Ye-



su-Christoren gorphutz eta odol pre-  
ciatuez.

Othoizten eta arekeritcen çaitutbada  
Comunione saindu hau içan dadin ene  
bekhatuen barkhamendutan, eta ongui  
errecibitcen duten arimetan eguiten  
duen efetu bera ene baithan ere eguin  
deçan.

---

SAN THOMASEC


*Yaincoari eguiten cioen OTHOITÇA eta  
batbederac eguitecoa Comunione on-  
doan, eta noiz nahi den.*

**Y**AINCO guciz ahalxua eta urricalmen-  
duxua, eguidaçu gracia çu berotasun  
handi batekin desiratceco, çuri agra-  
datcen çaizkitçun gauçac çuhurki bil-  
hatceco, eta argui handi batekin berech-  
teco, eta artha handi batekin hekien  
complitceco çure icen sainduaren lo-  
riacotz. Ene Yainco Yauna, çucen çait-  
çu ene bicitee gucia eta ene accione gu-  
ciac. Manatcen dautaçu compli detça-  
dala çure Ebanyelioan seinalatu eta  
marcatu darozkidatçun eguinbideac;

eman dieçadaçu nahi duçun gaucen eguiteco botherea. Eguidaçu dohaina hekien eçagutceco eta hekien complitceco borondatearen icateco; bai eta ere hekien segurki bethetceco, eguin behar nituzken beçala, eta ene arimaren salbamenduaren abantailetan diren beçala. Çure ganat yoan behar nauen bidea har deçadan segura, chuchen eta perfeta, eta halaco moldez guida nadin onean eta gaitcean, non çorionac ez bainau urguilustatuco eta nahicabetan ez bainaiz utcico sobera erortcera; çorionean eskerrac eman dietçakitçudan, eta çorigaitcean cerbitça çaitçadan pacientciarekin. Ez naçan deusec ere aleguera ez trista, çure ganat hurbiltcen edo çure ganic urruntcen nauten gaucec baicen. Ez deçadan bilha çuri axeguin eguitea baicen, eta ez naçan deusec beldur çuri damu eguitea baicen. Eguidaçu gracia, deusic ez deçadan ez has ez abia caritatezco mobimendu batez baicen: çure cerbitçuco diren gaucez gaineracoei, beguira dioçotedan ez deus batçuei beçala; eta gauça hil batçuei beçala;

eta ez deçadan gauça onac eguin  
 usantça batez, bainan eguin detçadan  
 guciac çure amorea gatic eta su bero  
 handi batekin. Çure handitasunaren  
 amodioac eta çure eternitateac mes-  
 preça araz dietçakidaten munduco  
 gauça yuancorrac eta iraupenic ez du-  
 tenac; preça eta estima ditçadan çure  
 ganic heldu çaikidan gauça guciac,  
 eta çu, ene Yaincoa, guciac baino  
 guehiago preça çaitçadan. Gauça gu-  
 ciec unha naçaten eta desgusta; çu ga-  
 be gauça guciac yasan-gaitz causi det-  
 çadan, eta icigarri; placer handi bat  
 causi deçadan, çureçat hartcen eta  
 eguiten diren lanetan; eta ez deça-  
 dan causi akhidurarie eta penarie bai-  
 cen pausuan berean ere, çure bai-  
 than hartua ez denean. Eguidaçu gra-  
 cia, ene Yaincoa, ene bihotça çure ga-  
 nat alchatceco maichco hatsgorape-  
 nez, eta ene huxen eçagutceco urriki  
 handiarekin eta chede onekin hetarie  
 urruntceco; eguiçu içan nadin humil  
 disimulacionerie gabe, içan nadin ale-  
 guera arintasunic gabe, içan nadin  
 ihun sobera erori gabe, içan nadin

serios ilhundurarie gabe, ičan nadin eguiatiar falxukeriarie gabe, ičan deçadan çure beldurtasuna desesperatu gabe, ičan deçadan çure baithan esperantça presumpcionerie gabe, ičan nadin garbi liçuntasunic gabe, errepreñi deçadan ene guiristino laguna haserretu gabe, maita deçadan enganatu gabe, berreguin deçadan ene exempluz eta ene hitcez banitaterie gabe, ičan nadin obedient escusarie bilhatu gabe, eta errepustarie eman gabe, ičan nadin pacient erasiarie gabe. Indaçu, ene Yesus ezta, bihotz hazcar eta deusec ecin higituzco bat, mundueo esteca guciec lurreco gaucetarat eramán ez deçaketen bat; bihotz yeneros eta ecin bentçutuzco bat, perxecucione guciec çure baithan duen confientcia gal-araz ez dioçoketen bat; bihotz gauça guciatarie libro den bat, mundueo axeguin guciec çure ganie urrun ez deçaketen bat; azkenean bihotz chuchen eta garbi bat, nahicunde gaichto guciec çure bidetic athera ez deçaketen bat. Eman dieçadaçu, Yauna,





516

SAINTE CATHERINE DE SIENNE.  
STA CATALINA DE SENA.

argui bat, ceinaren bidez eçagut baitcitçaket; artha bat, ceinaz bilha ahal baitcitçaket; çuhurtcia bat, ceinaz causi ahal baitcitçaket; bicitceco bide bat, ceinaz plazer eguin baiteçacuket; fede bat, ceinaren bidez yarraic ahal baintçatçuke, eta confientcia bat ceinaz perfetki goça ahal baitcitçaket. Eguidacu gracia partalier içaiteco çure sofricarioetan eta çure doloretan, penitenteiaren nekhez ungui balia nadin bicitee huntan, çuc eguiten darozkidatçun onthasunez, eta ceruan, dohaxutasunaz goça nadin çure loriaren batasunean.

---

### NAHIZ AGUERIAN DENEAN

*Eta noiz nahi den Aldareco Sacramendu Sainduari eguiteco erreparacione eta amanda honorablea.*

**O**STIA adoragarria, amodiozco bictima preciatua, ene gorphutçaren beguiei Sacramendu hortan estaltcen çarena, fede bici batez othoizten çaitut aguer

çakizkoten ene arimaren beguiei. Salbatçaile maitea, cer hari çare tabernacle hortan, eta cer dire çuc estalki dibino eta misterio horren azpian dituçun empleguac? Gure bekhatu eta gure nahastasun ixusiec egun oroz bortchaleçakete çure Aita ceruco hortci eta ozpin guciac gure gainera etchatcera, eta gu uholdez hondatcerat; bainan çu causitcen çaitu gure artean Sacramendu horretan, hortz-adar formatua hedoi batean; eta Yainco yustuac ecin hor ikhus çaitçake, non ez den berehala misericordiaz bethetcen, eta non ez den orhoitcen çuc çure Aitarekin bekhatorosencat eguin duçun alientciaz. Çure bethiereco emplegua Sacramendu hortan, çure Aitari amanda honorable eguiten hartcea da. Aphez nausi eta guiconen bictima beçala, guiconen bekhatuec Yaincoaren perfeccione guciei eguiten diotçaten laidoez erreparacione eguiten dioçula. Yustu dani ere çurekin yunta nadin çure empleguetan, eta çure sentimenduetan sar nadin sacrificiozco societate batean; eta çure parte bat naicenaz gue-



roz, çure gorphutceco membro bat beçala, susta naçaçu çure kharraz eta çure izpirituaz, nic ere çure alderat eguin deçadan çuc çure Aitaren alde- rat eguiten duçuna. Guiconec bere be- khatuez ez dituzte choilki çure Yain- cotasunaren perfeccioneac desohorat- cen, bainan bai oraino çure guicon- sunaren handitasun eta berthute gu- ciac ere. Ah! Yauna, bethi çure ofen- xateen eta çure gaizki tratatcen hari diren bekhatoros dohacabe hetaric naiz : çuri eguiten çaitkitçun hidoi horien artean cere guehienic espan- tatuco nau, ala çure pacientciac, ala çure amodioaren constantciac? Hemen naiz çure oinetan çuri amanda honorable eta erreparacione ohorez- coaren eguiten; barkhamendu eske nagotçu enetçat, eta ene anaya gui- ristiano gucientçat; eta çuri satisfac- cione eguiteco ofrendatcen darotçut çue çure Aitari escaintcen dioçuna be- ra, bihotz hura, amodio hura, odol hura, çauri hec, sacrificio hura, eta hortan cerratcen ditutçun misterio hec guciac, eta oraino gure beguiei presen-

tatcen diotçatçuten berthute guciac.  
*Pater noster*, etc.

*Sacramendu Sainduaren Benediccionea  
 emaitcan*

EGUITECO OTHOITÇA.

**O** YESUS, ene Salbatçailea! sinhesten dut, batere dudaric eguin gabe, Sacramendu adoragarri hortan çarela egui-azki eta errealki, çure gorphutz, arima, odol eta Yaincotasunarekin; prest naiz noiz nahi den eguia hunen sustenguan nere biciaren emaiteco. Adoratcen çaitut ahalic errespetu handienarekin; indaçu çure benediccione saindua, eta seculan çu ez ofenxateco gracia.

---

YESUSEN

BIHOTZ SACRATUARI

*Alde guciç harentçat icatecotan, norc  
 bere buruaz eguiteco emaitça osøaren  
 ACTA.*

**O** I Yesus, ecin çure dina maita citaz-

kena! Huna non naicen orainoco nere eskergabetasun guciez urrikirie mine-narekin; heldu natçaitçu nere buruaz, çuri eta çure Yaincozco bihotz, bazter guciac sutan dauzcan amodiozco khal-da horri, emaitça oso baten eguiterat. Hitz dautçut ein cinez çure aldareen oinetan, orai-danic aiteina ahal duke-dan ohore guciac, bai bihurtuco, bai ardiex-aracico dautçudala; ez dut, bici naiceno, çutaz bertce beguiragarririe ez maitagarririe eçagutuco, çu içanen care nere esperantça gucia, eta nic ene bici moldearen aintcin guidari beha-tuco diodana.

Indaçü, othoi, nere bicitce gucian amodio garbi eta bero batez çure mai-tateco gracia. Çure bihotz adoragar-ria bere yabetçat hautatu dutenei, do-haxutasunez, fagorez eta progotchuz gaindi badariotela eçagut deçan mun-du guciac ni baithan, eta hortie ahal daiteken becembat adoratçaile bil de-çaçudan; oi nic balin banu suzco mihi bat, oi kharra phitz baledi nere hitce-tarie, eguia horren sinhex-arazteco munde guciari, bihotz guciac çure-ga-

nateco amodioz su khalda batean beçala laudezkentçat. Yainco gúciz ona! eguidaçu ceronec, çure urricalteapen handiaren bidez, duan gogocunde hunen obratceco, behar ditudan laguntça guciac. Halabiz.

*Yesusen Bihotçari, Sacramendu gucz Sainduaren aitcinean, eguiteco ohore bihurtceco ACTA.*

**O** I Yesus, Yainco bici denaren Semea! badakit bihotcean duçun amodioac gaindi eguinic, Ostia horren itchuren azpian yarri çarela; nere endelguz, hori nola eguin ahal duçun ecin har deçakedan arren, huna non den, ni baitan, gaichtaguin handienetarie bat, çure oinetan ahuspez emana, çure mayestate gucz handiari eguin çaikion damuen minez, hurrandua; hortaracotz eguiten daitçut eguin deçakedan becen ohore bihurtce oso bat, çure bicitce sainduac eta dolozco iragaitçac cirauteno, erakhuxi daitçuten laidoen aldera, bai eta guiconei dakharkeçun amodioaren seinale mirexgarri

hortan, Sacramendu Saindu adoragarrian, erakrusten daitçuten eskergabetasunaren aldera. Cerua eta lurra nere gaichtakerien lekhuco içatu diren beçala, içan beitçat hec berac lekhuco, nola minez eta damuz barnea çaurtua duan. Ochala nere beguiei odolezco nigarracbethi yoriatcen balaizcote, ceren erregue gucien artean den maitagarrienaren, eta bihotz amulxuenaren alderat, hain eskergaitz eta gaichtaguin içan bainaiz; hambat eta hunen bat maitatu nauçu non, guehienic aphaltazten cintudan dembora berean, cerkhakedan, bihotz beratchtasuna emendatuz baitçitçobatçun! O amodio ecin erran becen batezcoa! O amodiozco su khalda! nola, ô Yesus, guiçonac hainbertce maitatu ditutçun! Çu, nondic hec erregueren mahainera othuruntça alde guciz Yaincozco batetara bilduco cinituen, cinabiltçanean; çu ceroni hekiei bere yanharitçat, bethiereco dohaxutasunaren bahitçat ematen cinitçaitzanean; traidore gaichto hec, oinhace minenen eta laido sarcorrienen ondotic, heriotce ahalcagar-

rien bat çuri paira-araci beharrez çabiltçan. Eta guehiago dena, ô Yesus Yaincoa ! oraino urrunago hedatu da gure esker gabekeria ; berri berri-tan itçatu çaitugu gure bekhatuez Gurutceari ; çure sainduteguian, çure aldareen oinetan eguin ditugun hobenez, berriz burlatu, berriz laidostatu çaitugu. Barkhamendu eske nagotçu, Yauna, hainbertce comunione gaichtoz eta sacrileyioz, hainbertce escarnio eta escudentcia menderen mendetan ecin guehiagoki gaitcestece direnez ; barkhamendu çure etche sainduetan, hec munduco bertce cein nahi den etche baino guehiago laidostatuz ardura, çure alderat içatu ditugun hainbertce beguirun escasez ; barkhamendu, Yauna, ceren, çure onthasunaz eta dakharcuçun amodio handiaz orhoitu behar bidean, bihotçac gogortuac eta gogoac bertcetarat barraiatuac iduki baititugu. Çatozte, Yaungoicoaren ministroac ; bilçaitezte gure-ganat, Yaincoaren populua, Yau-naren Espos birriguinac ; nahasteca ditçagun, aldare saindu hunen oinetan,

elkharren nigarrac, eta ichur ditçagun  
 Yesusen Bihotçari eguin diotçagun  
 minen eta çaurien gainerat. Hel bei-  
 tetz ceruetaraino gure oihu saminac  
 eta auhenac; gaudecen bethi hax be-  
 herapenetan; Israelgo Salbaitçaileari  
 Bihotcean eman diote herio colpea,  
 gucien gainetic maitatu behar çutenec  
 berec.

Ez, Yauna, ez, ez naiz guehiago  
 munduco descaxuen ondotic ibilico;  
 nere bozcario gucia, çure leguea-  
 ren beguiratcean, çure erranei yar-  
 raikitcean, çure behatcei behatcean,  
 çure Bihotz adoragarriari yosiric egoi-  
 tean içanen da. Horri emaiten, horri  
 conxeratcen natçayo, naicen gucia,  
 adora eta maita deçadan amoreac-ga-  
 tic, mundu huntan eta bertcean; eta  
 horren bidez, bihur deçodan çure Ai-  
 tari çor diodan ohore gucia.

*Goiz guciez Yesusen Bihotz Sacratuari  
 norc bere buruaz equiteco emaitça  
 osoaren Moldea.*

**N**ERE Yesusen Bihotz adoragarria!

Ala mundura yaustearekin, amulxuki erran baitcinioen çure ceruco Aitari : *O nere Aita, huna non nagon çure borondate sainduaren equitera.* Ochala! hain eguiaz eta cinez erran ahal baneçaçu nic orai hori bera, egun hunen hastetic beretic ! Bai, Yaincozco bihotça, huna non duçun nere, emaiten dautçut oso osoa, ez dut hemendic aiticina, maitatuco çuc maite duçunic baicen, ez nahico çuc nahi duçunic baicen, ez eguinen çuc manatcen duçunic baicen. Ochala! behin bethicotz eguiten dautçudan emaitça oso, botu khonduco hau, ez baneça nihoiz den gutiena haux, ez egun, ez nere bicitce gucian !

*Egun bacotchac diraueno Yesusen Bihotç Sacratuari gureac yosteco othoitz molde batçu.*

**O**I Yesusen Yaincozco Bihotça ! adoraten çaitut eta maitatcen : hel çakizkit nere bicitcearen oren çathi chumeguciez, eta bereciki nere azken haxean.



Oi Yesusen Bihotça! bethi guretçat sutan çaudena, eçar daizkigutçu gu-reac sutan çuretçat: Oi Yesus! Bihotz ezti amulxua, eguiçu bethi gure bihot-  
cec çurea diduriten.

*Yesusen Bihotz Sacratuari gau guciez  
eguiteco ohore bihurtcearen moldea.*

**O**i nere Yesusen Bihotz adoragarria! cembat aldiz egun ez çaituzte gaichta-  
guinen dardoec berritan cilhatu? cem-  
bat colpe neronec ez daitçut hedatu?  
nere beguiez ikhusico dut mundu hu-  
nen azken orduan, colpatu duan bi-  
hotz adoragarri hori. Ochala baldin  
egun huntan, ikhus ahal baneça, ur-  
riki bera nukelariç! Çuc çure hobian  
hartu cinduen faceguaren batasunean,  
hartcera nohan gaurco lo hau, ofrit-  
cen darotçut, oi Bihotz guciz Yaincoz-  
coa! Lo huntan dakuskit nere heriot-  
cea, bai nere hobian sartcea; eta bala,  
egun çure mayestate adoragarriari nic  
neronec, eta bertee nor nahidenec  
eguin daizkitçugun laidoen aldera, eta  
ohore bihurtceco, beitez nere bicit-  
cea, eta nere heriotcea.

## HAX-GORAPEN DEBOTAC

*Comunione ondocotçat, eta noiz nahi denecotz.*

**E**NE Yesus ezta, egundainotic ekharri darotaçun amodioa gatic, eguidaçu gracia maita çaitçadan nere bicitce gucian, ceruan amodioa amodioarentçat bihur dieçadaçuntçat.

O ene Yauna, ene Yaincoa, eta ene Aita! nola ecin bainaiteke çu gabe, eta hala ecin duket deusen nahiric, eta ecin deusic obra deçaket çu gabe; nola çuc sustengatcen baitituçu ene içaitea eta ene sustantcia, sustenga çaitçu halaber eta bethe ene penxamenduac, eta ene obra guciac, ez deçadantçat asma, ez erran, ez deus ere eguin çure arabera baicen.

O Yaincoa, amodiozco eta onthasunezco Yaincoa! eguidaçu dohaina çu ceronen amodioa gatic çuretçat bici nadin, çure-ganic eta çure baithan bici naicenaz gueroz.

Ene Salbatçaile maitea, çu çure Ai-

tarena çaren beçala, eguin naçaçu ni ere gucia çurea.

Ene Yauna eta ene Yaincoa, cer desira ahat;deçaket çutaz campoan?

Yesus, ceruco eta lurreco amodioa, noiz içanen naiz osoki gucia çurea, çu çure Aitarena çaren beçala?

Aita urricalmenduxua! eguin naçaçu çure Semeac merecitcen duen beçalacoa, eta çure Izpiritu-Sainduac nahi duen beçalacoa.

Ene biciaren Yaincoa, noiz hilen naiz nere baithan, osoki çure baithan biciteco?

Ene Yaincoa, har naçaçu ceronec, ez dakidanaz.gueroz nola eman behar natçaitçun.

Ene Yaincoa, baldin guerthatcen baçait deus ere nahi içaterat çu baicic, orai beretic ukho eguiten diotet; goraki aithortcen dut ez dudala deus ere irabazteco ez galtceco çure ondoan.

O ene arimaco Yaincoa! ez deçaçula utz guehiago içan eta bici nadin, çurea ez içatecotz, çurea naicen beçala, eta çutaz bici naicen beçala.

Ez dut nahi beguiric çuri beguirat-

ceco baicic, ez beharriric çure aditceco baicic, ez mihiric çutaz mintçatceco baicic, ez bihotcic çure maitatceco baicic, ez escurunerice çure cerbitçatceco baicic, ez oinic çure bilhatceco baicic, ez gorphutcic çuri escaintceco baicic, ez biciric çuri sacrificatceco baicic.

Amodiozco Yaincoa, indaçü caritatea; Yainco guiçon eguina, indaçü humiltasuna.

Yainco gucia izpiritua, indaçü garbitasuna.

Ahaltasun neurri-gabea, borthitzçaçu ene flakecia; çuhurtcia eternala, argui çaitçu ene ilhumbeac; onthasun pare gabea, barkha dietçakidatçu ene maleciac.

Onthasun neurri-gabea, berandu eçagutu çaitut; onthasun pare gabea, berandu maitatu çaitut.

Çu maite ez çaituenac, cer maitatcen du? çu miresten ez çaituenac, cer miresten du?

Maitatu nahi naiz, ez nere gatic, bainan bai ceren çurea naicen; içanen dut artha nere presunaz, ceren çue nahi

duçun, eta ceren çuc manatcen dautacun.

Dohaxuago estimatcen naiz çure dohaxutasunean, eceu ez dohacabe ene dohain-gabea; çure içateac emaiten dautan bozcarioac, hainitz garhaitcen du ene içateac emaiten dautan escasa. Ene Yaincoa, içan çaitte beraz bethi çarena, eta nitaz eguiçu naicen ez bertce bat.

Çuri eta çure baithan, çutaz eta çuretçat ditzen, ene Yaincoa, gauça guciac.

Adela çacu mundua placer duçun beçala; eguiçu nitaz eta çure creatura guciez, placer duçun gucia; altcha çacu, beheara çacu, eri çacu, senda çacu, gastiga çacu, onhex çacu. İçan çaitte nahi duçun beçalacoa Aingueruaren eta guiconen alderat, ceruan, lurrean, ixasoan, demboran, eta eternitatean, eta lekhu gucietan; eta bethi aithortuco dut çure probidentia dibinoa, eta bethi çure borondatean egonen naiz, ene arimaren paradisuan beçala, atchikitcen dudala gucien alderat, eta gucien contra,

eguia segur hori : ecin eguin deçake-  
çula nic nahi duana baicen, ceren  
nahi baititut çuc eguiten ditutçun gu-  
ciac.

GUIÇONAREN LAU AZKEN FINAC.

**G**UIÇONAREN lau azken finac dire : He-  
riotcea, Yuyamendua, Parabisua, eta  
Ifernua. Ez da bide seguragoric gui-  
ristinobat bere salbamenduaren egui-  
teco eguinbidetarat erakhartceco, ho-  
rietan maiz penxatcea baino. Iracur-  
çaçu afal ondo guciez aldian penxa-  
mendu horietaric bat çure familia gu-  
ciaren artean, eta erabil gogoan aha-  
lic guehiena. Penxamendu sainduac,  
den gutiena izpirituan sartcen badire,  
han guelditcen dire, eta ciguiloac ez-  
coaren gainean eguiten duen beçala it-  
churapen handi bat eguiten dute.

*Lehembicico Penxamendua.*

HERIOTCEAZ.

1. Guiristino guisa bici ez den gui-  
ristino batec herioaren beldur iça-  
teco du. Helas! cer khondu bihur

bicitce mundutar baten ondoan, bere guticia gaichtoen eta bere pasio-  
neen arabera bici icatu ondoan? Cer  
dolore ez du behar ican halacoac, bere  
salbamenduaren eguiteco icatu dituen  
moyanez ez baliatu icateaz, eta hetaz  
eguin duen mesprecioez Yaincoaren  
exai hiltceaz! Oi, heriotcearen dor-  
phea! ô ordu tristea, demboraco axe-  
guinac akhabatcen dituen, eta eterni-  
tateco pena latzgarriac hasten dituen!

2. Cer nahi guinuke eguin icatu he-  
riotceco orenean garenean? Eguin de-  
çagun beraz orai orduan eguina causitu  
nahi guinukena. Ez da demboraric galt-  
ceco; memento bakhotcha ahal diteke  
gure biciaren azkeneco ordua: cem-  
batenaz guehiago bici icatu baitgare,  
hambatenaz gare thombarat hurbi-  
lago.

3. Cer yuyamendu eguinen dugu  
lurreco ontasunez, utci beharco di-  
tugunean? Har deçagun orai conseilu  
herioa ganic; hura leiala da, ez gaitu  
enganatuco. Certaraco othe dire or-  
duan munduco axeguina, ohore, eder-  
tasun, urhe eta cilhar hec? Cer yuyat-

cen da heriotcean hetaz? Bician he-  
kien lillurac enganatcen gaitu, bainan  
heriotcean gauçac diren beçala ikhus-  
ten dire.

Guiçon biciac mundua preçatcen  
du, bainan hiltcerat dohanac mespre-  
çatcen du. Cein sinhexi behar dugu?  
Guiçon bicia, ala hiltcerat dohana? Ala  
mundua deus guti idurituco baitçaitcu,  
heriotceco orenean arguituco gaituen  
arguiaren bichtan! Bainan, *helas!* ez  
dugu içanen demboraric gure engana-  
menduen çucen bidatceco.

Penxa çaçü orai, berehala hil behar  
bacinu, cerc eman lieçaçuken beldur-  
tasunic handiena. Emaçu beraz orai  
danic berehala behar den herronca,  
eta usa çaute egun danic obra bakhot-  
charen eguiten, hura eguin eta bere-  
hala hil behar bacinu beçala.

Menturaz herioa urhax batean dut,  
guiristino batentçat ez da biharamu-  
nic.

*Bigarren Penxamendua.*

AZKEN YUDICIOAZ.

1. Egun batez Yesu-Christoren tri-



bunalaren aitcinean aguertu behar naiz eguin duan onguiaren edo gaizkiaren arabera yuyatua icateco : ez da Ebanyelioan eguia arguiagoric hori baino. Sinhesten dut eguia hori hain gogorki, nola hilen atcartceco trompeta yotcen yadanic aditu banu.

2. Helas! cer erranen dugu, hambat penxamendu gaichto, eta hambat obra gaichto, eta hambat gracia mespreçatu gure beguien aitcinean ikhusien ditugunean? O egunaren latzgarria, Yaunaren haserreduraren eguna, ceinetan khondatuac icanen baitire hax hartceric mendreenetarainocoac! Yustuac berac ere nekhez yustutçat aguertuco dire; helas! cer icanen da beraz bekhatoreez?

3. Cer sententciaren ustea ahal duke Yainco khechatu baten ganic, bekhatoros penitentciaric eguin ez duen bateg! O arrasta erdiragarria!

Çoazte, madaricatuac, seculacotz sutarat, ceina baitago aphaindua debruarentçat, eta haren aingueruentçat. Eta, Yauna, noraco dire çure madaricionea eman dioçuten dohacabe

hec? Norat nahi duçu yuan ditecen çure-ganic urruntcen direla? Non causi ahal diteke hain lekhu gaichtoric? Yaincoaren aitecnetic desterratua içaittea, Yaincoaz madaricatua içaittea, ah! çorioaren ecin-jasana!

Itchura çaçü orai çarela Yesu-Christoren tribunalaren aitecnean, eta iracur çaçü, eta penxa ongui cerc eman lieçaçuken ahalgueric handiena, eta orhoit çaitte yuyamenduco egunean bekhatuic gordeenac aguerian ikhusico direla, baldin hemen penitentciaz urratcen ez baitutçu.

Helas! nore ihardukico dio Yainco hasarratuaren beitharteari?

Çori gaitça dago bicitceric erreguelatuenarentçat eta onhestenarentçat, baldin, ene Yaincoa, çure misericordia gabe içaten bada yuyatua.

### *Hirurgarren Penxamendua.*

#### PARABISUAZ.

1. Parabisua, oi hitçaren aberaxa eta handia! Parabisua erraiten duenac erraiten du gaitz gucien desterrua, ontasun gucien bilduma, Yaincoaren

ahaltasunaren obraric handiena, Yesu-Christoren odolaren saria, guiconaren guticien bethetce osoa : eta oraino horiec guciac baino infinituki guehiago da Parabisua.

2. Yaincoa clarki ikhus bere lorian den beçala, Yaincoa maita neurriric gabe, Yaincoaz goça, secular galtceco beldurric gabe içan dohaxu Yaincoaren dohaxutasunaz beraz, horra norat beha dauden ene esperantça guciac. Ah! ene desterruco egunac laburtu dire, eta sarri bethicotz içanen naiz ene bihotçac maite duenarekin.

3. Cer achola da nola nahi garen hemen lurrean, baldin Yesusekin eta Mariarekin bagare eternitatean? Cer arraçoin dugu erreneurateco, baldin bethiereco dohaxutasun bat pena aphur bat gostatcen baçaicu? Martirec bere odolaren saritan erosi dute cerua, eta hala ere iduritecn citçayoten dohainic çutela. Ah! eternitate dohaxua, balakite guiconec estimatcen hire baliua.

Enxeya çaitte çure baithan Yaincoaren ikhusteco nahi handi baten ukhai-

terat, eta ceruari behatuz, lurrari higuintçarekin beguira dioçocu. Baldin Parabisuaren penxamenduaz bethea bacine, etcineçake munduan causi deus ere merecimenduric duenic, ez hain guti çure espantitceco denic.

Helas! ene bihotça ez da osoki bethea içanen, ene Yaincoa bere lorian ikhus deçakedan artean.

Baldin Parabisuaren irabazteco nekheac icitcen baçaitu, susta çaitçan sariaren esperantçac.

*Laugarren Penxamendua.*

IFERNUAZ.

1. Ala baiguinuke higuintça handia Ifernuarentçat, baldin aditcen baguinitu damnatuen deihadar saminac! Bestia errabiatuac beçala, marrascaz daude, su eta kharren erdian; bere bekhatuez accusatcen dire, nigarretan daude; bainan berandu çayote, hekien nigarrac etçaizte cerbitçatcen hec erretcen dituen suaren handitceco bainen. Ah! damnatuen penitentcia, ala hire gogorra! damnatuen penitentcia, ala hire gogorra! damnatuen penitent-

cia, ala hire gogorra! bainan probet-  
chu gabecoa!

2. Seculan Yaincoa ecin ikhus, bethi  
su batean erre behar, eta halaco suan  
non gure sua ez baita haren itçala  
baicen; oinhace suerte guciac han pai-  
ratu behar, conxolacione eta pausuric  
batere gabe, bethi debruac beguien  
bichtan, bethi bihotça errabiamen-  
duan eta desesperacionean. Ah! bicia-  
ren dohacabea!

3. Dohacabe hec errabiamenduan  
dire, bere salbamenduaren eguiteco  
hambat occasione on içan ondoan, hec  
galterat uzteaz. Munduan hartu dituz-  
ten placeren orhoitçapenac eguiten  
du hekien penaric handienetaric bat;  
bainan ez ditu deusec ere guehiago  
tormentatcen, Yaincoa bere faltaz gal-  
du dutelaco orhoitçapenac baino.

Yaux çaitte izpirituz ifernurat, eta  
galdeguioçute damnatuei cere harat  
aurthiki dituen, eta interroga çaitçu  
orai han cer estatutan diren, eta ikhas  
çaçu hekien ganic Yaincoaren beldur-  
tasunean bicitcen, eta ikhus çaçu cer  
periletan çaren.

Orai axeguin pean pulumpatuac bici çareten arimac, nola yakinen duçue bicitcen seculaco sutan eta lametan?

*Yaincoaren borondatearekin bat eguiteaz.*

Yaincoaren borondatearekin bat eguitea, bide labur bat da, gu berthute handi baterat altcharazteco, eta gure arima bake eta sosegu handi batean emaiteco. Guc munduan eguin ahal deçakegun obrarichandienetaric bat da, gure borondateari ukho eguinic Yaincoaren borondatearen eguitea. Ala baitu arima batec sosegu handia, gauça guciac Yaincoaren borondatetic hartcen dituenean; eta oraino hirur probetchu miragarri eguiten ditu. Lehembicicoa da, Yaincoac ikhusten duenean haren escu saindutic gauça guciac hartcen ditutçula, bortchatua beçala senditcen da çutaz artha handi baten hartcerat; erran nahi da, baduela artha çuri bere graciën emaiteco. Bigarrena da, ez dela deus ere Yaincoaren dohainei traba guehiago eguiten diotenic, gure nahi eta guticia makhurrac baino; eta noiz eta ere çure borondateari ukho eguiten baitioçu, estatutan çare ceruco benediccioneen errecibitceco. Hirugarrenean batasun horietan, çure bihotceco bake handi bat ardies-ten duçu. Conxidera çaçu bada Yaincoa

gure Aita dela, eta baduela gutaz artha bere umeez beçala, eta gure borondatea uzten dugunean haren cerbitçu sainduco, ez due-la seculan nahico deusetan ere engana-tuac içan gaitecen. Yesu-Christoc, çuhurra eta yakinxuna cen arren, eta hobenic ecin eguin deçakena, hala ere bethi Aitaren boron-datea eguin nahi çuen. Yak in çaçü ecin gaiz-ki eguin deçakeçula, Yaincoaren amorea gatic bertceren borondatea eguiten duçuno, eta bereciki çure baithan ahala duten pre-sunena, Yaincoa ofenxatua ez den gauça gu-cietan. Duçun bada hitzcuntça bat beçala, bethi erran :

Ene Yaincoa, eguin bedi çuc nahi duçun gucia, eta çuc placer duçun be-çala.

Edo Yondoni Pauloc beçala :

Ene Yaincoa, cer placer duçu eguin deçadan ?

Ene Yaincoa, çure-ganat uzten di-tut nere gorphutca, arima, ontasu-nac, ohoreac, bicia eta heriotcea : he-taz eguin deçaçuntçat dakiçun beçala, eta placer duçun beçala.

Erraçü oraino Dabitekin :

Ene Yaincoa, çurea naiz.

Eta bereciki erraçu Yesu-Christoc bere agonian erran dueua :

Aita, eguin bedi çure borondatea, eta ez enea.

Eta hala irakhaxi darotçu *Pater noster* rean ere :

Eguin bedi çure borondatea ceruan beçala lurtean ere.

---

### EXEMPLU

*Eder bat Guizon pobre batec Yaincoaren borondatearekin çuen batasunaren gainean.*

**B**ERTCE aldiz, Erroman cen Doctor theologal fama handitaco bat, ceina çortci urthe bethez egotu baitçitçayon othoitcez Yaincoari arren causi araz cioçon guizon bat, ceinac irakhax ahal cioçoken çein cen ceruco bideric laburrena. Egun batez, hainitz beroki bere othoitcean çagoelarie, entçun çuen boz bat erraiten cioela : *Oha Yondoni Petriren Elicara, eta athe sainduan causituco duñ hic bilhatcenducan guizona.* Yoaten da berehala



Doctor hori Elica hartarat, eta causit-  
cen du athe sainduan pobre escale bat,  
çauriz gucia bethea eta arropa tchar  
batçuec soinean; eta erraiten dio doc-  
torac: Yaincoac egun on diçula, adich-  
kidea.

Pobreac ihardesten dio: Yauna, ez  
dut gogoan egundaino egun gaichto-  
ric içaturic.

Doctorac erraiten dio: Adichkidea,  
desiratcen darotçut bicitce dohaxu bat.

Pobreac ihardesten dio: Yauna, ez  
naiz egundaino dohacabe içatu.

Doctorac oraino hobeki frogatcea ga-  
tic, erraiten dio: Adichkidea, Yaincoac  
diçula gracia çure nahicunde guciën  
compliteco.

Pobreac ihardesten dio: Yauna, ez  
dut errencuratcecoric, gauça guciac  
nere gogoara yiten çaikidanaz gueroz.

Doctorac erraiten dio: Adichkidea,  
nola bada ahal çaitzke horren doha-  
xu, estatu miserable hortan aguertcen  
çarenaz gueroz? Othoitz eguiten darot-  
çut, mintça çakizkit clarkiago nie  
galdeguin darozkitçudan gaucen gai-  
nean.

Pobreac ihardesten dio : Axeguin dut, Yauna, emanen darotçut satisfacione. Erran dantaçu egun ona desiratcen darotaçula; ihardexi darotçut ez dudala gogoan egundaino egun gaichtoric içaturic : ceren hainitz bainaiz content naicen estatuan, Yaincoac hala nahi içan duenaz gueroz; eta ene dohaxutasuna heldu da naicen condicionean content içaitetic, eta munduaz casuric ez eguitetic. Nic hidoizatcen ditut munduco intresac, ohoreac, axeguinaç eta placerac : hetan bere bihotçac emanac dituzten yendeac, fortuna onac alegueratcen ditu, eta fortuna gaichtoac tristatcen; baina nic neure nahiace ceruco Aitaren baitan emanac ditut, ceinaç gobernatcen baititu mundu huntan eguiten diren gauça guciac. Handic erraiten dut ez naicela egundaino dohacabe içatu, deus ere guerthatcen ez çaitanaz gueroz neure nahiaren arabera baicen. Baldin goseac ahitcen banau, Yaincoa laudatcen dut probidentcia guciaren Aita beçala; baldin hotçac, beroac, elhurrac eta cein nahi den dembora gaich-

toc aphurtcen banaute, orobat Yain-  
coa goosten dut : baldin mespreca-  
tua banaiz, onhesten dut haren Ma-  
yestate dibinoa, ceren segur bainaiz  
Yaincoaren nahitic edo permissionetic  
direla gauça guciac; eta harec eguiten  
dituen gauçac, ecin ditezkela onac bai-  
cen. Hargatic alegueraki hartcen  
ditut. Aita on baten ganic heldu dire-  
nac beçala; eta nola ez baitut deus  
nahi harec nahi duena baicen, han-  
die erraiten dut etçaitala deus ere guer-  
thatcen neure nahiaren arabera bai-  
cen. Segur naiz mundu hunetaco do-  
haxutasuna dagoela gure borondatea  
Yaincoaren borondatearekin batat-  
cean; eeen haren borondatea ecin di-  
teke ona eta çucena baicen, eta gauça  
guciac eguin detçake guc deusic ecin  
deçakegun lekhan. Hargatic ez dut  
bertce istudioric eguiten Yaincoaren  
borondatearekin bat eguitecoric bai-  
cen; eta ez dut bertce artharic harec  
placerduen gucia bihotz osoz nahi iça-  
teco baicen : eta manera hortan, ecin  
naiteke dohacabe; harec nahi duena,  
nic ere nahi dudanz gueroz; eta ha-

rec nahi ez duena, nic ere nahi ez du-  
danaz gueroz.

Doctorac erraiten dio : Adichkidea,  
çuc erran darozkidatçun gauça horiec,  
guciac onac dire; bainan çure ber-  
thute guciarekin, erradaçu, othoi, cer-  
eguin cineçaken baldin Yaincoac dam-  
natu nahi bacinitu ?

Pobreacihardesten dio : Yakin çaçü,  
Yauna, baitudala bi beso choil indar  
handitacoac : bat da humiltasuna, cei-  
narekin osoki aphaudu bainatçayo  
Yaincoari ; eta bertcea da caritate bero  
bat, ceinaz maitatcen baitut Yaincoa  
neure ahal guciatz : eta baldin damnatu  
nahi banindu, bi beso hetaz besarca  
neçake ; eta hain yunt atchic neçake,  
non yoan ninteken lekhu guciatarat  
neurekin eramán baineçake ; eta non  
nahi den nahiago nuke içan Yaincoare-  
kin, ecen ez parabisuan Yaincoa gabe.

Doctor theologo hori espantitcen da  
guiçon pobre horren erreputaz, eta  
asmatcen du hura dela hari ceruco bi-  
deric laburrena irakhaxi behar dioen  
guiçona ; eta oraino hobeki nahiz içan  
arguitua doctrina eder hartaz, erraiten

dio Doctorac : Eta, adichkidea, nondie ethorri çare lekhu hunetarat?

Pobreac ihardesten dio : Yauna hel-  
du nahiz Yaincoa ganic.

Doctorac erraiten dio : Non causitu  
duçu Yaincoa?

Pobreac ihardesten dio : Aurkhitu  
dut creaturac utci ditudanean.

Doctorac erraiten dio : Eta non utci  
duçu Yaincoa?

Pobreac ihardesten dio : Utcu dut bi-  
hotçac garbi eta borondate ona duten  
yendeetan; hura da Yaincoari lakhet-  
cen çayon lekhu, eta harrec on-hart-  
cen duen egoitça.

Doctorac erraiten dio : Oraino, adich-  
kidea, erradaçu, othoi, nor çaren çu?

Pobreac ihardesten dio : Nor nahi  
den naicen, Yauna, hain content naiz  
neure condicioneaz, non ez baineçake  
khambia munduco erreguerie puchan-  
tenarekin; bere buruari ongui manat-  
cen dakienna da Erregue.

Doctorac erraiten dio : Eta non da  
çure erresuma?

Pobreac ihardesten dio : Cerua da  
ene erresuma, bai eta ene ariman ere,

eeinetan idukitcen baititut neure passioneac azpian, arraçoinari obeditcen diotela, eta arraçoinac Yaincoari.

Doctoracazkenean erraiten dio : Eta nola ethorri çare perfeccione horretarat, eta non ikhasi ditutçu gauça horieç guciac?

Pobreac ihardesten dio : Yauna, ethorri naiz guçonen erasiei ihes eguinez, eta Yaincoari othoitcez egonez. Ene artharic handiena da neure buruari bortcha eguitea, Yaincoaren borondatearekin enearen yuntatceco, eta Yaincoaren borondatearekin duan batasun horretan ikhasi ditut gauça horieç guciac.

---

## ARIMAREN COMBERXIONEA

### YAINCOA GANAT.

**A**LTCHA-HADI, ene arima, altcha-hadi, eta atçar hadi hire salbamenduaz penxatcerat; ez deçacala memento bat ere guehiago luça hire comberxionea. Iragan dembora yoana duc; ethorkiçuna ez duc hire escuan edo hire pod-

rean; ez duc presenteco dembora bai-  
 cic hireric, eta hura ez duc memento  
 bat baicic, ceina emana baitçaic  
 Yaincoaren cerbitçuan emplegatceco,  
 eta eternitate dohaxuaren ardiesteco.  
 Asma çac ungui hitz haukien indarra,  
*Yainco bat, memento bat, eta eternitate*  
*bat.* Yainco bat ceina beguira baitago;  
 memento bat ceina espacatcen bait-  
 çaic; eternitate bat ceina hire beguira  
 baitago. Yainco bat, ceinarena baita  
 gracia; memento bat ceina ez baita  
 deus; eternitate bat ceinetan içanen  
 baihaiz bethiereco ifernuco pena latz-  
 garri eta dorpheetan, edo bethiereco  
 dohaxu Yaincoaren compainian. Yain-  
 co hura hain guti cerbitçatua duyana;  
 memento hura ceina hain gaizki em-  
 plegatcen baituc; eternitate hain ba-  
 liotasun handitaco hura, cein yokhat-  
 cen baituc, eta irriscu handian emai-  
 ten. O Yaincoa! ô mementoa! ô eter-  
 nitatea! O ene Yaincoa! ene bihotça  
 beguira dagotçu, ene bihotçac desirat-  
 cen çaitu, ene bihotçac bilhatcen çai-  
 tu, den gucia çuri emaiteco, çuri oso-  
 ki obeditceco, eta gucia çutaz bethet-

186 PREDICUAREN AITCINEAN OTHOITÇA.

ceco. Othoitz eguiten darotçut, ene Yaincoa, osoki nausi çadin ene bihotçaz; eta urrun deçaçun handic seculacotz bekhatua, bai eta halaber creaturentçat eta neuretçat duan amodio nahasia; cerbitça çaitçadantçat memento guciez hain çucenki, non mereci ahal baiteçaket bethiereco dohaxutasuna.

---

*Orenac yolcean erraçû :*

**B**ENEDICATUA dela menderen mende gucietan Yesu-Christo gure Erostailearen Incarnacioneco orena. *Laudate Dominum, omnes gentes, etc.*

---

*Predicuaeren aitcinean equiteco*  
OTHOITÇA.

**Y**ESUS, ene Salbatçailea, guri çure Aitaren borondatearen eta gure salbamenduaren bidearen erakhusterat mundurat ethorri çarena : huna non heldu naicen çure hitz sainduaren aditcerat : ordean predicu guciac alferretan içanen dire, Yauna, baldin



eeronec gure bihotçac muguitcen ez baitutçu. Idec çaitçu beraz ene bihotçaren beharriac, çure hitz sainduaren sartceco, errecibitceeo, eta probetchu handi baten eguiteco; eta emoçu Predicari horri çure izpiritua, eta horren hitcei çure goço saindua horren eta gure saindutceco.

---

*Predicu ondoan.*

**Y**ESU-CHRISTO, ene Yauna, nere esker humilac bihurteen darozkitçui, ceren haci nauçun çure hitz sainduaren oguiaz; othoitz eguiten darotçut, Yauna, eguin dieçadaçun gracia doctrina saindu huntaz probetchu eguiteco, eta çure manamendu sainduac osoki eta bihotz onez compliteco.

---

*Nihor penetan denean cerbait eguiteco, ez yakinez nola eguin, Yaincoari eguiteco OTHOITÇA.*

**E**NE Yaincoa conxeila naçaçu; çure arguiac ene ganat heda çaitçu, eta çure

çuhurtciaren cembait seinalez ene ari-  
 mari cer eguin behar duen ocacione  
 huntan irakhax dioçoçu. Bida çaitçu,  
 Yauna, ceronec ene pausuac, çure  
 borondatetic urrun errebela ez na-  
 dintçat. Conxeilu hainitz causitcen  
 dut, çuhurtcia eternala, bainan ene  
 pena da çurea ecin yakina; eçagut-  
 araz dieçadaçu, ene ez-yakina çure  
 escuaz laguntcen duçula, çure conxei-  
 lurat erortcera, eta finçatcera, çuchau-  
 taracico derautaçunaren eguiteco. Ba-  
 dakit ez dudala deus ere eguinen çu-  
 hurki eta dohaxuki, baicen çure çu-  
 hurtciaren arguiec ene gainean disti-  
 ratcen dutenean, eta nere ilhumbetan  
 bidatcen nautenean.

---

*Emazte haur esperantçetan direnec  
 egun guciez eguin behar duten  
 OTHOITÇA.*

**E**NE Yainco Yauna, ceruaren eta lur-  
 raren Creatçailea, ceinac gauca guciac  
 adelatcen baititutçu placer duçun be-  
 çala, nahi içatu duçunaz gueroz gutaz

cerbitçatu haur chumeen mundurat  
emaiteco, ceinac egun batez behar  
baitire içan gai çure cerbitçateco,  
çure ohoratceco, eta çure maitatce-  
co; eguidaçu gracia, Yauna, nere ne-  
keen eta oinhaceen ongui sofritceco;  
borondate onez errecibitcen ditut, eta  
othoizten çaitut nere bihotz guciaz,  
yunta dietçakidatçun çuc enegatic çure  
pasionean eta heriotcean pairatu ditut-  
çun pena eta doloreekin. Escaintcen  
natçaitçu nere fruituarekin batean;  
eta eguidaçu gracia bathayorat segur-  
ki ekhartceco eta bere bicitce gucian  
çure manamenduei obedient içateco.  
Entçun çaçu bada, Yainco ona, ene  
othoitça, eta har gaitçatçu haurra eta  
Ama çure gomendioan. Biryina Sain-  
dua, Ama gucien ohorea eta conxola-  
cionea, urrical bekiçu ama gaicho hau,  
ceinaren nahia baita çure Seme mai-  
teari cerbitçari baten emaitea. Espe-  
rantça dut halaber içanen dela çure  
cerbitçaria ere; ecen orai danic es-  
caintcen darotçut, eta çaitut othoiz-  
ten beguira gaitçatçun çorigaitz gucie-  
taric, eta nahi dut ethorkiçunean çure

borondatea ičan dadin ene bicia eta ene obra gucien bidatcea. Halabiz.

---

### YONDONI LEON,

*Aphezpicu eta Martir, Bayonaco Patroi-  
nari, Emazte haur esperantcetan di-  
renen OTHOITÇA.*

**S**AN LEON, Saindu handia, gure arbasoen Apostolu ičan çaren beçala, orai ere (heyen fedetic mendratuac garen arren) Yainco guciz misericordiosa-ganic ardiesten darozkigutçun laguntça handien ariaz, gure Apostolu içatetic guelditu ez çarena : çure arartecotasun botherexurat dut laster, nahiz enetçat, nahiz dakharkedan fruituarentçat; ičan deçantçat mundurat uruski eman dukedan ondoan, bathayoco ur sainduan, graciariat berriz sortceco çoriona. Çure othoiteez eguiçu, gure lehen burhasoen crima dela causa, emaztekiac erditcean yasaterat condenatuac ičan garen oinhaceac eta penac, ičan dakizkidan arinduac eta laburtuac. Orai-danic hec guciac ofritcen

darozkitçut Yesu - Christo gure Yau-  
nari hel-arazteco, bere pasionean eta  
gurutçearen gainean berac yasan di-  
tuenekin bat eguiteco; balia dakiski-  
dantçat, arren, ene bekhatuen bar-  
khamendutan, eta ene haur hunen sal-  
bamendutan. Çure proteccionearen  
azpian ematen dut, nerekin batean;  
eta errekeritcen çaitut Yaincoa-ganic  
batari eta bertçeari ardiesteaz, haren  
manamenduen arabera bicitceco, eta  
çuc predicatu darocuçun fedearen ma-  
nuac haltoki aguertceco eta gure bai-  
than eçagut-arazteco gracia, finean  
hel gaiteçentçat bicitce eternalerat.

Halabiz.

---

*Burhasoec bere umeen bicitce ona Yain-  
coari galdeguiteco OTHOITÇA.*

**Y**AINCO misericordiosa, ceinac entçu-  
ten baitituteu bere nahicabetan çure  
baithan choilki bere esperantçac emai-  
ten dituztenen othoitçac, beguira dio-  
çoçu ene umeen bicitce gaichtoari;  
ez, Yauna, hekien puniteeco, bai-

## 192 BURHASOEN OTHOITÇA HAURRENTÇAT

nan bai heyiei barkhatceco, eta hec çure bide chuchenean emaiteco. Yainco ona, eguiocute gracia bere damnacioneco estatu tristearen eçagutceco; baldin penitenciaz çure-ganat combertitcen ez badire, ez çaitecela, Yauna, orhoit nic eman ahal içatu diotçotedan exemplu gaichtoez, eta hec bere bicimolde gaichtoan ez correitceaz eguin duan faltaz, eta hekien contra eguin ahal dituzkedan madaricioneez. Othoizten dut humilki çure Mayestate dibinoa, barkha dietçakigun gure falta guciac heyiei eta niri. Conxola çaçü, Yauna, burhaso axecabetu hau hekien comberxione lasterraz, ceinac eguiten baitarotçu santa Monicac bere seme Augustinez eguiten cerautçun othoitz bera. Bethe çaçü, Yauna, ceronec ene othoitcean causitcen den escasa; othoitz hau onhex dakiçuntçat othoizten çaitut saindu horien arartecotasunez, eta Biryina Sainduarenaz, eta çure Seme maitearen pasionearen eta heriotcearen merecimenduez; cerua aleguera dadiçat hekien bicitcearen khambiantçaz, heyec eta nic eskerrac bihur diet-

çakitçugun , eta cerbitça çaitçagun fidelki , çure loriaz goça gaitezken artean.

*Bidayetan dabiltçan presunec eguiteco*  
 OTHOITÇA.

**O** YESUS ona! çure pasione sainduco pena eta merecimenduez urrical nakiçu, eta çure çauri sainduen amoreagatic, bekhatuac ene arimari eguin diotçan çauriac senda dietçakidatçu. Yauna, damu dut ceren çu beçalaco Yainco on bat ofenxatu duan; nahi nuke nere bihotz osoz egundeino bekhatuac eguin ez banu. Khen çaçü, Yauna, ene icena çure liburu yustu mendecuzcoan, eta iskiriba neçaçu çure misericordiazco bicitcearen liburuan. Garbi dieçadaçu ene arima çure odolpreciatuaz; phitz çaçü hil hau, argui çaçü ixi hau, eta chuchen çaçü errebelatu hau; eta çure gracia handiaz sagora naçaçu, içan ez deçakedan beçala bertce nahicunderic çure maitatececoric, eta çure cerbitçatececoric bainen. Beguira neçaçu heriotce supitu-

tic, eta bertce axecabe gaichtoetaric. Ene Salbatçaile maitea, eguidaçu gracia cofesione on bat eguinic, eta çure gorphutz preciatua disposicione saindu batean errecibituric, heriotce on baten eguiteco. Halabiz.

---

*Ixasoan elementa denean Mariñelec gogotic chede on batekin eguiteco*  
**OTHOITÇA.**

**I**XASOCO içar ederra,  
 Mariñelen guidaria,  
 Arren eman dieçaguçu  
 Tormentan calma handia.

Lagun gaitçu, hel gaitecen  
 Portura, Ama emea,  
 Leihorrean dieçaguçu  
 Erakhux çure Semea.

*Erraçu guero : Sub tuum præsidium ; Salve , Regina ; Ave , maris stella ; eta Andredena Mariaren Lethaniac, p. 13.*

---

*Othoitça Cofesorarentçat.*

**E**SCAS ditudan graciaç çuri galdegui-



tean, ô ene Yaincoa, hain esker gabea  
 içan othe naiteke, non ahantcico bai-  
 tut, çure ministroen artean, ceronec  
 eman dautaçudana cofesortçat, Peni-  
 tentciaco sacramenduaren bidez çure-  
 kin baketceco. Bethe çoçu, othoizten  
 çaitut, Yauna, bere arima aphez sain-  
 duac eguiten dituzten berthute guciez.  
 Emoitçu Yondoni Petriren indarra,  
 Yondoni Pauloren caritatea, Charles  
 sainduaren kharra, san Augustinen  
 arguiac, san Crisostomeren fermutasu-  
 na, san Ambrosioren aingueruzco li-  
 bertatea, san Bernaten debocionea,  
 Dabiten penitenciazco izpiritua, san  
 Franxes Salesecoaren eztitasuna, Yon-  
 doni Bichintcho Paulocoaren humilita-  
 tea. Guida çatçu ceronec haren urhax  
 eta eguintça guciac, lurraren gainean  
 çure misterioen phartitçaile leyal eta  
 çuhur bat içan ondoan, errecibi deçan  
 amoreac gatic, çure ganic ceruetan,  
 aphez heyentçat daueaçun khoro dis-  
 tiranta, ceinen bici gucia içan baita  
 conxecratua Yaincoaren loriacotz, be-  
 re anaya arreben salbamenduco eta  
 bere buruen saindutceco. Halabiz.

*Amodiozco acta perfeta.*

**E**z, Yesus, ene bihotceco Yaincoa, ez da aguintcen dautacudan cerua, ni hoin biciki çure maitatcerat erakhartcen nauena, ez eta guçonac harritcen dituen hoin ifernu ikharagarriaz bekhatoreari eguiten dioçun mehatchua, ni çure manu guciz çucenei obeditcerat hoin leyal bihurtcen nauena. Ene bihotça amodioric garbienaren kharrez suhartua da, ikhusiz Gurutcearen gainean, çure haragui pairacorrean, çuc sofritcen duçun heriotce dorphea, laidoski mespreçatua, sarraskitua mila colpez, çauriz estalia!..... Ikhusgarri lazteco horren bichtan, iresten hari nauen amodiozco su garraz sustatua, ez balitz ere ceruric, oraino maita cinitçaket, eta ez balitz ere ifernuric, beguira neçake çure leguea. Ez dut nahi çu baicic bertce sariric çure maitatceco; eta ez banu ere idurikitcen çure ganic idurikitcen duana, bardin bethi maita neçake Yesus, ene Yauna, orai maitatcen duan beçala. Halabiz.

(*Santa Teresa.*)

*Othoitçac Andredena Mariari.*

**O**RHOIT çaitte, ô Biryina Maria, guciz ona eta urricalmenduxua ! ez dela egundaino aditu nihor çure-ganat ihes eguin duenic, çure laguntça gaidatu duenic, çure arartecotasuna bilhatu duenic, çutaz içan dela arbuiatua. Nic ere, fidantcia beraz gogoa sustatua, çure-ganat, ô Biryina, Biryinen Ama loriosa, laster eguiten dut, çuganat heldu naiz ; auhen minetan, ni bekhatorea, çure oinetarat erortcen naiz : ez deçaçula, ô Berboaren ama, ene othoitça arbuya, bainan adi çaçu fagorezki, eta entçun çaçu. Halabiz.

---

*Garbitasun sainduaren galdeguiteco  
maiz eguin behar duçun othoitça.*

**Ç**URE Biryinitate Sainduaz eta çure Concebicione notha gabecoaz, Biryina guciz garbia, garbi ditçatçu ene bihotça eta ene gorphutça.

Badire ehun egñnen indulgentciac othoitz hau eguiten den aldi gucietaco.

*San Yoseph handiari.*

**A**GUR Yoseph, graciaz bethea : Yesus eta Maria dira çurekin, benedicatua çare guïçonen artean, eta benedicatua da çure esposaren fruitua, Yesus. San Yoseph, Yesusen aita lekhucoa, eta Maria Biryina dohaxuaren esposa, othoitz eguiçu guretçat, orai eta gure heriotceco orenean. Halabiz.

*Aingueru Beguiraleari.*

**O** YAUNAREN Ainguerua ! ene beguirale fidela, ene Aita cerucoac çuri gomendatua naiz, beraz egun huntan (*edo* gau huntan), beguira, argui, bida eta cheda naçaçu, eta heriotceco orenean baliaçazkit.

*Norc bere iceneco Sainduari eta halaber  
Saindu guciei eguiteco*

OTHOITÇA.

**O** SAINDU gloriosa N., ceinaren icenaren ekhartceco ohorea baitut, ardiex

dieçadaçu Yaincoa-ganic gracia ez deçadan indignoki icen hori ekhar; eta oraino iduri guehiago ukhan deçadan çurekin çure berthuteen imitacionean ecen ez çure icenaren ekhartcean, çu bereciki hartcen çaitut nere biciaren exemplutçat. Eman çakizkit bada, othoi, bethi ene beguien aiticinean mirail argui bat beçala, ceinetan nere oguenac eta hux-arteac, ikhert baitetçaket çure perfeccionen ikhuscarian. Yaincoaren probidentciac nahi içatu duenaz gueroz egin deçadan guiristinotasunaren bethecundea çure icenaren azpian, çaren bada, othoi; be thierte ene ararteco, hala bician nola heriotcean.

Parabisuco Saindu eta Sainda guciac, ceinac goçatcen baitçarete, nic çuen arartecotasunaz eternitate gucian goçatu uste duan loriaz, balia çazkitet Yaincoaren aldean, ene ustantçac içan ez distentçat banoac eta probetchu gabecoac.

200 INDULGENTCIA PLENARIOA, ETC.

*Indulgentcia plenarioa eratchikia  
Othoitz huni.*

**H**UNA non naicen, ô Yesus ona eta guciz amulxua! çure aitcinean belhaunico emana. Othoizten çaitut eta arrakeritcen ene arimaco khar guciaz, ene bihotcean sar arraz dietçatçun fedezco, esperantçazco, eta caritatezco sentimenduric bicienac, ene bekhatuen eguiazco urrikia, eta hetaric guehiago ez eguiteco borondateric fermuena; izpirituz conxideratcen eta go-goan erabiltcen ditudan demboran, amodio bici eta dolore handi batekin, çure bortz çauri sacratuac; beguien aitcinean emanez, ô Yesus ona! Dabit profetac çutaz cioena: « Cilhatu dituzte  
« ene escuac eta ene oinac; khondatu  
« dituzte ene heçur guciac. »

Cofesaturic eta comuniaturic othoitz hau erraiten duenac gurutcefica baten aitcinean, bortz *Gure Aita* eta bortz *Agur Mariarekin*, irabaz deçake indulgentcia plenarioa, eta libra Purgatorietan den arima bat. (*Clem. VIII, Benoit XIV, Pio VII, Pio IX.*)

*Sacramendu Sainduaren*  
ADORACIONEA.

**L**AUDA çagun misterio handia,  
Yainco Yauna ostian estalia :  
Cuec Aingueruac, ceruco gorthea,  
Adora çaçue gure Erreguea.

Yainco guiçon, gure Salbatçailea,  
Mundu, ceru, gucien eguilea,  
Yaux çaute cerutic gure laguntcerat,  
Gure amulxuki benedicatcerat.

Amodio loria immortala,  
Trinitate Sainduac dituela :  
Ohore hirurec, batasun berean,  
Orai eta beñhi eternitatean.

---

*Gaudeac.*

**G**AUDE, Virgo Mater Christi,  
Quæ per Flamen concepisti,  
Gabriele nuntio.

Gaude, quia Deo plena,  
Peperisti sine pœnâ,  
Cum pudoris lilio.

Gaude Magos advenisse,  
Aurum, thus, myrrham tulisse

Tuo Unigenito.  
 Gaude Christo moriente,  
 Quia ipso triumphante,  
     Nostra fuit redemptio.  
 Gaude quia tui Nati,  
 Quem dolebas mortem pati,  
     Fulget resurrectio.  
 Gaude Christo ascendente,  
 Qui in cœlum, te vidente,  
     Motu fertur proprio.  
 Gaude quæ post ipsum scandis,  
 Et est honor tibi grandis,  
     In cœli palatio;  
 Ubi fructu ventris tui,  
 Per te nobis detur frui,  
     In perenni gaudio. Amen.

---

 NOELA.

**A**TÇAR gaiten, atçar lotaric.  
 Gau huntan da Yesus sortcen;  
 Amodioac garhaituric,  
 Gure-gatic da ethortcen. (*Berriz.*)  
 Gu cerurat nahiz alchatu,  
 Yesus yausten da lurrerat;  
 Heldu da gu nahiz salbatu,



Gorphutz hilcor bat hartcerat.  
Atçar, etc.

Ala haren laudorioac  
Behar baitugu cantatu!  
Ala gure bozcarioac  
Behar baitu seinalatu!  
Atçar, etc.

Bekhatua, munstro tristea,  
Hoa hire lece beltcerat;  
Ethorri due Yesus maitea,  
Hire obren urratcerat.  
Atçar, etc.

Cerc gaitu bada guibelatcen!  
Hel gaiten, hel Yesus gana;  
Bekhatoreen gatic da sortcen,  
Saindutasun bera dena.  
Atçar, etc.

Ikhus-garr<sup>e</sup> mirestecoa!  
Oi! hau da humiltasuna!  
Ceru beraz goragocoa  
Manyateran da emana.  
Atçar, etc.

Erreguen Erregue delaric,

Ez du nahi distiatu,  
 Ez du nahi palacioric;  
 Heya tchar bat du hautatu.  
 Atçar, etc.

Hotçaz ere da penatua  
 Sasoinen Manatçailea;  
 Guciez datça gabetua  
 Gucien Creatçailea.  
 Atçar, etc.

Bi bestia ditu laguntçat,  
 Horra Yesusen gorthea :  
 Lasto guti bat etçantçatçat!  
 Oi ! hau gauçaren dorphea.  
 Atçar, etc.

Exemplu miragarrienaz  
 Yesusec gaitu hertchatcen.  
 Amodioric kharxuenaz  
 Bere-gana gombidatcen.  
 Atçar, etc.

Amodioac du sustatcen ;  
 Haren bihotça guretçat :  
 Has gaiten, has haren maitatcen ;  
 Declara gaiten harentçat.  
 Atçar, etc. (*Hastean beçala.*)

*Stabat Mater escuaraz.*

**A**MA dolorez bethea,  
Cen nigarrez mainhatua,  
Gurutciaren oinetan.

Semea han icaturic,  
Odoletan hondaturic,  
Ikhusten çuenean.

Haren bihotz dolorosa,  
Triste malenconiosa,  
Trencaturic çagoen :

Seme bacotch haren penac,  
Ecin khonda ditezkenac,  
Cituela gogoan.

Ama haren bihotz mina,  
Hersturan khirax eguina  
Erran ahal daiteke !

Çagoela nigarretan,  
Dolorezco pena hetan,  
Ikhusiric Semea.

Nor licateke guçona,  
Ikhusiric Ama ona,  
Eta haren dolua !

Elegake nigarretan,  
Ikhusiric plainu hetan  
Amarekin Semea ?

Gu-gatic Salbatçailea,

Yainco Yaunac igorria,  
Ikhusi du cehatcen :

Gu-gatic bere Semea,  
Sabelean ekharria,  
Egun akhabatcean.

Oi, Ama, desolatua!  
Nigarretan mainhatua,  
Gurutciaren oinetan?

Oi, Ama desolatua!  
Çu-ganat bihurtua,  
Nigarretan nagoçu.

Yesus dudan bihotcean,  
Ni nadin haren gracion,  
Othoitz eguine eçaçu.

Çauri hoiec bihotcean  
Phartituric Gurutcean,  
Bitçadan nic eguiçu.

Seme Yaunaren penetan,  
Ni-gatic pairatu hetan,  
Partale eguin naçaçu.

Eguiçu nigar bedere,  
Deçadan nic bethiere,  
Bici naicen artean.

Plainuz egon nahi naçu  
Çurekin, placer baduçu,  
Gurutciaren aldean.

Biryinaric ederrena,

Andreetan guehiena,  
Othoi, maita naçaçu.

Curekin sacratuetan  
Dolorezco çaurietan,  
Othoi, gorde naçaçu.

Hec bihoteean sarturic,  
Amodioz sustaturic,  
Bici nadin munduan.

Cutaz nadin defendatu,  
Othoi, Ama gomendatu,  
Azken yuyamenduan.

Arren Yesus ikherturic,  
Gurutceaz libraturic,  
Dudan haren gracia.

Hartuz gueroz herioac,  
Othoi, arima, Yaincoac  
Deçon Parabisua. Halabiz.

ÿ. Ora pro nobis, Virgo dolorosis-  
sima :R). Ut digni...

*Oracionea.*

Interveniat pro nobis, quæsumus,  
Domine Jesu-Christe, nunc et in horâ  
mortis nostræ apud tuam clementiam,  
beata Virgo Maria Mater tua, cujus sa-  
cratissimam animam in horâ tuæ pas-

208. OTHOITÇA YESUS YAUNARI.

sionis doloris gladius petransivit. Qui vivis, etc.

---

OTHOITÇA YESUS YAUNARI.

**O**YESUSEN icen Saindua! icen distianta, çointaric fermuki sinhesten baitut dohala ene bicia, ene chede gucietaco eta ene heriotceco çoriona : Orai danic eguinen ditudan guciac, eguin nahi ditut oro çure arartecotasunaren azpian. Iratçarria banago, bethi YESUS içanen da ene beguien aintcinean ; lo-khartcen bainaiz, YESUSEC hexico derozki ene beguiac, eta ene loan ez dut bertce asmuric içanen baicen ere YESUS ; baldin banabila, YESUSEKIN ibilico naiz ; yarrria banago, YESUS içanen dut ene aldaketan ; istudiatcen badut, YESUS içanen da ene nausia ; izkiribatcen hari bainaiz, YESUSEC bida-tuco du ene luma, eta YESUSEC iskiri-batuco du YESUS ; othoitcean banago, YESUSEC sustatuco ditu ene hasperape-nac ; unhatua banaiz, YESUS içanen da ene descanaxua ; gose banaiz, YESUS

icanen da ene yanharia; egarri banaiz, YESUS icanen da ene edaria; eri banaiz, YESUS icanen da ene miricua eta ene sendagarria; hiltcen banaiz, hilen naiz YESUSEN besoetan; YESUSEC hexico ditu ene beguiac, YESUS icanen da ene hobia, YESUSEN, icena ene hobi gaineco iskiribua, eta bethi YESUSEZ goçatcea ene çorion bethierecoa!.... Halabiz.

---

## ARIMA YAINCOTIARREN

### YAINCOA GANATCO OIHUA.

**G**RACIA, ô ene Yaincoa, gracia! hain bertce arima, egun oroz gure inguruetan galtcen hari direnentçat. Satan bekhaiztua yauci da lece ikharagarrietaric, eta bere errabian arima irestendabila. Sustatcen ditu bere lagun icigarriac; oihuca dagocote : *arimac! arimac! gaiten guciac aira arimen galcera!* Eta arimac erortcen lire, uda azkenean hostoac beçala, ece eternalerat!

Eta gue ere halaber, ô ene Yaincoa,

oihu eguinen dugu : *arimac ! arimac ! arimac behar ditugu !* Galdatcen darozkitçugu, Yesus gure Salbatçailearen çaurien bidez. Çu gânat oihuz daude çauri adoragarri hec, diren becembat aho botherexu balire beçala. Calbarioco gainetic arrantcez khoroatu Erregueac epheric gabe galdeguiten daizkitçu aingueru errebel ixutuari aztaparretaric khendu diozcan arimac.... O ene Yaincoa ! Harekin batean eta haren bidez, galdatcen derautçugu, çure oinetan ahuspez emanic, gracia bera, çure gloriaren ice-nean, eta Biryina notharic gabecoaren arartecotasunaz. Halabiz.



**YESU-CHRISTO**  
 GURE SALBATÇAILEAREN  
**PASSIONEA**

SAN MATHEOREN ARABERA, CAP. 26, 27.

**Y**ESUSEC erran cioten bere dicipuluei :  
 † Badakiçue bi egunen buruan Bazco  
 eguinen dela, eta Guiconaren Semea  
 saldua içanen dela gurutcean itçatua  
 içan dadintçat. *c.* Orduan Aphecen ait-  
 cindariac eta populoço Çaharrac bildu  
 ciren Caiphaz deitzen cen Aphez han-  
 diaren salara, eta han deliberatu çu-  
 ten Yesus malçurki preso hartceco, eta  
 hil arazteco. Bainan cioten : *s.* Ez or-  
 dean bestac diraneino, populua asalda  
 ez dadintçat. *c.* Eta nola Yesus Betha-  
 nian Simon leprosaren etchean bait-  
 cen, emazte bat harat yoan citçayon  
 usain goço balios batez bethericaco  
 alabastrazco yarro batekin, eta hura

ichuri cioen buruaren gainerat, yarriric çagoen demboran. Dicipuluac hori ikhusiric bekhaiztu ciren, eta cioten : s. Cergatic horla hori galdu da? Ecen sal citeken haguitz garasti, horren balioa pobrei emateco. *c.* Yesusec hori yakinic, erran cioten : † Cergatic damu eguiten dioçue emazte huni? Hunec niri eguin darotana, obra on bat da; ecen bethi baituçue behardunac çuekin, bainan ni bethi ez nauçue içanen; eta baldin usain goço hori ene gainerat ichuri badu, ni ehorztecotçat eguin du. Eguia erraiten darotçuet : non ere predicatua içanen baita Ebanyelio hau mundu gucian, khondatuco da hunen orhoitçapenetan hunec orai eguin duena. *c.* Orduan hamabitari bat, Yudas Iscariotes deitcen cenna, yoan cen Aphez aintcindarietarat, eta erran cioten : s. Cer nahi darotaçue eman, eta escuetaratuco darotçuet? *c.* Eta hec hitz-eman ciotçaten hogoi eta hamar cilhar peça; eta gueroztic occasionearen bilha çabilan hura hekien escuetarat emateco. Eta Phazcoetaco lehembicico egunean, dicipuluac yoan

citçaizcon Yesusi, eta erran cioten : s.  
 Non nahi duçu aphain dieçaçugun  
 Pazcoa yateco behar dena ? s. Yesu-  
 sec ihardexi cioten : † Çoazte hirirat,  
 holacoarengana, eta erroçue : Nau-  
 siac gaztiatcen darotçu : Ene ordua  
 hurbil da, çure etcherat heldu naiz ene  
 dicipuluekin Pazco eguiterat. c. Dici-  
 puluec eguin çuten Yesusec manatu  
 ciotena, eta aphaindu cioten Pazco  
 eguiteco behar cena. Arraxa ethorri  
 cenean, mahainean eman cen bere  
 hamabi dicipuluekin. Eta yaten hari  
 cirela, erran cioten : † Eguia erraiten  
 darotçuet, çuetaric batec salduco nau.  
 c. Hitz hortaz guciac handizki trista-  
 turic, batbederac galdetcen cioten : s.  
 Ni othe naiz, Yauna ? c. Yesusec ihar-  
 dexi cioten : † Enekin escua gophor-  
 rera emaiten duenac salduco nau :  
 badoha bada Guiçonaren Semea, har-  
 taz errana den beçala ; bainan çori-  
 gaitz hainarentçat, ceintaz Guiçona-  
 ren Semea saldua içanen baita : ho-  
 be içanen cen harentçat, egundaino  
 sorthu ez balitz. c. Horren gainean Yu-  
 las harren traidoreac erran cioen :

s. Nausia, ni othe naiz hura? *c.* Ihardexi cioen : † Ceronec erran duçu. *c.* Eta afaiten hari cirela, Yesusec hartu çuen oguia, eta benedicatu ondoan, hauxi çuen eta eman cioten beredicipulei, erraiten ciotela : † Harçaque eta yan çaque, hau ene Gorphutça da. *c.* Eta khalitça harturic eta Yaincoari eskerrac bihurturic, eman cioten, cioçotela : † Edan çaque guciec huntaric : ecen hau ene Odola da Testament berricoa, ceina hainitcentçat ichuria içanen baita bekhatuen barkhamendutan. Erraiten darotçuet, ez dudala guehiago mahats arno huntaric edanen çuekin, ene Aitaren erresuman berri-tan çuekin edanen duan eguneraino. *c.* Guero othoitça erranic yoan ciren Olibetacomendira. Orduan Yesusec erran cioten : † Gau huntan guciec escandala nitaz içanen duçue ; ecen iskiribatua da : Yoco dut artçaina, eta arthaldeco ardiac barrayatuac içanen dire. Bainan phiztu naicen ondoan, çuec baino lehen Galilearat yoanen naiz. *c.* Piarresec erran cioen : s. Bertce gucientçat escandala bat bachine

ere, ez çare nihoiz enetçat hala içanen.  
*c.* Yesusec ihardexi cioen : † Eguiaz  
 erraiten darotçut, gau huntan berean,  
 oilarrac cantatuco duen baino lehen,  
 hiruretan nitaz ukhatuco duçu. *c.* Piar-  
 resec ihardexi cioen : *s.* Çurekin hil  
 behar banu ere, ez cintçaket ukha. *c.*  
 Eta gauça bera erran cioten bertce  
 dicipulu guciec ere. Yesus yoan cen  
 hekiekin Yethsemani deitcen cen lekhu  
 batera, eta erran cioten : † Çuec egon  
 çaitzte hemen, nic hanchet othoitz  
 eguin deçakedan artean. *c.* Piarres eta  
 Zebedeoren bi semeac berekin har-  
 turic, hasi cen tristatcen eta axecabet-  
 cen, eta erran ere cioten : † Khechu  
 da ene bihotça heriotcerainocoan :  
 çaudete hemen eta atçarriric enekin  
 batean. *c.* Eta hetaric urrunduche cen  
 ondoan, ahuspez eçarriric, othoitz  
 eguiten çuen, erraiten çuela : † Ene  
 Aita, ahal balin bada, khalitz hau ur-  
 run *bedi* ene-ganic; halaric ere ez  
 dadin içan nic nahi beçala : bainan bai  
 çue nahi beçala. *c.* Ondoan yoan cen  
 here dicipuluetarat, eta lo çaudecela  
 causituric, erran cioen Piarresi : † No-

la! ecin egon çarete oren bat atçarriac enekin batean? Atçarriric çaudete eta othoitz eguiçue, tentacionetan sar ez çaitentçat; ecen izpiritua erne da, bainan haragua flacoa. *c.* Berriz ere bigarrenean yoan cen, eta othoitz eguin çuen cioelarie : † Ene Aita, baldin ez badaite khalitz hau iragan nic edan gabe, çure nahia biz bethea. *c.* Berriz bihurtu cen hetarat, eta bere beguiac logalez eroriac içanez, lo aurkhitu cituen. Eta hec hala utciric, yoan cen oraino berriz ere, eta othoitz bera hirur garrenean eguin çuen; guero itçuli cen bere dicipuluetarat, eta erran cioten : † Orai eguiçue lo, eta descansa çaitetzte; huna non orena hurbildua den, çointan Guiçonaren Semea emana içaterat doha bekhatoreen escuetarat. Haica çaitetzte, goacen; huna non ni saldu behar nauena hurbil den. *c.* Oraino mintço cela, Yudas, hamabi dicipuluetaric bat, ethorri cen, eta harekin Aphez nausiec eta populo Çaharrec egorrericaco yende oste handi bat, ezpataz eta makhilez harmatuac. Ordean hura saltcen çuenac

eman cioten seinalea hura eçagutce-  
cotçat, ciotçotela : s. Nori ere musu  
emanen baitiot, eta hura da; hura  
har çaque. c. Eta berehala hurbilduric  
Yesusi, erran cioen : s. Agur, Nausia.  
c. Eta musu eman cioen. Yesusec ihar-  
dexi cioen : † Adichkidea, certarat hu-  
nat ethorri çare? c. Dembora berean  
bertceac hurbildu citçaizcon, escuac  
gainerat hedatu ciotçaten, eta hartu  
çuten. Bainan Yesusekin cirenetaric  
batec, bere ezpata atheraturic, yo-  
çuen hartaz Aphez handiaren cerbit-  
çari bat, eta ebaki cioen beharri bat.  
Yesusec orduan erran cioen : † Bihur  
çaqu çure ezpata bere lekhurat; ecen  
ezpata hartcen duten guciac, ezpataz  
hilen dire. Uste duçu ez deçakedala  
othoitz ene Aita! eta harc ez dietçake-  
dala berehala egor milaca Aingueruzco  
hamabi herrunca baino guehiago? Or-  
dean nola betheco da Escriturec dio-  
tena, manera huntan gaucec eguin be-  
har dutela? c. Ondoan erran cioen  
yende aralde hari : † Ohoin baten ga-  
nat beçala ethorri çarete ezpatekin  
eta makhilekin ene harcerat; egun

oroz çuen artean yarriric nindagoen,  
 temploan erakhasten nuela, eta ez  
 nauçue hartu. Bainan hauc guciac  
 guerthatu dire, Profeten erranac bethe  
 ditentçat. *c.* Orduan bere dicipuluecuti  
 çuten, eta guciac ihesari eman ciren.  
 Eta Yesus hartu çuten yende hec, eta  
 eramán çuten Caïphas Aphez handia  
 ganat, ceina baithan Escribauac eta  
 Çaharrac bilduac baitçauden. Piarre-  
 sec seguitu çuen urrundic Aphez han-  
 diaren ezcaratceraino, eta barnera  
 sarthu-eta, yarri cen sehiekin betan,  
 ikhusteco gauça nola moldatuco cen.  
 Bizkitartean Aphez nausiac eta con-  
 xeilu guciac bilhatcen çuten cembait  
 lekhucotasun falxu Yesusen contra,  
 haren hil-arazteco; bainan etçuten  
 aurkhiten, hainitz lekhuco falxu aditu  
 cen arren. Azkenean bada bi lekhuco  
 falxu aguertu ciren, eta erran çuten :  
*s.* Erran du hunec; deseguin deçaket  
 Yaincoaren temploa, eta guero hirur  
 egunic barnean berreguin deçaket. *c.*  
 Horren gainean Aphez handiac bere  
 lekhutic altchaturic erran cioen : *s.*  
 Ez duçu deusic ihardesten, yende hauc



çure contra diotenaren gainean? *c.*  
 Bainan Yesus ichilic çagoen. Orduan  
 Apez handiac erran cioen : *s.* Ma-  
 nateen darotçut Yainco bici denaren  
 icenean, erran dieçaguçun heia çu  
 Christo Yaincoaren Semea çaren. *c.*  
 Yesusec ihardexi cioen : † Çuc erran  
 duçu : eta erraiten darotçuet, ikhusico  
 duçnela oraino Guiçonaren Semea  
 Yainco guciz ahalxuaren escuinean  
 yarría ; eta ceruco hedoién gainean  
 heldu dela. *c.* Orduan Apez handiac  
 bere arropac urratu cituen. *s.* Burho  
 eguin du, cer behar dugu lekhucoric  
 guehiago? Horra non cihaurec entçun  
 duçnen eguin duen burhoa : cer çait-  
 çue? *c.* Ihardexi cioten : *s.* Heriot-  
 cea mereci du. *c.* Orduan bere begui-  
 thartea kherruztatu cioten, ukhabila-  
 caldiz yo çuten, eta oraino bertce bat-  
 çuec macelacoac eman ciotçaten, er-  
 raiten ciotela : *s.* Christo, asma dieça-  
 gue, nor da yo hauena? *c.* Bizkitartean  
 Piarres campoan çagoen ezcaratcean,  
 eta nescato batec hurbilduric erran  
 cioen : *s.* Eta çu ere Yesus Galileacoa-  
 rekin cinen. *c.* Bainan ukhatu çuen gu-

cien aiteinean, cioela : s. Ez dakit cer  
dioçun. c. Eta athetic camporat ilkhit-  
cen cela bertce nescato batec ikhusiric,  
erran cioten han cirenei : s. Hau ere  
Yesus Nazarengoarekin cen. c. Eta  
Piarresec bigarrenean ukhatu çuen  
cioela cin eguinez : s. Ez dut eçagutcen  
ere guiçon hori. c. Aphur baten bu-  
ruan han cirenac hurbildu citçaizcon  
Piarresi, eta erran cioten : s. Eguiazki  
yende hetaric çare çu ere ; ecen çure  
hitzcuntçac salhatcen çaitu. c. Orduan  
hasi cen burho eta arnegu eguiten, ez  
çuela guiçon hura eçagutcen. Eta bere-  
hala oilarrac cantatu çuen. Piarres  
orhoitu cen Yesusec erran cioenaz :  
Oilarrac cantatuco duen baino lehen,  
ni hiruretan ukhatuco nuçu. Eta cam-  
porat ilkhiric, kharaxki nigar eguin  
çuen. Arguitu cenean, Aphez aitecindari  
guciec eta populuco Çaharrec biltçar  
eguin çuten Yesusen contra, haren hil-  
arazteco ; eta estecatu ondoan eramán  
çuten, eta eman Pontcio Pilatus Go-  
bernadorearen escuetara. Orduan Yu-  
das, hura saldu çuena, ikhusiric nola  
galtcera çaramaten, urrikitan sarthu

cen eguin çuenaz eta eramam ciotzaten  
 Aphez aiteindariei eta Çaharrei hogoi  
 eta hamar diru peçac, cioela : s. Be-  
 khatu eguin dut, saldu duanean yustua-  
 ren odola. c. Ihardexi cioten : s. Guri  
 cer dohacu ? hori ikhusçac herorrec. c.  
 Orduan Yudas diru hec temploan aur-  
 thikirie yoan cen, eta bere burua ur-  
 khatu çuen. Bainan Aphez aiteindariec  
 diru hec bildu ondoan erran çuten : s.  
 Ez da haicü diru hauc tresorean ema-  
 tea, ceren odolaren saria baita. c. Bai-  
 nan elkhar aditurie, hartaz erosi çuten  
 bachera eguile baten lur bat, arrot-  
 çac han ehorzteco. Hargatic landa hura  
 deitcen da oraino egungo eguneraino  
 Haceldama, erran nahi baita, odollan-  
 da. Orduan bethe içan cen Yermias  
 Profetac erran çuena : Eta hartu di-  
 tuzte hogoi eta hamar diru pheçac, cei-  
 nac baitire saldu denaren saria, Israel-  
 go umetarie erosi dutenaren saria; eta  
 eman dituzte bachera eguile baten lan-  
 daren erosteco, Yaunac niri meçutu  
 darotan beçala. Yesus bada eçarri içan  
 cen Gobernadorearen aiteinean, eta  
 Gobernadoreac galdeguin cioen, errai-

ten eioela : s. Cu çare Yudutarren Erreguea ? c. Ihardexi cioen : † Çuc dioçun beçala. c. Eta Aphez aiticindariec eta Çaharrec acusatcen çutelaric, deusic ez çuen ihardexi. Hargatic Pilatusec erran cioen : s. Ez duçu entçuten cembat gauça yende hauyec derasaten çure contra ? c. Bainan, ez cion deusen ere gainean ihardexi : halaco guisaz non Gobernadoreac handizki mirexi baitçuen. Bada Gobernadorearen usantça cen, Bazcotan populuac hautatcen çuen bat campotcea ; eta orduan preso çagon Barrabas deitcen cen fama gaichtotaco guiçon bat. Hala guciac elkhar bilduac çaudecen demboran, Pilatusec erran cioten : s. Cein nahi duçue utz dieçaçuedan, Barrabas ala Yesus Christo deitcen dena ? c. Ecen baçakien bekhaizcoz escuetarat ekharri ciotela. Eta bere tribunalean yarriric çagoela, bere emazteac gaztiatu cioen : s. Ez dukeçula guiçon hobengabe horrekin eguitecoric ; ecen horren-gatic egun amexetan hainitz pairatua nago. c. Bizkitartean Aphez aiticindariec eta Çaharrec burutan eman

cioten populuari, Barrabas galdetcea,  
 eta Yesus gal araztea. Bada Goberna-  
 doreac oraino erran cioten : s. Cein  
 nahi duçue bietaric camporat utz die-  
 çadaçnetan? *c.* Bainan hec ihardexi cio-  
 ten : s. Barrabas. *c.* Pilatusec erran  
 cioten : s. Eta cer eguinen dut Yesus,  
 Christo deitcen denaz? *c.* Guçieç ihar-  
 dexi cioten : s. Gurutcean itça bedi. *c.*  
 Governadoreac erran cioten : s. Ordean  
 cer gaizki eguin du? *c.* Horren gainean  
 guçiac oihuz yarri ciren, ciotela : s.  
 Gurutcean eman bedi. *c.* Pilatusec  
 ikhusiric deusic ez çuela irabazten,  
 aiticie yendeac guehiago asaldatcen  
 cirela, populuaren aiticinean bere es-  
 cuacurez ikhuzi cituen, cioela : s. Behi-  
 nie bat çahu naiz guçion hoben-gabe-  
 co hunen odoletic; çuetaz denaz, ikhus  
 çaçue. *c.* Eta populu guçia eman cen  
 oihuz : s. Horren odola eror bedi gu-  
 re, eta gure umeen gain. *c.* Orduan  
 camporat utci cioten Barrabas, eta Ye-  
 sus açotaturic eman cioten escuetarat,  
 gurutcean itçatua içan çadintçat. Bere-  
 ala Governadorearen soldadoec Yesus  
 aureguirat eramane, haren inguru-

tara lagun guciac bildu cituzten : eta biluzi çuten ondoan, escarlatazco capa batez estali çuten ; eta arrantcezco khorro bat eman cioten buruaren gainean, eta sesca bat escu escuinean ; eta haren aiticinean belhaunicatcen cirela escarniatcen çuten, erraiten ciotela : s. Agur Yuduen Erreguea. c. Eta bekhokiora thu eguiten ciotela, eramaten cioten escutic sesca, eta hartaz burua yotcen cioten. Horrela hartaz trufatu ciren ondoan, erauntci cioten escarlatazco capa, eta bere soinecoez beztiaraciric eraman çuten gurutcean eçartcerat. Ilkhitcen cirela, aurkhitu çuten Cireneco guçon bat, Simon deitcen cena ; eta hari bortchaz Yesusen gurutcea eraman araci cioten. Eta ethorri ciren Golgotha deitcen den lekhura, ceina baitha Galbarioco lekhua. Eta eman cioten edaterat minagrearekin nahastecaturicaco arno batic : eta yastatu çuen ondoan, ez çuen edan nahi içan. Gurutcean itçatu çuten ondoan bereci cituzten haren soinecoac, çorthe egotciric ; Profetaren errana bethea çadintçat : Bereci dituzte

bere artean ene phildac, eta ene arropa  
 porthean aurthiki dute. Eta yarririe  
 paudecela beguiratcen çuten. Eta eman  
 cioten buru gainean iskiribuz cerga-  
 tic hil-arazten cen : Hau da Yesus Yu-  
 dutarren Erreguea. Gurutcean eman ci-  
 tuzten harekin batean bi ohoin, bata  
 haren escuineco aldean, eta bertcea  
 ezkerrecoan. Eta handic iragaiten ci-  
 renec hidoiztatcen çuten, buruac era-  
 bilteen cituztela; eta cioçotela : s. Heia  
 bada! hic Yaincoaren temploa dese-  
 guiten dukanaz gueroz, eta guero hi-  
 rur egunic barnean berreguiten, be-  
 guira çac heure burua; Yaincoaren  
 Semea bahiz, yax hadi gurutçetic. c.  
 Halaber aphez nausiec, Iskiribau eta  
 Çaharrekin batean, hartaz burlatcen  
 ciren, ciostela : s. Bertceac salbatu  
 ditu, eta bere burua ecin salba deçake.  
 Israelgo Erregue bada, yax bedi orai-  
 che gurutçetic, eta sinhexico dugu  
 horren baithan. Yaincoa baithan du  
 bere esperantça. Yaincoaren gogora-  
 coa balin bada, athera beça orai hor-  
 ic; eeen berac erran du : Yaincoaren  
 semea naiz ni, c. Harekin gurutcean

ciren ohoinec ere gauça bera cerasaten. Eta egun-erdtic araxalde hirur orenetaraino, mundu gucia ilhumbez estali cen. Eta muga harren inguruan, Yesusec oihu handi ocen bat eguin çuen, erraiten cuela : † *Eli, Eli, lamma sabacthani?* c. Erran nahi da : † Ene Yaincoa, ene Yaincoa, cergatic utci nauçu? c. Han cirenetaric batçuec, hori entçunic, cioten : s. Elias deitcen du hunec. c. Eta berehala hetaric battec laster eguin çuen belogui bat arno minthuz bethetçera ; eta hura sesca batean emanic edaterat eman cioen. Bainan bertec cioten : s. Çaude, ikhus agun behin heia Elias ethorrigo çayon hortic atheratçera. c. Bainan Yesusec berriz ere oihu handi bat eguinic, aurthiki çuen azken haxa. (*Hemen aphur bat belhaunico egon behar da.*) Ordu berean temploco beloia erdiratu cen, eta bi çathi eguin gainetic behereraino, lurra ikharatu cen ; eta harriac arraildu ciren, hil-hobiac ideki ciren, yadanic hilac ciren hainitz sainduen gorphutçac phiztu ciren ; eta bere hobietaric ilkhiric, hura phiztu cen on-



doan, hiri saindura yoan ciren, eta hainitci aguertu citçaizcoten. Bizkitartean soldado aitcindaria eta harekin Yesusen beguiratcen çaudecenac, ikhursirie nola lurra ikharatu cen, eta bertce guerthateen ciren gauçac, handizki icitu ciren, ciotela : s. Eguiazki Yaincoaren Semea cen hau. c. Baçauden oraino han urrunhetic hainitzemazte, Yesusi Galileatic haraino yarraiki cirenac, hartaz artba icateco : ceinen artean baitciren Maria Magdalena, Maria Yakesen eta Yosephen ama, eta Zebedeoren semeen ama. Arraxa heldu cenean, ethorri cen Arimatheaco guison aberax bat Yoseph çaritçana, ceina Yesusen dicipuluetaric baitcen. Hura yoan cen Pilatus gana, eta galdetu cioen Yesusen gorphutça ; eta Pilatusec bereala manatu çuen eman çakion. Yosephhec harturic gorphutz hura, mihise huri batez trochatu çuen, eta eman çuen harroca batean eguina çuen bere hobi erri batean : eta hobi atheraino harri andi bat itçul-araciric yoan cen. Maria Magdalena eta bertce Maria ere han udecen yarriric hobiaren aldean.

Biharamunean, ceina baitcen larumbata edo Sabbathoa, Aphez nausiac eta Pharisauac bildu ciren Pilatusen gana, eta erran cioten : Yauna, orhoitu gare nola yende enganatçaile harc, oraino bici cela, erraiten çuen : Hirurgarren egunean berriz phiztuko naiz. Mana çaçu beraz hobia çain dadin hirurgarren eguneraino ; beldurrez eta horren dicipuluec ethorriric, ebats ez deçaten, eta populuari erran ez dioçoten : Hiletaric berriz phiztu da ; eta asken enganioa lehembicicoa baino gaichtoagoa bailiteke. Pilatusec ihardexi cioten : Badiuçue çaintçaleac ; çoazte, çain çaçue daritçaçuen beçala. Hala yoan ciren beraz, hobi-harria siguilaturic, ongui hertsi çuten, eta eman cituzten çaintçaleac.

### YESU-CHRISTO

*Gure Yaunari, haren Passioneço aintci bakhotcharen gainean OTHOITÇA.*

ÿ. Adoratcen çaitugu Yesu-Christo eta benedicatcen ;

R). Ceren çure Gurutce sainduazerosi baituçu mundua.

## ORACIONEA.

**Y**AINCO òna : çure escuac, çure oinac  
 eta çure gorphutz gucia, gu bekhato-  
 reentçat Gurutceco habean eçarri nahi  
 içan ditutçuna ; arrantcezco khorro bat  
 Yuduec, çure icen sacratuaren laido-  
 tan buruaren gainean eman çarotçute-  
 ra, pacienki ekharri duçuna ; eta gu  
 bekhatore berentçat Gurutceco habe-  
 rerean bortz çauri errecibitu ditutçu-  
 na : eman dieçaguçu egun eta bethiere  
 penitenteian, on-gabeian, aphaltasu-  
 nean, caritatean bicitceco indarra eta  
 berthutea, behar dugun arguia, sent-  
 sua, adimendua, eta bihotz garbi-  
 bat ; hetan azken haxeraino heltceco  
 graciarekin, çure merecimenduen bi-  
 lez ; Yesus adoragarria, ceina bici-  
 baitçare, eta ceina erregue baitçare,  
 aitaren eta Izpiritu-Sainduaren bata-  
 ranean mendeen mendetan. Halabiz.

---

## GURUTCEAREN

BIDEAREN GAINECO

## ISTRUZIONE LABURRA

*Cer den Gurutcearen Bidea.*

**G**URUTCEAREN bidea da berenaz gura Salbatçaileac gurutceaz cargaturic iragan çuen eremua ; erran nahi da, condenatua içan cen Pilatusen etchetic eta gurutcesicatua içan cen Calbarioraino, non aurkhiten baitituzte mila hirur ehun eta hirur hogoi urhax. Beraz Gurutcearen bidearen eguitea da, eremu horren iragaitea. Funski eguiteco, bide horren iragaitean, behar da içan hunkitua han Salbatçaileac eguin dituen phausu odolstatuei emana den sentimenduez. Hura Cerurat iganez gueroz Biryina Sainduac, eta haren eredura Yerusalemeco presuna debotec, maiz eguiten çuten bide hori. Guero debocione horren laguntceco,

eman cituzten seinale batçuec, Salbat-  
 aile maitea, bide hartan cerbeit guer-  
 haturic, baratua egon cen tokietan.  
 Guiristinotasuna hedatcearekin, laster  
 biatu ciren hel ahal citezken tokieta-  
 ric bide horren eguiten; eta eçagutu  
 hainitz dohain bereciac ardiesten cirela  
 debocione horren bidez. Hori ikhusiric  
 Aita Sainduec eman cituzten indul-  
 gentciaric handienac debocione hori  
 praticatcen çutenei.

Bainan, ikhusiric hainitz guiristino  
 çanen cirela gracia horiez gabetuac,  
 oki hartarat ecin yoanez, Aita Sain-  
 duec nahi içan dute eguin Yesu-Chris-  
 toe gurutceaz cargatuac, Olibetaraco  
 bidean eguin cituen phausuen itchura  
 çat; emaiten direlaric Elicetan lekhu-  
 ric lekhu phausu hec seinalatcen di-  
 uzten erretaula edo gurutce batçuec;  
 eta tokiaren beraren gainean bere Es-  
 tacioneac eguiten dituztenei, indul-  
 gentcia handi hec berac eman dituzte,  
 ratchiki ondoan gurutce hauyei; bai-  
 an Estacioneac gurutce heyen beraren  
 itcinean eguinez seguidan.

Ikhusia da debocione hori, Yesu-

Christoc gure salbamenduco eguin dituen phausu odolstatuen conxideratcerat, harentçat den gloriosena, haren Ama Biryinarentçat den gogoracoena, bekhatuaren higuintcerat, nekheen yasaiterat, eta Yesu-Christoren amodiorat bihotcen erakhartceco den premia tuena dela.

Estacioneac eguin aldi bakhotchegan hainitz indulgentcia irabazten da. Aita Sainduen chedea da Purgatorioetaco arimentçat irabaz ditzen ahalaz.

---

## NORC BERAC

## GURUTCEAREN BIDEA

## EGUITECO MOLDEA.

*Hasteracoan Sacramendu Sainduaren  
aitcinean eguiteco OTHOITÇA.*

**O** YESUS, ene Salbatçaile dibinoa!  
huna non naicen ahuspez çure oine-  
tan, enetçat eta çure gracion hil dire-  
nentçat misericordia galdetceco. Phar-  
teliar eguin gaitçatçu, othoi, hec eta  
ni çure Passionearen merecimendu içari  
gabecoetan. Nigarrezco eta auhenezco  
bide huntan hain urriki minaz hunki  
çaçu ene bihotça, non ekharria içanen  
bainaiz bici huntaco nekhe gucien go-  
gotic yasaiterat çu gatic.

Eta çue, Gurutcearen bidea lehenic  
irakhaxi daucuçuna, Maria Saindua,  
eguiçu othoitz Trinitate Sainduac mun-  
duan içaiten dituen laidoen arrimutan;  
onhex detçan hemen Izpiritu-Sainduac  
emanen daitan urrikizco eta amodiozco  
sentimenduac.



### I<sup>o</sup> ESTACIONEA.

*Yesus hiltcerat condenatua.*


Conxidera çucu hemen Yesusec cein amulxuki harcen duen arrasta bat hain gaichtoa, eta orhoit çaute ez duela Pilatusec condenatu Yesus, bainan çuc eta bekhatoros guciec galdetcen guinduela haren heriotcea. Erraçu beraz urrikiric minenarekin :



O Yesus adoragarria, ene bekhatuec  
çaituzte beraz hiltcerat condenaraci.  
Ai! Yauna eguidaçu, othoi, gracia  
hetaz guero eta guehiago damu içan  
deçadan; eta berriz bekhatuic egui-  
nen duan baino lehen, hiltcerat ere  
ekharria içan nadin.

*Erraçu guero Gure Aita, Agur Ma-  
ria, Gloria.*





## II<sup>en</sup> ESTACIONEA.

*Yesus gurutceaz cargatua.*

Conxidera çaqu hemen Yesusec cein bihotz onez hartcen duen bere heriotceco tresna latzgarria bere soin sarraskituen gainean. Horrela irakhaxi nahi daucu nola hartu eta ekharri behar ditugun, nondic eta norren ganic-nahi heldu çaizeun gurutceac.

O Yesus amulxua ! ez cinduen çuc ekharri behar gurutce hori, bainan nic bekhatoros dohacabea. Emadaçu behar duan adimendua , çure eredura, bici huntaco nekheac eta axecabeac erasia-ric gabe yasaiteco ; Aita on beçalaçure Probidenciaic nahi içan duenaz gueroz heyen bidez eguin deçadan bekhatuen satisfaccionea, eta ardiex çure loria.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.





### III<sup>ca</sup> ESTACIONEA.

*Yesus eroria gurutcearen pean.*


Conxidera çaqu Yesus Olibetaraco bidean. Açote eta arrantcezco khoro çorrotcec hambat odol galaraci cioten non flacatua erori baitçen gurutce yasan gogorraren azpian; eta ez da alchatçen laidoric gogorrenac pacientciaric handienarekin yasanic baitçen. Hola nahi du eguin, eta guri irakhaxi gure

eroricoen, eta guciz bathayoco gracia galaraci darocuten bekhatuez satisfacionea eguiten.

O Yesus ona! eguicu, othoi, orhoit nadin bethi bihotz minic handienarekin ene haurtasuneco eta gaztetasuneco bekhatuez, eta damuric handienarekin hurbil nadin maiz cofesiorat, bethi eta hobekiago borratceco ene iragan huxac Penitentiaco sacramenduan.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.





#### IV<sup>en</sup> ESTACIONEA.

*Yesusec bidalkhartcen du bere Ama.*


Conxidera çacu cein bihotz-min-garri behar cen, bai Seme Yainco har-  
rentçat, bai Ama hain maitearent-  
çat, elkhar aurkitcea, Seme maite  
hura gaichtaguin batçuez hain ixus-  
ki herrestatua cen demboran, populu  
handi baten bistan. Hura ikhustean  
cer dolore eta hersturetan ez cen  
hertchatua haren bihotça! Nahi çu-

keyen athera burrego heyen escuetaric; ordean badaki hala behar dela eguin gure salbamendua. Guclac harrekin sacrificaturic, yarraikico çayo beraz azken haxeraino.

O dolozco Ama! ardiex dieçaguçu mendisainduraino Yesu-Christo seguitu cinuen amodio hura, eta gurutcearen oineraino eracuxi cinuen bihotz handi hura; deusec ez naçan behinere urruntaraz Yaunaren leguearen bidetic, eta Yesu-Christo ganic.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.





### V<sup>en</sup> ESTACIONEA.

*Simonec laguntcen du gurutcearen kharreyatcen.*

Conxidera çacu Yesu-Christoren gu ganaco onhesgoa. Mundua yasaiten duenac ez du escas indarra gurutcearen yasaiteco ; bainan nahi daucu irakhaxi gure lagunetarie pairatceco içanen ditugunen yuntatcen haren sofriariekin.



O Yesus, ene Yauna! cerorrec yasanic gurutceric dorpheena, arinena uzten deraucucu guri; eguidacu, othoi, gracia neure buruaren hain exai ez icaiteco, non ez baitut neurea ekharri nahico. Hitz datçut, Yauna, çure amo-rea gatic, eta çure urricalmenduaz baliatceco, yasanen ditudala, erasiaric gabe, neure lagunaren ganicaco escarnio eta hidoi guciac.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.





### VI<sup>en</sup> ESTACIONEA.

*Emacume debot batec chukhatcen dio beguithartea.*


Conxidera çaqu soldado soka hura cilhaturic, bere Nausi dibinoaren gana hurbiltcen den emacume horren gogo miragarria. Aurkhiten du thuz, her-rauxez, icerdiz eta odolezsunxitua. Hun-kitua nigarretaraino, amodioac emai-

ten du beldur guciez gorago ; hurbilt-  
cen da Yesusen ganat, eta chukatcen  
dio Aingueruec eta Sainduecikhara-  
kin baicen beira ez dioçoketen begui-  
tharte deseguin hura.

O Yesus gure Nausi eta Erreguea !  
emadaçu, othoi, emacume saindu hor-  
rec beçala, munduco errespetu guciac  
osticaturic goraki eracux deçadan neu-  
re fedea mundu guciaren bistan.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.





### VII<sup>en</sup> ESTACIONEA.

*Yesus erortcen da bigarren aldicotz.*

Conxidera çaqu Bictima saindu horren estatua, hedatua bere sacrificioco egurraren azpian, eta pharatua bere burregoen tratamendu gogorrei : bigarren erorico hau Yesu-Christoc guretçat duen amodio handiaren froga berri bat da. Nahi daucu eracuxi berriz bekhatuan erortceac ez darocula exia-

raci behar, bainan bai erneago atchi-  
caraci.

O Yesus ene Salbatçailea! barkha  
dietçadaçu, othoi, berriz ere ene be-  
kh atuac; borthitz neçaçu çure graciaz  
bekhatuzco occasioneen contra; ema-  
daçu, othoi, atçartasuna neure burua-  
re ngainean, çucen egon nadin çure gra-  
cian.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.





### VIII<sup>en</sup> ESTACIONEA.

*Yesusec conxolatcen ditu Israelgo presuna nigarrez darraizconac.*


Mirex çaqu Yesu-Christoren bihotz ona. Bere oinhaceez casuric eguin gabe, gucia hartua da gure salbamenduaz. Erraiten diote ez deçaten nigarric eguin hartaz; bainan bai berez eta bere umeez. Ah! hortan eracusten daucu gure nigarrec estimu guti luketela, baldin

gure bekhatuez beçala gure lagunenez  
nigar eguiten ez badugu.

O Salbatçaile maitea! emoçu, othoi,  
ene bihotçari ene lagunen salbamen-  
duaren nahi kharxu bat; bekhatoreen  
comberxionearentçat, othoitcean, au-  
henetan eta penitencian kharxuki ema-  
naraz neçakena, mereci deçadan çure  
conxolacionezco hitzen aditcea heye-  
kin.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.





### IX<sup>en</sup> ESTACIONEA.

*Yesus erorteen da hirurgarren aldian.*

Conxidera çaqu Yesus heldua mendia-  
diaren gainera: han da bere exayen er-  
rabiac sacrificatu behar duen tokian.  
Han erabilteen ditu bere bihotcean gu-  
re bekhatuac, Sacramenduen laidoztat-  
ceac; haren gracia eta haren odola  
çombatentçat alfer içanen ciren. Con-  
sideracione horiec hersten dute, eta  
aurthikiteen hain tristecia eta flakecia



handian, non erortcen baita bere ha-  
gonian, beçala, beguithartez lurre-  
rat.

O Yesus, amodioaren bictima! on-  
hex çacu, othoi, hemen ene bihotz oin-  
hazcatuac, çure bihotça hola hersten  
duten bekhatuez eta hidoiztatcez egui-  
ten darotçun amanda ohorezcoa; ema-  
daçu indarra ikharagarrikeria horiec,  
penitentciaric gogorrenez, erreparat-  
ceco, eta eguidaçu gracia çuganat  
bethicotz hel araz neçaketen beçala  
çure dohainez baliatceco.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.





### X<sup>en</sup> ESTACIONEA.


*Yesus biluzten dute.*

Conxidera çaçu nolacoa cen Yesusen sofricaria burregoe bilhuci çutenean; arropac khentcearekin haren çauri guciac ideki eta sarraskitan emaiten dire, eta berriz eguiten dute açotezco oinha- cea. Cer dolore etcen harentçat, ham- bat eta halaco yendakiaren bistan, es- tatu hartan aguertcea!

O Yesus saindutasunaren Yaincoa!  
gure guritasun țar eta axeguin liçu-  
nez barkhamendu galdeguiteco uzten  
duçu çure burua hola biluzterat; ikhus-  
garri nigar eguingarri hortaz yendetce  
horren bistan ahalcatua : neure gor-  
phutçari eguin ditudan mainez, cinki  
nahi dut, çure graciarekin batean, neu-  
re sensuac mortificatuz, ahal duan  
penitencia gucia eguin ene bici gu-  
cian.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.





## XI<sup>en</sup> ESTACIONEA.

*Yesus Gurutceari itçatua da.*


Conxidera çaqu Yesu-Christo bere burregoei cein humilki pharatcen den! uzten ditu bere escu eta oinen itçateer-  
rat! batere elhe saminic gabe; sendit-  
cen ditu bere heçurraç yunturetaric  
atheratcen, bere çainac ethentcen, bere  
odola gurutcea behera yoaiten, bere  
bihotça egarriac erretcen, bere indar  
guciac ahitcen! Ah! ceren gu-gatic

obedient ičan nahi baitcen gurutce-  
raino, Yondoni Pauloc dioen beçala!

O ene Nausi dibinoa! ala goraki con-  
denatcen baititutçu çure legue sain-  
duaren alderaco ene desobedientciac!  
Ala sarcorra baita hemen amodio pro-  
piaren eta naturaleçaren contra emai-  
ten darotaçun exemplua, guciac bent-  
çutcen dituen çure obedientcia osoan!  
Eguidaçu, othoi, gracia hortaz baliat-  
ceco, ez deçadan behinere bertce na-  
hiric ičan çurea baicen.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.





## XII<sup>en</sup> ESTACIONEA.

*Yesus hiltcen da Gurutcean.*


Conxidera çacu Yesus hiltcen bi ohoi-  
nen artean, eta bere Yaincotasuna era-  
custen miraculuric handienez. Azken  
haxa eman duen aintcean, lurra ikha-  
ratcen da, harrocac erdiratcen, tem-  
ploco beloia urratcen, iguzkia ilhunt-  
cen, eta hilac hobietaric bizturic ilkhit-  
cen. Horiec ikhusiric, capitainac, bul-

harrac yotcen dituelaric, aithorcen du eguiazki hura Yaincoaren Semea cela.

O ene Salbatçaile maitea ! ez deçaçula, othoi, utz, creatura guciac çure heriotceaz damustatcen diren demboran, sentimendu-gabe içan nadin eta esker-gabe. Argui çaçü ene adimendua, phorosca çatçu ene passioneen gatheac, atçarraçu, othoi, ene fede lokharcatua, halaco moldez non ez deçadan behinere bistatic gal Gurutce horren gainean enetçat yasan ditutçun oinhace ikhargarriac, eta hor emaiten darotaçun eracuspenez bidatça deçadan nere bicia heriotceraino.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.





### XIII<sup>en</sup> ESTACIONEA.

*Yausten dute Yesus Gurutcetie, eta emaiten bere Amaren besoetan.*

Conxidera çaqu Ama samur harren dolorea bere Semea hila ikhustean. Bere besoetan hartcen du gorphutz sacratu hori; beguira dahoco beguitharte deseguin eta odolstatu horri; begui iraungui, escu eta oin cilhatu heyer. Yaincoac baicen ez deçake enthelega ikhusgarri hori cer martyrio cen harrentçat.



O Maria! ni naiz çure bihotz-minaren çausa; ene bekhatuec cilhatu dute çure bihotça, Yesus gurutcean emaitarekin; bainan orhoit çaute, ô Maria! ene Ama carela, eta ene bitartecoa Yaincoaren aintcinean; damuric minena dut içanaraci daitçudan doloreez, arnegateen dut bekhatua, hitz dautçut çure berthutei jarraikico naicela; çu baithan dut ene fidanteia : lagun naçacu, othoi, orai eta ene heriotcean.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.





### XIV<sup>en</sup> ESTACIONEA.

*Yesus emaiten dute hobian.*

Conxidera çaqu Yesusen gorputça hobi hartan, eta orhoitçaite çurea orobat daitekela laster, eta çure arima yoanen dela Yaincoaren aitcinerat, be-thiereco çorion edo çorigaitceco arrastaren aditcerat.

O ene Salbatçaile dibinoa! heriotce on bat nic ukhaiteco, eta hartarat pharaten irakhasteco, hilçarenaz gueroz:

ez deçaçula, othoi, utz çure graciac alfer içan diten enetçat; ehorzkitçu hobi hortân ene gaichtakeria guciac, eta ni baithan den creaturen ganaco yaidura gucia : ene bicia penitentcian eramanic, eta berthutean fermu içanic, merci deçadan bethiereco çure loriaz goçatcea.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

Solenelki eguiten denean Gurutcearen bidea, edo Estacioneac, aldare nau-siaren aitcinean canta diteke :

O Crux, ave, spes unica!  
Mundi salus et gloria :  
Piis adauge gratiam,  
Reisque dele crimina.

Eta guero apheçac iracurtcen du othoitça, *O Yesus*, etc., 233 plam.

Estacionetara yoaite gucietan canta diteke ceremonia huni dahocon cantica berxu bat, eta :

Sancta Mater, istud agas :  
Crucifixi fige plagas  
Cordi meo validè.

Estacione bakhotcharen hastean cantatcen du apheçac :

ÿ. Adoramus te, Christe, et benedicimus tibi :

R). Quia per sanctam Crucem tuam redemisti mundum.

Guero belhaunicaturic erraten da *Othoitca*. Ondoan cantatcen du :

ÿ. Miserere nostri, Domine :

R). Miserere nostri.

ÿ. Fidelium animæ, per misericordiam Dei, requiescant in pace.

R). Amen.

Estacioneen ondoan bihurteen da, cantatcen direlaric cembait cantica berxu, eta aldare aitecinean cantatcen dira seguidaco berxuac :

ÿ. Adoramus te, Christe, et benedicimus tibi :

R). Quia per sanctam Crucem tuam redemisti mundum.

ÿ. Ora pro nobis, Virgo dolorosissima :

R). Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

ÿ. Signasti, Domine, servum tuum Franciscum :

R). Signis redemptionis nostræ.

Ÿ). Oremus pro Pontifice nostro N.

R). Dominus conservet eum et vivificet eum, et beatum faciat eum in terrâ; et non tradat eum in animam inimicorum ejus.

Ÿ). Oremus pro fidelibus defunctis :

R). Requiem æternam dona eis, Domine; et lux perpetua luceat eis.

OREMUS.

**R**ESPICE, quæsumus, Domine, super hanc familiam tuam : pro quâ Dominus noster Jesus-Christus non dubitavit manibus tradi nocentium, et Crucis subire tormentum.

Domine Jesu-Christe, Fili Dei vivi, qui horâ sextâ pro Redemptione mundi Crucis patibulum ascendisti, et sanguinem tuum pretiosum, in remissionem peccatorum nostrorum, fudisti : te humiliter deprecamur ; ut post obitum nostrum, januam paradisi nos gaudentes introire concedas.

Interveniat pro nobis, quæsumus, Domine Jesu-Christe, nunc et in horâ

mortis nostræ, apud tuam clementiam, beata) Virgo Maria mater tua : cujus sacratissimam animam in horâ tuæ Passionis doloris gladius pertransivit.

Domine Jesu - Christe, qui refrigerante mundo, ad inflammandum corda nostra tui amoris igne, in carne beatissimi Francisci, Passionis tuæ sacra stigmata renovasti : concede propitiùs ; ut, ejus meritis et precibus crucem jugiter feramus et dignos fructus pœnitentiæ faciamus.

Omnipotens sempiterne Deus, misere famulo tuo Pontifici nostro N., et dirige eum secundùm tuam clementiam in viam salutis æternæ : ut, te donante, tibi placita cupiat, et totâ virtute perficiat.

Deus, veniæ largitor et humanæ salutis amator : quæsumus clementiam tuam ; ut nostræ congregationis fratres, propinquos et benefactores, qui ex hoc seculo transierunt, beatâ Mariâ semper Virgine intercedente, cum omnibus Sanctis tuis, ad perpetuæ beatitudinis consortium pervenire conce-

das. Per Dominum nostrum Jesum-Christum, etc.

*Guero cantatcen da hirur aldiz :*  
Parce, Domine, parce populo tuo :

*Ihardesten da orobat :* Ne in æternum irascaris nobis.

*Cantariec :* Pie Jesu Domine, dona eis requiem.

*Populuac :* Sempiternam.

*Lehen cantariac :* Jube, Domne, benedicere.

*Apheçac :* Benedicat nos Dominus noster Jesus-Christus ; qui pro nobis flagellatus est, crucem portavit, et fuit crucifixus. R). Amen.

*Gurutcearekin emaiten da hemen ichilic benediccionea. Azkenean, erran ditcake baxhotçac Pater, Ave, Gloria, Aita Sainduaren chedeetan.*

## ÇAZPI PSALMU

## PENITENCIALAC

ESCUARAZ.

I. *Ps.* 6.

Domine, ne in furore... Miserere.

**Y**AUNA, ez niri yaçar çure haserrean : eta ez neçaçula gaztiga çure axecabean.

Urrical nakiçu, flaco bainaiz : senda neçaçu, ecen ene heçur guciac khordocatuac dire.

Eta nahasmendu handi batec hartu deraut ene arima : bizkitartean, Yauna, noiz artio utcico nauçu ene miserian?

Yauna, bihur çайте ene ganat, eta beguira çaçü ene arima : salba naçaçu çure urricalmendua gatic.

Ecen nihor ez baita çütaz orhoitcen denic heriotce eternalean : eta ifernuan norc erranen tu çure laudorioac ?



Ene heiagoretan nago ahituric ; gau oroz uretan eçarrico dut ene ohea : ene nigarrez bustico dut ene etçanlekhuá.

Ene beguiac nahasi çaizkit ene urriki saminareñ gatic : çahartu naiz hainitz ene exaien erdian.

Urrun çoazte niganic, gaizki-eguile guciac : ecen Yaincoac entçun du ene nigarraren oihua.

Yaunac entçun du ene othoitça : onhexi du ene auhena.

Ahalkez gorri beitez eta ikhara ene exai guciac : itçul beitez eta berehala hainitz ahalca bere bekhatuez.

Çori guciç ona dela Aitari, eta Semeari : eta Izpiritu Sainduari :

Egundainoticen beçala, eta orai eta bethiere : eta mendeen mendetan. Halabiz.

## II. Ps. 51.

Beati quorum remissœ.

**D**OHAXU ceina ere barkhatuac içan baitçaizco bere gaichtakeriac : eta ceinen bekhatuac idokiac baitire.

Dohaxua guiçona ceinari ere Yaincoac ez baitio ondicatcen bekhatua : eta ceinaren bihotceanez baita gueçurric, ez eta ere enganioric.

Ene bekhatua ez dudalacotz aithortu, axecabean ihartu dire ene heçurrac : heiagoretan nindagoela egun osoa.

Ecen çure escu pisua baratu içan da gau eta egun ene gainean : ene bekhatuec eta urrikiac çaurthuric ene arima, itçuli naiz çure gana, ene anxia handian.

Eçagut-araci darotçut ene bekhatua : eta ez dut gorde ene gaichtakeria.

Erran dut : Nihorc goraki aithortuco diot Yaincoari ene gaichtakeria : eta erran becen sarri barkhatu dautaçu ene bekhatuaren ixuskeria.

Hargatic, ene guisa othoiztuko çaituzte çucen diren guciec : bere behar-orduetan eta dembora hautuetan.

Bizkitartean axecabe gogorren uholdeac erorico direnean pesiaren ançorra : hec-gana ez dire hurranduren.

O Yaincoa! inguratcen nauen axecabean, çu çare ene ihes-lekhua : ene

bozcarioa! iraitzkitçu ni ganic urrun inguratcen nauten exayac.

Yauna, ihardexi darotaçu : Emanen dayat adimendua, irakhaxico dauyat iragan behar dukan bidea : enebeguiac atchikico ditiat hire gainean.

Ez çaitztecela beraz içan çamariac eta mandoac iduri : ceinec ez baitute adimenduric.

Ceinac muthurra sokhac eta cabas-turiac hertchaturic baicen : ez baitire çuganat hurbiltcen.

Hainitçac dire bekhatorearen ondi-coac : aldiz Yauna baithan emaiten duena bere esperantça, haren urrical-menduac inguraturen du.

Aleguera çaitzte beraz Yauna bai-  
than, eta boz handizki, çucen çarete-  
nac : eta handiex eçaçue, bihotça çu-  
cena duçuenec.

Çori guciz ona dela Aitari, etc.

### III. *Ps.* 37.

Domine, ne in furore... Quoniam.

**O** YAUNA! ez niri mendeca çure haser-

rean : eta ez neçaçula gaztiga çure samurrean.

Ecen yadanic çure dardoeç cilhatu naute : eta gogortu duçu çure besoa ene gainean.

Ez dut deus sendoric ene gorphutcean, çure haserreaz gueroz : khechadura sartu çait heçurretaraino , ene bekhatuac direlacotz.

Ecen ene bekhatueç hondatu naute, buruaz gora ditudala : eta çaphatcen naute, ecin altcha deçakedan carga pisu bateç beçala.

Khirestu dire ene çauriac eta usteldu : ene çorokeria-gatic.

Ene escasian ez nauke, çamaren azpian ahitua nago : ene egunac ilhunduranduran eta tristecian dakhartçat.

Ceren ene guerriac betheac dire lilluraz eta çauriz : eta deus ez da sendoric ene gorphutcean.

Ahuldua naiz, eta gucia aphaldua ecin-guehiago : ene bihotçetic yalguitcen dira heiagorariç minenac.

O Yauna! çure beguien aitçinean dire ene nahicunde guciac : eta ene hax-beherapenac ez çaizkitçu estaliac.

Nahasmenduac hartu daut ene bi-hotça; akhitua da ene indar gucia : eta utci nau ene beguietaco arguiac, il-hundu dire ene beguiac.

Ene adichkideac, eta ene ahaideac : hurbildu dire, bainanikhus-etaaltchatu ene contra.

Ene ethecoac berac ni ganic ur-run egon dire : eta ene exayec ahal gucia eguiten çuten niri bicia eraman nahiz.

Ene çaltea nahi çutenac gueçurrez mintçatu dire : eta egun gucia amarru asmatcen iragan dute.

Ni aldiz entçuten ez duen gor bat beçala nindagon : eta mutu bat beçala, ahoa ideki gabe.

Eta eguin naiz aditcen ez duen gui-çon bat beçala : arraposturic bere ahoz hizcatcen ez duen bat beçala.

Bizkitartean, Yauna, çutan eman dut ene esperantça gucia : çue entçunen nuçu, ô ene Yainco Yauna!

Ecen erran dut : Ene exayac ene gainean ez ditecela bozcaria : ceren ene çangoac içan baitire khordocatuac, elhe gaitçigarriac goraki ene

contra, bere buruaz hartuac, erasi baituzte.

Bizkitartean pharatua nago çure escutic gaztigu hartcera : eta mereci duan bihotz-mina bethi darrait ene beguien aitecinean.

Hargatic aithortuco dut ene gaichtakeria : eta saminki damutuco çaut eguin bekhatua.

Bizkitartean ene exayac gothor bici dire, eta eguin dire borthitzagoac ene contra : eta hainitçac dire ni higuïntcen nutenac gaichtoki.

Gaizkia onguiarentçat bihurtcen dutenec, larrutcen ninduten bere erasiez : ongui eguiten nuelacotz.

Ez neçaçula utz, Yainco Yauna : ez citela urrun ene ganic.

Çato ene laguntcera : O Yauna, ene Yainco salbagarria.

#### IV. Ps. 50.

Miserere mei, Deus.

**U**RRICAL nakiçu, ô ene Yaincoa ! çure bihotz-biguïntasun handiaren araura.

Eta çure urricalmendu neurri-gabe-

coaren antçora : phorrosca çaçü ene gaichtakeria.

Guehiago eta guehiago garbi neçaçü ene thonetic : eta ene bekhatutic chahu naçaçü.

Ecen eçagutcen dut ene gaichtakeria : bethi ene beguien aiticinean dut ene oguen handia.

Çuri bai çuhauri gaizki eguin dautçut, eta çure aiticinean eguin dut ene hobena : haletan aithortcen dut çuhurra çarela çure aguintcetän, ez daitekela aurkhi erraitecoric çure ephaitetan.

Halaric ere badakiçu, Yauna, gaizkian contcebitu naicela : eta bekhatuan baicen ez nauela ene amac mundurat eman.

Bainan çucmaite duçu çucen bidea : aguertu daroztatçu çure çuhurtciaren eguia gordeac eta estaliac.

Ihizta naçaçü hisopaz, eta içanen naiz chahutua : ikhuz naçaçü, eta eguinen naiz elhurra baino churiago.

Erantçunen derautaçu boz eta alegranteiazco elhe bat : bertan birphiztucõ dira ene heçur aphalduac.

Ene bekhatuetaric bertce alderat bihur çaçu çure beguithartea : eta ene gaichtakeriac guciac phorrosca çatçu.

Bihotz guciz chahu bat eguiçu ni baithan, ô ene Yaincoa : eta izpiritu çucen bat berreguin çaçu ene errai-etan.

Ez naçaçula egotz urrun çure aitcine-  
netic : eta ez dieçadaçula idoc çure Iz-  
piritu-Saindua.

Bihur dieçadaçu çure Salbatçailearen  
bozcarioa : eta gogor naçaçu çure Iz-  
piritu indarxuaz.

Gaichtoei irakhaxico ditut çure bi-  
deac : eta bekhatoreac çure gana itçu-  
liren dira.

Athera naçaçu ene odol-eguintceta-  
ric, ô Yaincoa, ene Yainco Salbatçai-  
lea ! eta boztuco da ene mihia çure çu-  
centasunaren goresten.

Yauna, idekiren tutçu ene ezpainac :  
eta erantçunen ditu ene ahoac çure lau-  
dorioac.

Nahi içan bacinu ¡sacrificioric, gogo-  
tic escainico nautçun : bainan aberen  
odol ichurtcean ez duçu hartcen axe-  
guinic.



Yaincoac onhesten duen sacrificioa daite arima damuztatua : ez duçu, ô Yaincoa! nihoiz hidoiztatuco bihotz urrikiz çaurthua, eta aphaldua.

Çure çucentasunean beraz, Yauna, arren ongui eguiocu Sioneri, çure populuari : alcha ditecentçat Yerusalemeco murruc.

Orduan onhexiren duçu çucenki eguin sacrificioa, oferendac, eta oho-rescatciac : orduan ehoen dituzte çure aldare gainean aratche onhexiac.

V. *Ps.* 101.

Domine, exaudi orationem.

**Y**AUNA! entçun eçaçu ene othoitça : eta hel bedi çure gana ene oihua.

Ez deçaçula ene ganic bertce alde-rat itçul çure beguithartea : ene ondi-cozco egun orotan, hurbil dieçadaçu çure beharria.

Noiz nahi den eta deithuco baitçai-tut : lehiarekin entçun naçaçu.

Ecen khea beçala yabaldu dira ene

egunac : eta ene heçurrac idortu çai-  
kit egur kiscailaren antçora.

Egotciric nago nola belhar ephaitua,  
eta agortu çaut ene bihotça : ceren  
ahantzi baitçaut ene yana ere.

Halacoac dire ene intcirinac : non  
ene heçurrac lothuric baitaudez ene  
larruari.

Iduri dut bortuco pelicanoa : eguin  
naiz huntçaren antçora etche çalar  
cilhoetan.

Loric ez dut : eta gueçaiua nago,  
berbera hegazteguian dagon etche-  
choria beçala.

Egun gucian laidoztatcen ninduten  
ene exayec : eta lehenago goستن  
nindutenac arneguz hari ciren ene  
contra.

Hauxa yaten nuen oguiarekin be-  
tan : eta nahasten nuen ene nigarre-  
kin ene edaria.

Çure haserrean eta çure gaitciduran  
hertchatu nauçu : gora altchatu-eta  
urrun aurthiki bainauçu.

Ene egunac iragan dire itçalaren  
pare : eta ni ihartu naiz belharra be-  
çala.

Çu aldiz, Yauna, bethi bera çare :  
eta çure icena doha bethi mendetic  
mendera.

Yaikico çare, Yauna, urricalduco  
çautçu Sion : ecen dembora da, yina  
da çure misericordiaren dembora.

Sion, Yauna, nungo harri hondar-  
retan ere lakhet baitute çure cerbit-  
çariec : hango herrauxac ere bihotça  
hunkitcen baitiote.

Orduan, Yauna, populu guciac çure  
icen sainduaren beldur içanen dire :  
eta lurreco erregue guciec ohore ek-  
harrico diote çure dohaxutasunari.

Ikhusi duketenean Yaunac berre-  
guin duela Sion : eta agueri dela bere  
arrimu pare-gabeen.

Ikhusi duketenean so eguin duela  
aphalen othoitçari : eta ez dituela lai-  
doztatu hekien auhenac.

Iskiriba beitez horiec ethorkiçuneco  
mendetaco : eta yaioco den populuac  
gorestuco du Yaun-goicoa.

Ceren so eguin duen bere egoitela  
saindutic : Yaunac lurrera beguiac  
aphaldu ditu :

Entçun ditu gathiboen auhenac : eta

desamarratu ditu hil içan cituztenen semeac.

Erantçun deçaten Sionen Yaunaren icena : eta haren laudorioac Yerusalemen.

Noiz eta ere bilduco baitire populguciac bat batean : eta erregueac Yaunaren cerbitçuco.

Yainco ahalxuaren ikhuscari horren hirrixaz, erran dio berac alchatu duen populuac : Erradaçu çombat beharco ditugun iguriki gauça miragarri horiec.

Ez neçaçula deith çure gana neure egunen erdian : mendez mende hedatcen dire çure urtheac.

Çuc, Yauna, hastean eguin duçu lurra : eta çure escuetarie atheratuac dire ceruac.

Iraganen dira horiec, eta çuc irauenen : philda batçu beçala ahituco dire.

Eta estalgui bat beçala khambiatuco ditutçu, eta içanen dira khambiatuac : bainan çu ber bera çaude, ez dira iraganen çure urtheac.

Çure cerbitçarien hurrec çurekin

ukhanen dute bere egoitça : et hekien ondocoac bethierecotz çure aitcinean içanen dire.

VI. Ps. 129.

De profundis clamavi ad te.

**H**ONDATUA iferrurainocoan oihuz nagotçu, Yauna : Yauna, othoi, entçun çaçü ene oihua.

Beutez çure beharriac atçarririç : ene othoitz minaren entçuteco.

Baldin gure gaichtakeriac çorrotzki beguiratcen baditutçu, Yauna : Yauna, norc iraun çure aitcinean ?

Bainan barkhamendua da çure baithan : eta çure leguea delacotz, esperantça çutan ez dut galdu, Yauna.

Haren aguintcetan bere ustantça eman du ene arimac : Yauna baithan eman du ene bihotçac bere esperantça.

Goicetic arraxera : esperantça ukhan beça Israelec Yauna baithan.

Arren Yauna urricalmendua bera baita : eta nasaia hura baithan berrespena.

Eta berae berrerosico du Israel :  
bere bekhatu gucietaric.

VII. *Ps.* 142.

Domine, exaudi orationem.... Et non.

**Y**AUNA, entçun çaçu ene othoitça, eta  
adi çaçu ene galdetce humila, hitz  
eman duçun beçala : entçun naçaçu  
çure çucentasunaren eredura.

Ez çaitecela sar yuyamenduan çure  
cerbitçariarekin : ecen nor da lurrean  
guiçon bici deno yustu daitekenic çure  
aitcinean !

Ene biciari baitarrait ene exaya :  
egotci nau lurreraino.

Ilhun beltçetan eçarri nau, aspaldi  
hilic daudecenac beçala : hersturan  
dago eue arima, eta nahasmendu han-  
ditan dakhusat ene bihotça.

Bainan orhoitu naiz bestorduco egu-  
nez, gogoan erabili tut çuc eguin gau-  
ça miragarriac : beheman tut çure es-  
cuec eguin ikhusgarriac.

Hedatu ditut çure gana ene escuac :  
ene arima çure ganat dago, nola lur  
gortu bat uriaren hirrixan.

Yauna, laster eguiçu ene aditcera :  
barnea ahulez ttipitcen hari çaut.

Ez deçaçula itcul ene ganic çure be-  
guithartea : edo eguinen naiz hobirat  
dohacenac iduri.

Lehen baino lehen erantçun deça-  
daçu çure urricalmenduaren boça :  
çure baithan eman dudanz gueroz  
ene esperantça.

Eraçagut dieçadaçu cer bide iduki  
behar duan : ecen altchatu dut çu-  
ganat ene arima.

Beguir naçaçu ene exayetic,  
Yauna, çure ganat ihes eguin dut :  
irakhax dieçadaçu çure borondatearen  
eguiten, ecen çu çare ene Yaincoa.

Çure Izpiritu-Sainduac, onthasuna  
bera denac, bidatuco nau çucen bide-  
ra : çure icen sainduaren govestea-  
gatic, Yauna, birphiztuco nauçu, çu  
bakharric ona çarena.

Atheratuco duçu axecabetic ene ari-  
ma : eta çure onhesgoa-gatic galduco  
ditutçu ene exayac.

Sunxi-aracico ditutçu ene arima  
hersturan daucaten guciac : ceren ni  
bainaiz çure cerbitçaria.

*Ant.* Ez çaitecela orhoit, Yauna, gure hobenez, eta ez gure ahaideen gaichtakeriez : eta ez gaitçaçula eman be-thiereco hersturan gure bekhatuac direlacotz.

## AGONIACO OTHOITÇAC

## LETHANIAC.

**Y**AUNA, duçun urricari.  
 Yesu Christo, duçun urricari.  
 Yauna, duçun urricari.  
 Andredena Maria, tinentçat othoitz eguiçu.  
 Aingueru eta Arcanyelu guciec,  
 Abel saindua,  
 Yusten gorthea,  
 Abraham saindua,  
 Yondoni Yoani Batista,  
 San Yoseph,  
 Patriarca eta Profeta guciec,  
 Yondoni Petri,  
 Yondoni Paulo,  
 San Andres,  
 Yondoni Yoani,  
 Apostolu eta Ebanyelista guciec,  
 Yaunaren Dicipulu saindu guciec,  
 Inocent saindu guciec,  
 Yondoni Estebe,

Hunençat othoitz eguiçu.



Hunençat othoitz eguçu.

Yondoni Laurendi,  
 Martir saindu guciec,  
 San Silbestre,  
 San Gregorio,  
 San Augustin,  
 Aphezpicu eta Confessor saindu guciec,  
 San Bedito,  
 San Frances,  
 Fraide eta Ermitau saindu guciec,  
 Santa Maria Magdalena,  
 Santa Lucia,  
 Biryina eta Alhargun Sainda guciec,  
 Saindu eta Sainda guciec, hunençat ararte-  
 co içan çaitzte.

Urrical bekiçu, eta barkha dioçoçu, Yauna.  
 Urrical bekiçu, eta beira çaçu, Yauna.  
 Çure haserretic, beira, çaçu, Yauna.  
 Heriotceco irriscutic,  
 Heriotce gaichtotic,  
 Ifernuco penetaric,  
 Gaitz guçietaric,  
 Deabruaren escuetaric,  
 Çure Sortcearen medioz,  
 Çure Gurutcearen eta Pasionearen medioz,  
 Çure Heriotcearen eta Ehorztearen me-  
 dioz,  
 Çure Phizte gloriosaren medioz,  
 Çure Ceruetarat igaite miragarriaren me-  
 dioz,  
 Izpiritu saindu conxolatçailearen gracia-  
 ren medioz,

Beira, çaçu. Yauna.

Yuyamenduco egunean, beira çaçu, Yauna.  
Bekhatorosac, othoi, entçun gaitçatçu.

Huni barkhatceaz othoizten çaituçu, arren  
entçun gaitçatçu.

Yauna, duçun urricari.

Yesu-Christo, duçun urricari.

Yauna, duçun urricari.

---

*Eria hil-hersturan denean*

OTHOITÇA.

ÇOHAZ, arima Christaua, ilkhi çaitu mundu huntaric, çu creatu çaituen Yainco Aita guçiz botherexuaren icenean; çure-gatic pairatu duen Yesu-Christo Yainco Semearen icenean; çure gainerat ichuria içatu duen Izpiritu-Sainduaren icenean : Aingueru, eta Arcanyeluen icenean : Tronu eta Dominacionen icenean : Principatu eta Bothereen icenean : Kherubin eta Serafinen icenean : Patriarken eta Profeten icenean : Apostolu saindu eta Ebanyelisten icenean : Martir eta Confesoren icenean : Fraide saindu eta Ermitauen icenean : Biryina sainda, saindu eta sainda guçien icenean :

Arren bakean içan dadila çure lekhuia,  
eta Parabisuco glorian çure egoitça,  
Yesu-Christo gure Yaunaren medioz.  
Halabiz.

Yainco urricalmenduxua, Yainco ezti  
eta malxoa, Yaincoa, ceinac, çure mi-  
sericordia handien eredura, urratcen  
baititutçu urriki eguiazco bat dutenen  
bekhatuac, eta iragan hoben handie-  
netaric chahutcen, eguinac içatu ez  
balire beçala : urricai bekiçu N. çure  
cerbitçaria, eta arraiki beha çoçu; ai-  
thortcen darozkitçu bere bekhatu gu-  
ciac; bihotçaren erditic barkhamendu  
eske dagotçu; othoi, Yauna, entçun  
eçaçu. Ceronec, ô Aitaric samurrena!  
garbi diotçotçu haraguiaren flakeçaz  
edo debruac enganaturic eguin ahal  
içatu dituen hux guciac; eta çure odo-  
laren gostuz erosi duçun membro hau  
yunta çoçu çure Eliçaren gorphutçari.  
Duçun urricalmendu, Yauna, horren  
marraskez; urricai çakizcote horren ni-  
gar minei. Çure misericordian du bak-  
harric bere fidantcia : harçaçu arren çu-  
re adiskideen herruncan; Yesu-Christo  
gure Yaunaren medioz. Halabiz.

Gomendatcen çaitut (ene anaia, *edo* arreba maitea) Yainco guciz-bothere-xuari, eta haren creatura çaren beçala, ematen çaitut haren escuetan; arren, noiz-ere herioa ethorriric, guiçon guciec çor dutena bihurtuco baituçu, itçul çaitecen, çu lur-lohitic itchuratu çaituen Autor bera-ganat.

Çure arima beraz gorphutçetic ilkhitcean, aintcinera ethor dakiola Aingueruen aralde distianta : ethor dakitçula yuyetçat yarriac daudecen Apóstoluen leinua : dathorçula oraino Martir gloriosen armada altchatua : ingura çaitçala Confesor liliz aphainduen gorthe churiac : bozcariorekin har çaitçatela Biryina garbien khoroc; eta Patriarkhec besarcaturic eçar bere galtçarrean, bethiereco dohaxutasunean.

Beguitharte ezti eta arrai batekin amulxuki har çaitçala Yesu-Christoc, eta mana deçala içan çaitecen bethi harenaitcinean daudecenen artean. Ez deçacun yakin nihoiz cer ondico ilhumbetan, cer oinhace su-lamboetan, cer min garratz çorigaitcezco leceetan. Ahalie

gabe içan ditela çure gain Satan beltça bere lagun guciekin : eta çu heltcen ikhusiric Aingueru sainduz lagundua, herstua bethierecotz ilhun-beltz lece-tarat ihes eguin deçala. Altcha dadila Yaincoa, haren exaiac barraiatuac daitecela, eta hura higuin duten guciac urrua dohacela haren beguietarie ; khea beçala sunxi daitecela ; eta suan ezcoa hurtcen den beçala, Yaincoaren aiticinean bekhatoreac gal daitecela : eta çucenac sasia eta bozcaria daitecela Yaincoaren aiticinean. Gueçatuac beraz eta ahalguez yoac beitez ilhun belt-cetaco izpiritu gaichtoen aralde guciac ; eta Satanen cerbitçarietarie ez dadila bat ausarta çu Ceruco bidetic guibelatcerat.

Beira çaitçala tormentetarie çuretçat gurutcean itçatu içan den Yesu-Christoc berac ; bera çaitçala heriotce eterna-letic çuretçat hil nahi içatu den Salbatçaile harc berac ; Yesu-Christoc, Yainco biciaren Semeac berac, eçar çaitçala Parabisuco axeguin eta goçoen erdian ; eta eçagut çaitçala bere ardien balxan Artçain on eta çucen

harrec. Diçula çure bekhatu gucien barkhamendua, eta eman çaitçala bere escuineco aldean bere hautatuen artean. Ikhus deçaçula bekhoz bekho çure Salbatçailea, eta bethi haren aiticinean çagola, çure beguiez beguira deçaçun, dohaxuentçat aguerian den eguia eternala. Beraz dohaxuen heronken artean eçarria, goça çaitecen Yaincoaren beguiratceco goçoaz menden mendetan. Halabiz.

Yauna, ongui eguioçu çure cerbitçariari, çure urricalmendutic igurikitcen duen salbamenduco tokian. Halabiz.

Yauna, beira çaçü çure cerbitçariaren arima Ifernuco hirriscu gucietaric, ondicozco sareetaric eta axecabe gucietaric. Halabiz.

Yauna, beira çaçü çure cerbitçariaren arima, lehenago Enoc eta Elias guiçonon heriotce comunetic beiratu ditutçun beçala. Halabiz.

Yauna, beira çaçü çure cerbitçariaren arima, Noë uholdetic beiratu dutçun beçala. Halabiz.

Yauna, beira çaçü çure cerbitçaria-

ren arima, Abraham Ur Caldeacoan beiratu duçun beçala. Halabiz.

Yauna, beira çaçu çure cerbitçaria-  
ren arima, Yob bere hersturetaric bei-  
ratu duçun beçala. Halabiz.

Yauna, beira çaçu çure cerbitçaria-  
ren arima, Isaac, sacrificatu gabe,  
Abraham bere aitaren escueta-  
ric beiratu duçun beçala. Halabiz.

Yauna, beira çaçu çure cerbitçaria-  
ren arima, Lot Sodomatic eta su-  
lambotic beiratu duçun beçala. Hala-  
biz.

Yauna, beira çaçu çure cerbitçaria-  
ren arima, Moïse Pharaon Egyptoco  
erregueren escueta-  
ric beiratu duçun  
beçala. Halabiz.

Yauna, beira çaçu çure cerbitçaria-  
ren arima, Daniel lehoïn lecetic beira-  
tu duçun beçala. Halabiz.

Yauna, beira çaçu çure cerbitçaria-  
ren arima, hirur haurrac su-labe gor-  
ritic eta erregue gaichtaguïn escueta-  
ric beiratu ditutçun beçala. Halabiz.

Yauna, beira çaçu çure cerbitçaria-  
ren arima, Susana gueçurrezco hogue-  
netic beiratu duçun beçala. Halabiz.

Yauna, beira çacu çure cerbitçaria-  
ren arima, Dabid Saül erreguearen eta  
Goliaten escuetaric beiratu duçun be-  
çala. Halabiz.

Yauna, beira çacu çure cerbitçaria-  
ren arima, Yondoni Petri eta Yondoni  
Paulo cephoetaric beiratu ditutçun be-  
çala. Halabiz.

Eta nola beiratu baituçu Santa Tecla  
Biryina eta Martir dohaxua hirur on-  
dico dorpheetaric, hala, othoi, beira  
çacu çure cerbitçari hunen arima, eta  
emoçu gracia çurekin goçatceco ceruco  
goçoez. Halabiz.

Gomendatcen darotçugu, Yainco  
handia, N. çure cerbitçaria, eta çu  
othoizten çaitugu, Yesu-Christo mun-  
duaren Salbatçailea, arren ez deçoçun  
ukho eguin, bainan eçar deçaçun Pa-  
triarkhen galçarrean horren arima;  
horren gatic hain amulxuki mundurat  
yauxi çarenaz gueróz Eçagut çacu, ô  
Yauna, çure creatura, ez Yainco atce  
eta arrotcec eguina, bainan çuc cero-  
nec, ô Yainco bici eta eguiazcoa :  
ecen, Yauna, ez da çutaz campo Yain-  
coric, eta nihorc-ere ecin eguin dio



çure obrac beçalacoric. Bozcaria eçaçu beraz horren arima, çure beguithartea ikhusten duela : ez orhoit leheneco horren bekhatuez ez-eta nahaskeriez : hec guciac gaztetasuneco eraunxiac eta nahicunde tçarren suac eguin-araci diotça. Bekhatuan erori da, Yauna; bainan halere ez ditu ukhatu eta arnegatu Aita, Semea, eta Izpiritu-Saindua, aiticitic sinhexi du, Yaincoaren kharra bere baithan erakharri du, Yainco gauça guciën Creatçailea leyalki adoratu du.

